

XEDAPEN OROKORRAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

161

403/2013 DEKRETUA, abuztuaren 30ekoa, Irudia argiztatzeko, hartzeko eta tratatzeko goi-mailako teknikariaren tituluari dagokion curriculuma ezartzen duena.

Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoaren 10.1. artikulua ezartzen duenez, Estatuko Administrazio Orokorrak finkatuko ditu Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionalan aditzera emandako lanbide-prestakuntzako eskaintzak osatuko dituzten profesionaltasun-ziurtagiriak eta -tituluak, betiere Konstituzioaren 149.1.30. eta 7. artikuluan xedatutakoaren arabera eta Lanbide Heziketaren Kontseilu Nagusiari kontsultatu ondoren.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 39.6. artikulua ezartzen duenez, Espainiako Gobernuak, autonomia-erkidegoei kontsultatu ostean, Lanbide Heziketako ikasketei dagozkien titulazioak ezarriko ditu, baita titulazio horietako bakoitzaren curriculumaren oinarriko alderdiak ere.

Ekonomia iraunkorraren martxoaren 4ko 2/2011 Legeak eta Ekonomia iraunkorraren Legea osatzen duen martxoaren 11ko 4/2011 Lege Organikoak –Lanbide Heziketaren eta kualifikazioen 5/2002 Lege Organikoa eta Hezkuntzaren 2/2006 Lege Organikoa aldatzen dituenak–, hainbat lege-aldaketa adierazgarri eragin dituzte bestelako ekonomia baten garapena sustatzeko eta bizkortzeko, hau da, ekonomia lehiakorragoa eta berritzaileagoa, produkzio-sektore tradizionalak berritzeko gauza izango dena eta kalitateko enplegu egonkorra eskatzen duten beste jarduera batzuetarantz bidea egiteko gauza izango dena sustatzeko eta bizkortzeko.

Hezkuntza-sistemako lanbide-heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duen uztailaren 29ko 1147/2011 Errege Dekretuaren 9. artikuluan definitzen da lanbide-heziketako tituluen egitura. Horretarako, Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionala, Europar Batasunak finkatutako jarraibideak, eta gizarte-intereseko beste alderdi batzuk hartu dira kontuan.

7. artikulua titulu horien lanbide-profila zehazten du. Lanbide-profil horretan sartuko dira konpetentzia orokorra, lanbide-konpetentzia, konpetentzia pertsonalak eta sozialak eta, hala badagokio, Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionalaren konpetentzia-atalak. Horrenbestez, titulu bakoitzak lanbide-kualifikazio oso bat, gutxienez, hartuko du barnean, betiere Lanbide Heziketako tituluek produkzio-sistemaren beharrei eta hiritartasun demokratikoa egikaritzeko aukera emango duten balio pertsonal eta sozialei eraginkortasunez erantzuteko.

Azaroaren 18ko 1686/2011 Errege Dekretuak Irudia argiztatzeko, hartzeko eta tratatzeko goi-mailako teknikariaren titulua ezartzen du eta haren gutxienerako irakaskuntzak zehazten ditu. Dekretu horrek ordeztu egiten du abenduaren 22ko 2033/1995 Errege Dekretua, Irudiaren arloko goi-mailako teknikariaren titulua arautzen zuena.

Bestetik, Hezkuntza-sistemako lanbide-heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duen 1147/2011 Errege Dekretuaren 8.2. artikulua ezartzen duenez, hezkuntza-administrazioek ezarriko dituzte Lanbide Heziketako irakaskuntzen curriculumak. Edonola ere, errege-dekretu horretan bertan xedatutakoa eta titulu bakoitza erregulatzen duten arauetan xedatutakoa errespetatu beharko dute.

Euskal Autonomia Erkidegoaren berezko eskumenen esparruari dagokionez, Autonomia Estatutuaren 16. artikuluan aditzera ematen denez, «Konstituzioaren lehen erabaki gehigarrian ezarritakoa aplikatzeko, irakaskuntza, zabalera, maila, gradu, era eta espezialitate guztietan, Euskal Autonomia Erkidegoaren kompetentziapean dago, Konstituzioaren 27. artikuluan ezarritakoari eta hura garatzen duten Lege Organikoei, eta 140.1.30 artikulua Estatuari ematen dizkion ahalmenei eta hori guztia betetzeko eta bermatzeko behar den goi inspekzioari kalterik egin gabe».

Bestalde, otsailaren 26ko 32/2008 Dekretuak, hezkuntza-sistemaren barruan, Lanbide Heziketaren antolamendu orokorra ezartzen du, Euskal Autonomia Erkidegoan.

Azaldutako aurrekarien arabera, dekretu honen helburua da Irudia argiztatzeko, hartzeko eta tratatzeko goi-mailako teknikariaren tituluarri dagozkion Lanbide Heziketako irakaskuntzetarako curriculuma ezartzea Euskal Autonomia Erkidegorako, betiere Irudia argiztatzeko, hartzeko eta tratatzeko goi-mailako teknikariaren titulua ezartzen duen eta tituluaren gutxieneko irakaskuntzak finkatzen dituen azaroaren 18ko 1686/2011 Errege Dekretuaren babesean.

Irudia argiztatzeko, hartzeko eta tratatzeko goi-mailako teknikariaren tituluarri dagozkion curriculumean alderdi hauek deskribatzen dira: alde batetik, tituluak adierazten duen lanbide-profila (kualifikazioak eta kompetentzia-atalak zerrendatzen dira, eta kompetentzia profesionalak, pertsonalak eta sozialak deskribatzen dira); eta, bestetik, tituluak biltzen dituen helburu orokorren eta lanbide-moduluen bidez, besteak beste, ezarritako irakaskuntzak (lanbide-modulu bakoitzari dagozkion ikaskuntzaren emaitzak, ebaluazio-irizpideak eta edukiak, eta horiek antolatu eta ezartzeko jarraibideak eta zehaztapenak barne hartuta).

Helburu orokorrak profilean deskribatzen diren kompetentzia profesional, pertsonal eta soziale-tatik atera dira. Haietan, ikasleak heziketa-zikloaren amaieran eskuratu behar dituen gaitasunak eta lorpenak adierazten dira; hortaz, heziketa-zikloa osatzen duten lanbide-moduluetako bakoitzean landu beharreko edukiak eta ikasleak bereganatu behar dituen ikaskuntzaren emaitzak lortzeko lehen iturria dira.

Modulu bakoitzean jasotako edukiak irakatsi eta ikasteko prozesuaren euskarria dira; ikasleak trebetasun eta abilezia teknikoak, etorkizun profesionalean aurrera egiteko kontzeptuzko oinarri zabala eta lortu nahi den kualifikazioarekiko lanbide-nortasun koherentea islatuko duten portaerak eskura ditzan.

Honako dekretu hau bideratzean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 19. artikulutik 22. artikulura bitartean aurreikusten diren izapideak bete dira.

Ondorioz, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren proposamenez, Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluak emandako txostena eta gainerako aginduzko txostenak aztertuta, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren arabera, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2013ko abuztuaren 30ean egindako bilkuran eztabaidatu eta onartu ondoren, hauxe,

XEDATZEN DUT:

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRA

1. artikulua.– Xedea eta aplikazio-esparrua.

1.– Dekretu honek Irudia argiztatzeko, hartzeko eta tratatzeko goi-mailako teknikariaren tituluari dagozkion Lanbide Heziketako irakaskuntzetarako curriculuma ezartzen du, Euskal Autonomia Erkidegorako.

2.– Ikastetxeak duen autonomia pedagogikoaren eta antolamendukoaren ildotik, hari dagokio bere Ikastetxearen Ikasketa Proiektua ezartzea, eta proiektu horretan ezarriko ditu bere irakaskuntza-lanaren ezaugarriak eta nortasuna zehazteko, eta lanbide-moduluen programazioak prestatzeari buruzko irizpideak finkatzeko beharrezko erabakiak.

3.– Ikastetxearen Ikasketa Proiektuaren esparruan, heziketa-zikloaren ardura duen irakasle taldeari eta, zehazki, irakasle bakoitzari dagokio programazioak prestatzea. Horretarako, ezartzen diren helburu orokorrak kontuan izan beharko ditu, lanbide-modulu bakoitzean bildutako ikaskuntzaren emaitzak eta edukiak errespetatu beharko ditu, eta irakaskuntzen erreferentziazko lanbide-profila hartu beharko du euskarri.

II. KAPITULUA

TITULUAREN IDENTIFIKAZIOA ETA LANBIDE PROFILA

2. artikulua.– Tituluaren identifikazioa.

Irudia argiztatzeko, hartzeko eta tratatzeko goi-mailako teknikariaren titulua elementu hauek identifikatzen dute:

- Izena: Irudia argiztatzea, hartzea eta tratatzea.
- Maila: Goi-mailako Lanbide Heziketa.
- Iraupena: 2.000 ordu.
- Lanbide-arloa: Irudia eta Soinua.
- Irakaskuntzaren Nazioarteko Sailkapen Normalizatuko erreferentea: INSN-5b.
- Goi-mailako hezkuntzako kualifikazioen Espainiako esparruan duen maila: 1. maila, goi-mailako teknikaria.

3. artikulua.– Lanbide-profila.

1.– Titulu honen kompetentzia orokorra da proiektu fotografiko osoak egitea, ikus-entzunezko produkzioetan irudiak hartu, erregistratu eta tratatzea, eta ikus-entzunezkoetako, ikuskizunetako eta ekitaldietako espazio eszenikoak argiztatzea, kalitate teknikoa, formala eta espresiozkoa zehaztuta eta kontrolatuta.

2.– Konpetentzia profesionalak, pertsonalak eta sozialak.

Honako hauek dira titulu honen konpetentzia profesionalak, pertsonalak eta sozialak:

a) Kamera, argiztapen edo fotografiako proiektu baten bideragarritasuna zehaztea, eta, proiektuaren eskakizunen eta dokumentazioaren azterketatik abiatuta, irudiaren espresiozko ezaugarriak baloratu eta proiektu artistikoarekin identifikatzea.

b) Ikus-entzunezkoen hartze-prozesuan, ikus-entzunezkoen edo ikuskizunen argiztapen-prozesuan eta prozesu fotografikoan parte hartzen duten giza baliabideak eta baliabide teknikoak zehaztea eta kudeatzea, eta, proiektuak gauzatzeko fasean, horietatik egokienak erabiltzea, aurretiaz bakoitzaren ezaugarriak baloratuta.

c) Irudiak hartzeari eta erregistratzeari, argiztapenari eta prozesu fotografikoei dagokien plangintza egitea, eta, aurrekonturik egokiena egiteko, denbora eta baliabideak erlazionatzea, eraginkortasuna irizpide dela.

d) Eszenaratzea eta girotzea nola egingo den definitzea eta gauzatea, hartu behar den irudi fotografikoaren espresiozko ezaugarriak aztertuta, eta, hala, proiektuaren edo bezeroaren eskakizunak betetzea.

e) Ikus-entzunezko lanak edo ikuskizunak egiteko, argiztapen-tresneria muntatzea eta instalatzea, eta egiaztatzea tresneria hori ondo dabilela eta aurretiaz zehaztutako behar artistiko eta adierazpenezkoei ondo egokitzen zaiela.

f) Entseguetan, ikus-entzunezko lan baten edo eta proiektu fotografiko baten hartze- eta erregratze-baliabideak, alderdi mekaniko, elektroniko eta optikoari dagokionez, zuzen dabiltzala egiaztatzea, eta, hala, horien operatibotasuna bermatzea hartzea egitean.

g) Ikus-entzunezko proiektua edo proiektu fotografikoa behin betiko erregistratu aurreko entseguetan nahiz ikuskizuna antzeztu aurreko entseguetan, argiztapena gainbegiratzea eta doitzea, eta zer aldaketa egiten den apuntatzea eta dokumentatzea, aldaketa horiek, gero, barrutian bertan edo biran errepikatu ahal izateko.

h) Irudia hartzea eta irudi-hartzea gainbegiratzea, ikus-entzunezko baliabidearen eta baliabide fotografikoaren berezko lan-modalitate guztietan, edozein euskarri eta formatutan; irudi-hartzearen kalitatea baloratzea eta soinua erregistratzea kazetaritza elektronikoak edo gizarte-erreportajeak berezko dituen lanetan.

i) Argiztapena egitea eta gainbegiratzea ikus-entzunezko produkzioetan irudiak erregistratzean, eta ikuskizun-emanaldi eta ekitaldietan.

j) Kazetaritza elektronikoak edo gizarte-erreportajeak berezko dituen produkzioetan irudien eta soinuen edizioa egitea, ezarri diren komunikazio-helburuak lortzeko.

k) Ikus-entzunezko produkzioak hartzerakoan eta argiztatzerakoan, soluzio teknikoak aplikatzea, postprodukzioko eta etalonajeko prozesuak optimizatu eta azken irudiaren kalitatea hobetu ahal izateko.

l) Prozesuak osorik egitea eta gainbegiratzea, aginduaren eskakizunen arabera, eragiketa hauek egin behar direnean: irudien digitalizazio fotografikoa, digitalizazio-gailuetan eta monitoreetan kolorea kudeatzea, irudien tratamendu digitala egitea, fotonuntaiak egitea eta irudiak sortzea.

m) Jatorrizko fotografikoen inprimaketa kudeatzea, eta, horretarako, kopien kalitatea, akabera, aurkezpena, artxibatzea eta kontserbazioa zaintzea.

n) Kamera-tresneria eta argiztapen-tresneria desmuntatzeko, garraiatzeko eta biltegian kudeatzeko eragiketak gainbegiratzea; tresneria mantentzeko lanak egitea, prebentziozkoak nahiz zuzenketazkoak, eta, hala, materiala egoera onean dagoela eta kokaleku jakina duela bermatzea.

ñ) Laneko egoera berrietara egokitzea, egunean izanda lanbide-ingurunearen gaineko ezagutza zientifikoak, teknikoak eta teknologikoak, prestakuntza eta dauden baliabideak bizitza osoko ikaskuntzan kudeatuta, eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabilia.

o) Egoerak, arazoak eta gorabeherak konpontzea, ekimenez eta autonomiaz dagokion eskumen-eremuan, eta sormenez, berrikuntzaz eta hobetzeko gogoz norberaren eta lantaldearen zereginetan.

p) Lantaldeak arduraz antolatu eta koordinatzea, haien garapena gainbegiratzuz, harreman onak izanez, lidergoa hartuz, eta lantaldean sortzen diren gatazkak konpontzeko aterabideak proposatuz.

q) Parekoekin, nagusiekin, bezeroekin eta bere ardurapeko pertsonekin komunikatzea, komunikazio-bide eraginkorrak erabiliz, informazioa edo ezagupen egokiak emanez, eta dagokion lan-eremuan parte hartzen duten lagunen autonomia eta eskumenak errespetatuz.

r) Norberaren eta lantaldearen lan-garapenean ingurune seguruak sortzea, laneko eta ingurumeneko arriskuen prebentziorako prozedurak gainbegiratzuz eta aplikatuz, betiere enpresaren arautegian eta helburuetan ezarritakoarekin bat etorritz.

s) Produkzioko edo zerbitzugintzako prozesuetan bildutako lanbide-jardueretan, kalitate-prozedurak, irisgarritasun unibertsalekoak eta «denontzako diseinukoak» gainbegiratzea eta aplikatzea.

t) Enpresa txiki bat sortu eta abiarazteko oinarrizko kudeaketa egitea, eta dagokion lanbide-jardueran ekimena izatea erantzukizun sozialez jokatuta.

u) Dagokion jardueraren ondoriozko eskubideak baliatzea eta betebeharrak betetzea, indarrean dagoen legerian ezarritakoaren arabera, eta bizitza ekonomikoan, sozialean eta kulturean aktiboki parte hartuz.

3.– Titulu honetan biltzen diren Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionaleko kualifikazioen eta kompetentzia-atalen zerrenda:

– Osatutako lanbide-kualifikazioak:

a) Zinema, bideo eta telebistako kameralaria. IMS294_3. (1200/2007 Errege Dekretua, irailaren 14koa). Kompetentzia-atal hauek hartzen ditu barnean:

UC0939_3: Ikus-entzunezko proiektuak hartzeko eta erregistratzeko plana garatzen laguntzea.

UC0940_3: Irudia hartzeko eta erregistratzeko baliabideen egokitzapen teknikoa eta operatibotasuna egiaztatzea.

UC0941_3: Ikus-entzunezko produkzioen argiztapena diseinatzen eta gauzatzen laguntzea.

UC0942_3: Ikus-entzunezko proiektuaren irizpide teknikoen, artistikoen eta komunikaziozkoen arabera hartzea irudiak.

b) Zuzeneko ikuskizunetarako luminoteknia IMS075_3. (295/2004 Errege Dekretua, otsailaren 20koa). Konpetentzia-atal hauek hartzen ditu barnean:

UC0210_3: Zuzeneko ikuskizun baterako argiztapenean parte hartzea, hainbat ustiapen-egoeratan erreproduzitura eta mantenduta.

UC0211_3: Zuzeneko ikuskizun baterako argiztapen-tresneria muntatzeko, desmuntatzeko eta mantentzeko lanak kudeatzea, koordinatzea, gainbegiratzea eta egitea.

UC0212_3: Entseguak eta emanaldiak zerbitzatzea.

c) Produkzio fotografikoa. IMS441_3. (1957/2009 Errege Dekretua, abenduaren 18koa). Konpetentzia-atal hauek barne hartzen ditu:

UC1417_3: Proiektu fotografikoak diseinatzea, antolatzea eta kudeatzea.

UC1418_3: Irudi fotografikoen eszenografia, argiztapena, hartzea, erregistroa eta kalitate-balorioa gainbegiratzea eta egitea.

UC0928_2: Irudiak informatika-aplikazio bidez digitalizatzea eta tratatzea.

UC1419_3: Irudi eta material fotografikoak emateko, artxibatze eta kontserbatzeko prozesuak bermatzea.

– Osatu gabeko lanbide-kualifikazioa:

a) Irudi-laboregiko produkzioa. IMS440_3. (1957/2009 Errege Dekretua, abenduaren 18koa). Konpetentzia-atal hauek barne hartzen ditu:

UC1415_3: Irudi sintetikoak sortzeko, digitalizatzeko, tratamendu digitalak egiteko eta filmak errebelatzeko prozesuak kudeatzea eta gainbegiratzea.

UC1416_3: Positibatze, inprimatze eta akabera fotografikoko prozesuak kudeatzea eta gainbegiratzea.

4. artikulua.– Lanbide-ingurunea.

1.– Titulu hori lortzen duten pertsonen zinemako eta bideoko produkzio-etxeetako eta telebista-etxeetako irudiak hartzearen eta erregistratzearen arloan eta argiztapenaren arloan egiten dute lan, baita orotariko ikuskizunetako eta ekitaldietako argiztapenean diharduten enpresetan eta irudi fotografikoak lantzeko, sortzeko eta tratamendu digitala emateko enpresetan ere.

2.– Zeregin eta lanpostu aipagarrienak hauek dira:

Zinema, bideo eta telebistako kameralaria.

Kameralariaren laguntzailea.

ENGko (Electronics News Gathering) kameralaria.

Telebistako argiztzailea.

Argiztapeneko laguntzailea.

Zuzeneko ikuskizunetako argiztapen-arduraduna.

Zuzeneko ikuskizunetako luminoteknikoa.

Ikuskizunetako argiztapen-kontrolako mahaiaren teknikaria.

Argazkilaria.

Argazki finkoko teknikaria.

Erreportari grafikoa.

Fotografia digitaletako ukitu-emailea.

Irudiaren sistema digitalen eta bektorialen gainbegiralea.

III. KAPITULUA

HEZIKETA ZIKLOAREN IRAKASGAIK, ESPAZIOAK ETA EKIPAMENDUAK, ETA IRAKASLEAK

5. artikulua.– Heziketa-zikloaren irakasgaiak.

1.– Heziketa-zikloaren helburu orokorrak:

a) Kamera, argiztapen edo fotografiako proiektu bat abian jartzean, esku hartzen duten materialak, teknikak eta espresiozko ezaugarriak baloratzea eta horien dokumentazioa aztertzea, bideragarritasuna zehazteko.

b) Ikus-entzunezkoetako hartze-prozesuan, ikus-entzunezkoetako edo ikuskizunetako argiztapen-prozesuan eta prozesu fotografikoan parte hartzen duten giza baliabideen eta baliabide teknikoaren eta materialen beharrak ezaugarritzea eta horien egokitasuna baloratzea, proiektua gauzatzeko fasean prest izatearren eta kudeatzearren.

c) Eskura dauden baliabideen zerrendak eta proiektuaren dokumentazioa abiapuntu izanik, ikus-entzunezko hartze, argiztatze eta fotografiako proiektu bat gauzatzeko bat egiten duten baliabide materialen eta giza baliabideen aldi baterako erabileran lehentasunak eta mendentasun-erlazioak finkatzea, laneko plan teknikoa optimizatzeko irizpideak diseinatzearren.

d) Proiektu fotografiko baten eskakizunak ebaluatzea eta komunikazio-helburua definitzea, hartzea egingo den lekuan bertan elementu eszenografikoak zehazteko eta prestatzeko, hala nola estilismoa, makillajea, dekorazioa eta dagokion eszenaratzea eta girotzea osatzen duten beste elementu batzuk.

e) Ikus-entzunezko obretan, ikuskizunetan eta produkzio fotografikoetan erabiltzen den argiztapen-tresneria muntatzeko, instalatzeko eta konektatzeko teknikak eta prozedurak aztertzea, eta, horretarako, proiektuaren dokumentazio teknikoa eta helburuak baloratzea, argiztapen-tresneria muntatzeko eta instalatzeko.

f) Kamera- eta erregistro-probak egitea eta, eginkizun horretan, elementu mekanikoen, optikoen eta elektronikoen ezaugarriak eta doikuntza-parametroak aztertzea, ikus-entzunezko obra baten edo proiektu fotografiko baten hartze- eta erregistro-baliabideen funtzionamendu zuzena ziurtatzeko.

g) Eszenaren argiztapenaren funtzionamendu- eta egokitzapen-probak egitea, ikus-entzunezko proiektuko edo proiektu fotografikoko behin betiko erregistroaren aurreko edo ikuskizunaren errepresentazioaren aurreko entseguetan argiztapena gainbegiratzeko eta doitzeko.

h) Ikus-entzunezko baliabidearen eta baliabide fotografikoaren berezko lan-modalitateetan enkoadraketa, konposizio eta kamera-mugimenduko teknikak aplikatzea, eta, horretarako, euskarrien eta formatuen zehaztasunak aztertzea eta irudien eta soinuen hartzeen kalitatea ebaluatzea –azken horiek kazetaritza elektronikoko produkzioetan edo gizarte-erreportajeetan–, betiere hainbat ikus-entzunezkoetan irudiak hartzea gainbegiratzeko eta egiteko.

i) Ikus-entzunezko eta ikuskizunetako produkzioetan argiztapenaren zuzeneko kontrol- eta jarraipen-teknikak aplikatzea eta lortutako emaitzak interpretatzea eta baloratzea, argiztapena behar bezalakoa dela gainbegiratzeko.

j) Planoak konbinatzeko aukerak, irudi-bandan edizio-efektuak sartzeko aukerak eta soinu-banda eraikitzeako aukerak baloratzea eta kazetaritza elektronikoko edo gizarte-erreportajeko produkzioetan irudiak eta soinuak integratzeko eta editatzeko elementuak eta erlazioak identifikatzea.

k) Argiztapena planifikatzea eta irudia mugimenduan hartzea, eta, horretarako, postprodukzioko eta etalonajeko prozesuetan eragina duten erabakien ondorioak aintzat hartzea, eta ikus-entzunezko produkzioak argiztatzeko eta hartzeko soluzio teknikoak gaineratzea.

l) Irudi fotografikoen tratamendu digitala, fotomuntaia eta irudien sorrera sintetikoa egitea eta gailu guztien tratamendu-teknikak eta kolore-kudeaketa baloratzea, betiere irudi fotografikoen kolorearen kudeaketan eta digitalizazioan beharrezko emaitzak lortzeko.

m) Kopia eta jatorrizko fotografikoen kalitate-kontrolerako, akaberako, aurkezpeneko, artxiboko eta kontserbazioko teknikak hautatzea eta aplikatzea, kalitate, iraupen eta kokapeneko prozedurak aztertuta, jatorrizko fotografikoen inprimaketa kudeatzeko.

n) Kamera eta argiztapeneko tresneria antzezpen eta errodajeko espazioetan mantentzeko eta muntatzeko planak zehaztea, betiere kamera eta argiztapeneko tresneria muntatzeko, garraiatzeko eta biltegitratzeko eragiketetarako tresneriaren kontserbazioa bermatuko duten beharrezko prozedurak eta prozesuak aztertuta eta dokumentatuta.

ñ) Sektoreko bilakaera zientifikoarekin, teknologikoarekin eta antolamendukoarekin lotzen diren ikaskuntza-baliabideak eta -aukerak aztertzea eta erabiltzea, baita informazioaren eta komunikazioaren teknologiak ere, eguneratze-izpirituari eusteko eta laneko egoera berrietara eta egoera pertsonal berrietara egokitzeke.

o) Sormena eta berrikuntzako izpiritua garatzea lanaren eta norberaren bizitzaren prozesuetan eta antolamenduan agertzen diren erronkei erantzuteko.

p) Erabakiak arrazoituta hartzea eta, horretarako, inplikaturako aldagaiak aztertzea, hainbat esparrutako jakintzak integratzea eta arriskuak eta erabaki okerrak hartzeko aukera onartzea, askotariko egoerei, arazoei edo gorabehereri aurre egiteko eta horiek ebazteko.

q) Lidergo, motibazio, gainbegiratze eta komunikazioko teknikak garatzea talde-laneko testuinguruetan, betiere lan-taldean antolamendua eta koordinazioa errazteko.

r) Komunikatzeko estrategiak eta teknikak aplikatzea, transmitituko diren edukietara, xedera eta hartzaileen ezaugarrietara egokituta, komunikazio-prozesuetan eraginkortasuna ziurtatzeko.

s) Laneko arriskuen prebentzioko eta ingurumen-babeseko egoerak ebaluatzea, norberaren eta taldearen prebentziorako neurriak proposatuz eta aplikatuz, lan-prozesuetan aplikatzekoa den araudiaren arabera, betiere ingurune seguruak bermatzeko.

t) Irisgarritasun unibertsalari eta «denontzako diseinuari» erantzuteko beharrezkoak diren teknikak aplikatzea eta aztertzea.

u) Kalitate-parametroak identifikatzea eta aplikatzea ikaskuntza-prozesuan egindako lanetan eta jardueretan, ebaluazioaren eta kalitatearen kultura baloratzeko eta kalitate-kudeaketako prozedurak hobetzeko.

v) Kultura ekintzailearekin, enpresakoarekin eta ekimen profesionalekoarekin erlazionatutako prozedurak erabiltzea, enpresa txiki baten oinarrizko kudeaketa egiteko edo lan bati ekiteko.

w) Baldintza sozialak eta lanekoak arautzen dituen lege-esparrua kontuan harturik, gizarteko agente aktibo gisa dituen eskubideak eta betebeharrak zein diren jakitea, herritar demokratiko gisa parte hartzeko.

2.– Honakoa da heziketa-zikloa osatzen duten lanbide-moduluen zerrenda:

- a) Ikus-entzunezkoetako kamera-plangintza.
- b) Ikus-entzunezko irudia hartzea.
- c) Argiztapen-proiektuak.
- d) Luminoteknia.
- e) Argiztapen-kontrola.
- f) Proiektu fotografikoak.
- g) Hartze fotografikoa.
- h) Tratamendu fotografiko digitala.
- i) Amaierako prozesu fotografikoak.
- j) Ikus-entzunezko erreportajeen grabazioa eta edizioa.
- k) Ingeles teknikoa.
- l) Irudia argiztatzeko, hartzeko eta tratatzeko proiektua.
- m) Laneko prestakuntza eta orientabidea.
- n) Enpresa eta ekimen sortzailea.
- ñ) Lantokiko prestakuntza.

I. eranskinean zehaztu da lanbide-moduluen ordu-esleipena eta lanbide-moduluak zein kurtso-tan eman beharko diren.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak arautu ditzakeen heziketa-eskaintzen arabera egokitu ahal izango da moduluen ordu-esleipena eta moduluak zein kurtso-tan emango diren, dekretu honen 11. artikuluan xedatutakoarekin bat eginik.

3.– Lanbide-modulu bakoitzerako, ikaskuntzaren emaitzak (prestakuntzaldia amaitzean ikasleak jakin, ulertu eta egin dezan espero dena deskribatzen dutenak), eta ebaluazio-irizpideak eta eman beharreko edukiak ezartzen dira. II. eranskinean ezarri da hori guztia.

4.– Lantokiko prestakuntzako modulua, bestalde, bigarren kurtsoko azken hamahiru asteetan garatuko da, eta ikastetxean egindako lanbide-modulu guztien ebaluazio positiboa lortu ondoren egingo da.

5.– Europako Batzordeak ezarritako oinarrizko kompetentziak garatzeko eta sakontzeko gomen-dioei jarraituz eta lehentasuneko arloekin lotzen den prestakuntzaren garapenaren indarrez, curriculumean Ingeles teknikoa modulua txertatuta landuko da heziketa-ziklo horretan atzerriko hizkuntza, betiere Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoaren hirugarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.

6. artikulua.– Espazioak eta ekipamenduak.

Prestakuntza garatzeko, eta ezarritako emaitzak eta kompetentziak lortzeko gutxieneko espazioak eta ekipamenduak III. eranskinean zehaztu dira.

7. artikulua.–Irakasleak.

1.– Heziketa-zikloko lanbide-modulu bakoitzerako irakasleen espezialitateak eta irakasteko eskumena IV. eranskinaren 1. atalean ezarri dira.

2.– Irakaskuntza-kidegoetako irakasleei oro har eskatzen zaizkien titulazioak otsailaren 23ko 276/2007 Errege Dekretuaren 13. artikuluan ezarritakoak dira. Izan ere, Errege Dekretu horrek onartzen du Hezkuntzako maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan aipatzen diren irakasle-kidegoetako espezialitate berrietan sartzeko eta eskuratzeko araudia, eta arautzen du Lege horren hamazazpigarren xedapen iragankorrean adierazten den sarrerako aldi baterako erregimena. Irakasleen espezialitateetarako 1. paragrafoan adierazten diren titulazio baliokideak (irakaskuntzaren ondorioetarako) IV. eranskinaren 2. atalean jaso dira.

3.– Hezkuntzakoaz bestelako administrazioetan barnean hartuta dauden titulartasun pribatuko nahiz titulartasun publikoko ikastetxeetako irakasleentzat, titulua osatzen duten lanbide-moduluak emateko beharrezko titulazioak eta eskakizunak Dekretu honen IV. eranskinaren 3. atalean eman dira aditzera. Nolanahi ere, aditzera emandako titulazio horiek lortzeko irakaskuntzek lanbide-moduluen helburuak bete beharko dituzte. Helburu horiek barnean hartuta ez badaude, titulazioaz gain, lanbide-arlo horrekin lotzen den sektorean gutxienez hiru urteko lan-esperientzia frogatu beharko da «ziurtagiri» bidez –irakaskuntzaren emaitzekin inplizituki lotzen diren enpresetan produkzio-jarduerak garatzen hiru urteko esperientzia frogatu beharko du ziurtagiriak–.

IV. KAPITULUA

BESTE IKASKETA BATZUETARAKO SARBIDEAK ETA LOTURA. BALIOZKOTZEAK, SALBUESPENAK ETA EGOKITASUNAK. BALIOKIDETASUNAK, ETA ONDORIO AKADEMIKOAK ETA PROFESIONALAK. URRUTIKO ESKAINTZA ETA BESTELAKO MODALITATEAK

8. artikulua.– Prestakuntza-ziklo honetara sartzeko lehentasuna, batxilergoan ikasitako modalitateak eta ikasgaiak aintzat hartuta.

Prestakuntza-ziklo honetara sartzeko lehentasuna izango dute batxilergoan Zientziak eta Teknologia modalitatea ikasi dutenek.

9. artikulua.– Beste ikasketa batzuetarako sarbideak eta lotura.

1.– Irudia argiztatzeko, hartzeko eta tratatzeko goi-mailako teknikariaren tituluak aukera ematen du goi-mailako edozein heziketa-ziklotara zuzenean sartzeko, betiere horretarako ezartzen diren onarpen-baldintzetan.

2.– Irudia argiztatzeko, hartzeko eta tratatzeko goi-mailako teknikariaren tituluak aukera ematen du graduko unibertsitate-tituluak eskuratzeko ikasketetara zuzenean sartzeko, betiere horretarako ezartzen diren onarpen-baldintzetan.

3.– Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak baliozkotze-araubidea ezarriko du Irudia argiztatzeko, hartzeko eta tratatzeko goi-mailako teknikariaren titulua dutenen eta horrekin lotutako graduko unibertsitate-titulua dutenen artean. Baliozkotze-araubidea errazteko asmoz, dekretu honetan ezarritako irakasgaietan 120 ECTS kreditu esleitu dira prestakuntza-ziklo honetako lanbide-moduluen artean.

10. artikulua.– Baliozkotzeak, salbuespenak eta egokitasunak.

1.– Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren babesean Laneko prestakuntza eta orientabidea modulua edo Enpresa eta ekimen sortzailea modulua gaindituta dituenak modulu horiek baliozkotuta izango ditu lege horren babespeko beste edozein ziklotan.

2.– Hezkuntza-sistemaren antolamendu orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoaren babesean ezarritako lanbide-moduluen eta maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren babesean ezarritakoen arteko baliozkotzeak V. eranskinean adierazten dira.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan hezkuntza-sistemako lanbide-heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duen otsailaren 26ko 32/2008 Dekretuaren 27. artikuluan ezarritakoaren arabera, Lantokiko prestakuntza lanbide-modulua osorik edo zati batean salbuestea erabaki ahal izango da, baldin eta heziketa-ziklo honekin lotutako lan-esperientzia egiaztatzen bada, artikulua horretan jasotako baldintzen arabera.

4.– Laneko esperientziaren bidez eskuratutako lanbide-kompetentziak aintzat hartzeko uztailaren 17ko 1224/2009 Errege Dekretuan ezarritako prozeduraren bitartez, titulu honetan barnean hartzen diren kompetentzia-atal guztiak egiaztatu dituztenek Laneko prestakuntza eta orientabidea modulua baliozkotzea eskatu ahal izango dute, baldin eta:

– Urtebeteko lan-esperientzia, gutxienez, egiaztatzen badute.

– Jarduera prebentiboaren oinarrizko funtzioak betetzeko ezarritako prestakuntzaren egiaztatzea badute –Prebentzio-zerbitzuen erregelamendua onartzen duen urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera emandako egiaztatzea izango da–.

5.– Titulu honen profilararekin lotzen diren kompetentzia-atal guztiak egiaztatu dituztenek Ingeles teknikoko modulua baliozkotzea eskatu ahal izango dute, baldin eta proiektuko lanbide-modulua gainditzen badute. Edonola ere, gutxienez 3 urteko lan-esperientzia egiaztatu beharko dute, uztailaren 29ko 1147/2011 Errege Dekretuaren 40.5 artikuluan xedatutakoaren indarrez.

6.– Irudia argiztatzeko, hartzeko eta tratatzeko goi-mailako teknikariaren tituluaren irakaskuntzako lanbide-moduluen eta kompetentzia-atalen arteko egokitasuna –horiek baliozkotzeko edo salbuesteko– eta titulu honetako lanbide-moduluen eta kompetentzia-atalen arteko egokitasuna –horiek egiaztatzeko– VI. eranskinean jasotzen dira.

11. artikulua.– Urrutiko eskaintza eta bestelako modalitateak.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak arautu egingo ditu ziklo honetako irakaskuntzak eskaini ahal izateko baimena eta eskaintza horren oinarritzko alderdiak (hala nola moduluen iraupena eta sekuentziazioa), araubide orokorrean ezarritakoaz bestelako eskaintza osoaren modalitatean eta urrutiko irakaskuntzan edo beste modalitate batzuetan.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA.– Titulazio baliokideak eta lanbide-trebakuntzekiko lotespena.

1.– Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren hogeita hamaikagarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, Hezkuntzari eta Hezkuntzako Erreforma Finantzazeari buruzko abuztuaren 4ko 14/1970 Lege Orokorreko teknikari espezialistaren tituluek azaroaren 18ko 1686/2011 Errege Dekretuan ezarritako Irudia argiztatzeko, hartzeko eta tratatzeko goi-mailako teknikariaren tituluaren ondorio profesional berberak izango dituzte. Hona aipatutako tituluak:

Irudi fotografikoko teknikari espezialista, Irudia eta Soinua adarra.

Irudi filmikoko teknikari espezialista, Irudia eta Soinua adarra.

Ikus-entzunezkoen teknikari espezialista, Irudia eta Soinua adarra.

Irrati eta telebistako eragiketen teknikari espezialista, Irudia eta Soinua adarra.

Irudiari eta soinuari dagozkien eragiketen teknikari espezialista, Irudia eta Soinua adarra.

Ikus-entzunezkoen teknikari espezialista, Irudia eta Soinua adarra.

2.– Abenduaren 22ko 2033/1995 Errege Dekretuak ezarritako Irudiko goi-mailako teknikariaren tituluak eta azaroaren 18ko 1686/2011 Errege Dekretuak ezartzen duen Irudia argiztatzeko, hartzeko eta tratatzeko goi-mailako teknikariaren tituluak ondorio profesional eta akademiko berberak izango dituzte.

3.– Laneko prestakuntza eta orientabidea lanbide-modulurako dekretu honetan ezarritako prestakuntzak trebatu egiten du laneko arriskuen prebentzioko oinarritzko mailako jardueretarako urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuan ezarritako lanbide-erantzukizunez arduratzeko, baldin eta gutxienez 45 eskola-ordu ematen badira. Errege-dekretu horrek prebentzio-zerbitzuen araudia onartzen du.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako Sailburuordetzak aukera izango du dekretu honen I. eranskinean ezarritakoaz bestelako iraupena duten proiektuak baimentzeko, baldin eta moduluen kurtsokako banaketa aldatzen ez bada eta titulua sortzeko errege-dekretuan modulu bakoitzari esleitutako gutxienezko orduak errespetatzen badira.

2014ko urtarrilaren 16a, osteguna

AZKEN XEDAPENA.– Indarrean jartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu, eta biharamunean jarriko da indarrean.

Donostia-San Sebastiánen, 2013ko abuztuaren 30ean.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERÍA.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO

ABUZTUAREN 30EKO 403/2013 DEKRETUAREN I. ERANSKINA
LANBIDE MODULUEN ZERRENDA, ORDU ESLEIPENA ETA KURTSOA

Kodea	Lanbide modulua	Ordu esleipena	Kurtsoa
1158	1.– Ikus-entzunezkoetako kamera-plangintza	165	1
1159	2.– Ikus-entzunezko irudia hartzea	160	2
1160	3.– Argiztapen-proiektuak	100	2
1161	4.– Luminoteknia	132	1
1162	5.– Argiztapen-kontrola.	99	1
1163	6.– Proiektu fotografikoak	99	1
1164	7.– Hartze fotografikoa	160	2
1165	8.– Tratamendu fotografiko digitala	198	1
1166	9.– Amaierako prozesu fotografikoak	80	2
1167	10.– Ikus-entzunezko erreportajeen grabazioa eta edizioa	198	1
E200	11.– Ingeles teknikoa	40	2
1168	12.– Irudia argiztatzeko, hartzeko eta tratatzeko proiektua	50	2
1169	13.– Laneko prestakuntza eta orientabidea.	99	1
1170	14.– Enpresa eta ekimen sortzailea	60	2
1171	15.– Lantokiko prestakuntza.	360	2
	Zikloa, guztira	2.000	

ABUZTUAREN 30EKO 403/2013 DEKRETUAREN II. ERANSKINA

LANBIDE MODULUAK: IKASKUNTZAREN EMAITZAK, EBALUAZIO IRIZPIDEAK ETA EDUKIAK

1. lanbide-modulua: Ikus-entzunezkoetako kamera-plangintza

Kodea: 1158

Kurtsoa: 1

Iraupena: 165 ordu

ECTS kredituetarako baliokidetzatza: 9

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1.– Ikus-entzunezko proiektuetan kamera-planoen tipologia eta ikus-estiloa definitzen ditu, eta ikus-entzunezko lengoaiaren konbentzioak proiektuaren komunikazio-helburuak lortzearekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Ikus-entzunezko obren komunikazio-asmoa, generoa eta alderdi espresiboak eta estetikoak ondorioztatu ditu, hasierako dokumentuen analisia abiapuntu izanik.

b) Ikus-entzunezko obren ikus-estiloa diseinatu du, eta, horretarako, plano motak, enkoadraketak, kamera-mugimenduak, barne-erritmoa, sakonera-erlazioak, irudiaren definizioa eta argiztapenarekiko espazio- eta kolore-aukerak definitu ditu.

c) Ikus-entzunezko hainbat proiektutan kamera-lanaren ekarpena ebaluatu du, honako alderdi hauek aintzat hartuta: ikus-narratiba, fokalizazioa eta ikus-inpaktua, fikzioetan, publizitatean, bideoklipetan eta dokumentaletan.

d) Antzezleen eta parte-hartzaileen bilakaeraren eta eszenaratzearen arabera, kokalekuaren edo estudioko dekoratuen oin-planoko eskemetan erabiliko diren planoen tipologia definitu du, eta, horretarako, optiken, foku-distantzien, fokuen, diagramaren, segundoko koadroen, obturazioaren eta eremu-sakoneren aukeraketa aurreikusiko du.

e) Planoen eta sekuentzien arteko trantsizioetan aplikatuko diren ikus-entzunezko jarraitutasun-teknikak aurreikusi ditu.

f) Muntaiaren, postprodukzioaren eta grafismoaren eragina duten kamera-lanaren baldintzatzaileak definitu ditu, hala nola ikus-entzunezko jarraitutasuna, irudiaren konposizioa, ekintzaren ardatzak, desplazamenduen norabideak eta abiadurak, begiradak eta espazio-erlazioak –eremuaren barruan zein kanpoan–.

2.– Kamera-ekipamenduaren beharrak zehazten ditu, eta baliabide teknikoaren operatibotasuna eta ezaugarriak garatu beharreko proiektuen tipologiarekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Segundoko irudiei, esplorazioari, definizioari, itxura-erlazioari eta formatuari dagokienez bideoan eta zineman proiektu diferenteetarako egokiak izango diren kameraren ezaugarriak zehaztu ditu.

b) Hainbat ikus-entzunezko proiektutan beharrezko kameraren kalitateak zehaztu ditu, argi-sentsibilitateari, irabaziari, kolore-tenperaturetarako egokigarritasunari, obturazio-denborei, kontrasteari eta matrize digitaleko doikuntzei dagokienez.

c) Hainbat zinema, bideo eta telebistako proiektutan, ikus-diseinurako eta kamera-plangintzarako egokiak diren helburuen kualitate optikoak eta funtzionaltasun operatiboak zehaztu ditu.

d) Zinta magnetikoan, disko optikoetan, memoria-txarteletan eta disko gogorretan erregistratzeko alternatiben artean egindako aukeraketa justifikatu du, betiere ikus-entzunezko erregistroaren tipologiaren arabera.

e) Erlazionatu egin ditu, batetik, hainbat motatako kamerek eskaintzen dituzten denbora-kodeen eta klipen katalogazioaren aukerak eta, bestetik, kamera batekin edo gehiagorekin grabatzeko aukerak eta postprodukzioko prozesuak.

f) Ikus-diseinuaren arabera eta hainbat ikus-entzunezko proiektutako kamera-plangintzaren arabera, erabiliko diren kamera-hartzeetarako euskarriak eta euste-makineria ebaluatu du.

g) Ikus-entzunezko obrak hartzeko eta erregistratzeko prozesuetan, aginduzkoak diren kamera-ekipamenduen, erregistro-baliabideen, tresneria osagarrien eta material suntsikorren zerrendak landu ditu.

3.– Kamera-ekipamenduaren operatibotasuna egiaztatzen du, eta erregistratuko diren ikus-entzunezko proiektuaren eskakizunak betetzen direla egiaztatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Zinema, bideo eta telebistako proiektuetarako egokiak diren formatuko eta itxura-erlazioko aukerak egiaztatu ditu, baita konfigurazio eta funtzionalitate guztietan zer kamera eta objektibo diren bateragarri ere; horrez gain, erregistro-formatua postprodukzioko eta hedapeneko eskakizunekin lotu du.

b) Objektiboen garbitasuna eta operatibotasuna egiaztatu du, eta, horretarako, probako kartak enkoadratu eta erregistratu ditu eta hainbat distantzian eta zenbait foku-distantzian, diafragma-pausotan eta eremu-sakoneratan ematen dituen emaitzak aztertu ditu.

c) Objektiboen elementu lagungarriak eta osagarriak egiaztatu ditu –hala nola lokailuak, barrak, aginteak, argi-babeskiak, iragazki-euskarria, iragazkiak, lente gehigarriak eta biderkatzaileak–, eta horiek behar bezala funtzionatzen dutela eta horietako bakar batek enkoadraketa eragozten ez duela egiaztatu du.

d) Kameretarako eta beste tresneria batzuetarako beharrezko baterien, kargagailuen eta elikagailuen kopurua eta funtzionamendua ikus-entzunezko hartze-proiektuetarako egokia dela zehaztu du, eta horien karga-maila, erre-karga-denbora, konektagarritasuna eta funtzionamendua egokia dela egiaztatu du.

e) Ikus-entzunezko proiektuetarako aurreikus daitezkeen helburu-pistetako eta sarreretako konfigurazio guztietan kamerako soinu-erregistroa operatiboa dela ziurtatu du, kableak, mikrofonoak eta audioko beste tresneria batzuk kameretara konektatuta, seinaleak monitorizatuta eta mailak doituak.

f) Helburu-euskarrietan irudi- eta soinu-erregistro ezin hobea lortu du –komunikazio-asmoetara eta asmo artistikoetara egokia–, eta, horretarako, bideo-grabazioetako, telebista-emisioetako eta bideo-euskarrian egindako errodaje zinematografikoetako antzeko baldintzetan eta eskakizunekin egin ditu probak.

g) Kameretako tripodeak, buruak eta orotariko euskarri eta aingura finkoak edo mugikorak kamerara behar bezala egokitzen direla egiaztatu du, baita aginte guztien jarduna arina dela eta blokeoek eta doikuntzek ondo funtzionatzen dutela ere.

h) Kamerako material guztia eta ekipamendu osagarria antolatu du, eta garraio eta biltegitratze zirkunstantziatarako egokiak diren kutxetan edo poltsetan duten antolamendua kontrolatu du, materialen zerrenda egiaztatuta.

4.– Telebista-saioetako kamera-ekintzak planifikatzen ditu, kamera anitzeko lengoaiaren berezko berezitasunak proiektuaren helburuen lorpenarekin lotuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Telebista-saioen generoa eta formatua zehaztu du, haren plangintza fasean.

b) Kamera-lanak kamera anitzeko errealizazioari gaineratzen dizkion ikus-entzunezko lengoaiaren elementuak baloratu ditu, telebista-saioetako proiektuen, gidoi teknikoaren eta saioen eskaletaren analisiaren bitartez.

c) Plangintza eta eszenaratzea abiapuntu izanik, kamera anitzeko dinamikan eragina izan dezaketen gatazkak ebaluatu ditu.

d) Telebista-saioetako kamera anitzeko errealizazioan kameretako bakoitzerako planoak definitu ditu, errealizazio-asmoak kontuan hartuta.

e) Estudioko kameraren kokalekuak eta mugimenduak koordinatu ditu, horietako edozeinetako enkoadraketan tartean ezer sartzea saihesteko.

f) Errealizazio-taldearekin eta estudioko errealizaziorako laguntzarekin koordinatzeko sistema ezarri du, edo ikuskizunetako Zuzendaritzarekin koordinatzeko sistema, betiere ikus-seinale bidez, ekintza-oinen bidez eta interkomunikazioaren bidez ekintzen sinkronizazioa eta agindu-metodoak biltzen dituen.

g) Nahasgailuaren errezelen bidez, hainbat kameretarako aldi baterako enkoadraketak aurredefinitu ditu, eta horietako bakoitzerako espazioak esleitzen ditu, baita aireak edo espazioak enkoadraketan, betiere grafikoak, errotuluak eta kate-adierazgarriak txertatzeari dagokionez.

5.– Zinema- eta bideo-grabazioetako kamerako lan-taldearen eragiketak eta fluxuak planifikatzen ditu, optimizazio-irizpideak aplikatuta eta hartutako erabakiak justifikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Hainbat ikus-entzunezko proiektu ebazteko egokia den kamerako giza taldearen ezaugarriak zehaztu ditu.

b) Lan-plana baliabideetan eta denboretan egingarria dela egiaztatu du, eta zinema, bideo eta telebistako proiektuen gidoi teknikoekin edo eskaletekin egiaztatu du hori.

c) Erregistro-ordena aurrez finkatu du, baliabidearen ezaugarrien arabera, kokalekuen edo estudioen baldintzen arabera, argi-eremuen arabera eta denborak eta klimatologiak ezarritako mugen arabera –lan-planean diseinuak finkatzen dituen zehaztapenak barnean hartuta–.

d) Kamera-eragiketak saioaren errealizazioan parte hartzen duten gainerako tresnerien jardunekin koordinatu ditu: Zuzendaritza/errealizazioa, argiztapena, makineria, eszenografia, karakterizazioa, jantziak eta soinua.

e) Errodajearen edo grabazioaren aurreko kamera-probak egin ditu, antzezleen eta bestelako giza taldeen parte-hartzearekin.

f) Errodajearen edo grabazioaren aurreko kamera-probak ebaluatu ditu, eta aukera teknikoak eta

espresiboak onartu edo zuzendu ditu.

g) Kamera-tresneria muntatzeko, desmuntatzeko, garraiatzeko, biltegitatzeko eta mantentze zuzentzailea edo prebentiboa egiteko eragiketak planifikatu eta egin ditu, operatibotasuna ziurtatzeko eta bizitza erabilgarria luzatzeko.

B) Edukiak:

1.– Ikus-estiloa eta kamera-plangintza definitzea.

Gestalt-en Legeak aplikatzea, marrazkiak eginda.

Irudiaren enkoadraketak, elementu eskalarrak eta elementu dinamikoak identifikatzea.

Aldizkarietako, katalogoetako eta Interneteko, besteak beste, material grafikoa abiapuntu izanik, honako alderdi hauek balora daitezkeen irudiak hautatzea:

- Espazioarekiko erlazioa.
- Eszenaratzea eta planoaren barne-erritmoa: Ikuspuntua.
- Horizontaltasuna, pikatuak eta kontrapikatuak.
- Aberrazioak.
- Kamera-posizioen angeluazioak.
- Erabilitako objektibo mota.
- Ikus-angelua.
- Sakoneraren irudikapena.
- Eremu-sakonera.
- Eremuz kanpoko ekintza.
- Elementu eskalarrak eta dinamikoak identifikatzea, material fotografikoa behatuta:
- Irudiaren konposizioa: itxura-erlazioa eta proportzioak.
- Ikus-oreka eta -pisua.
- Puntu sendoak.
- Ikus-ibilbidea.
- Perspektibaren teknikak.
- Herenen erregela.
- Irudiaren definizioa.

Komiki-banda bat edo tebeo bat abiapuntu izanik, gidoi literarioa, gidoi tekniko eta storyboarderako egokitzapena egitea edo egokitzea.

Komunikazioaren asmoari buruzko ikus- eta entzumen-pertzepzioa.

Gestalt-en legeak.

Pertzepzio subliminala eta estereotipoak.

Irudiaren erretorika.

Irudiaren konposizio-elementuak.

Kolorearen espresiozko alderdiak, alderdi kualitatiboak eta kolore-espazioak.

Ikus-entzunezko lengoaia eta espazioaren eta denboraren zatiketa: sekuentziak eta planoak.

Ikus-entzunezko irudiaren narrazioa: ikus-entzunezko jarraitutasuna eta hori ziurtatzen duten teknikak.

Soinuaren espresio-balioa, ikus-entzunezko diskurtsoan.

Generoak, zineman, bideoan eta telebistan, betiere kamera-lanaren ikuspegitik. Telebista-saioetako formatuak eta azpigeneroak.

Ikus-estiloak eta joera estetikoak zinemaren, telebistaren eta bideoaren historian.

Ikus-entzunezko proiektuen lan-dokumentuak, horien funtzioak eta berezitasunak: tratamendua, gidoi literarioa, gidoi teknikoa eta storyboarda.

Ikus-lengoaia ezagutzea eta baloratzea, ikus-entzunezko proiektu bat interpretatzeko eta erreproduzitzeko.

Jarrera sortzailea eta ekintzailea izatea lanak egitean.

Ekimenez jardutea ideiak, iritziak eta argudioak gaineratzeko.

2.– Kamera-ekipamenduaren beharrak zehaztea.

Kamera bakarreko edo kamera anitzeko hartze-prozesu baterako hartze- eta grabazio-ekipamendua konfiguratzea:

– Kable bidezko edo haririk gabeko konektagarritasuna.

– Kamera-kontrola.

– Irudia bistaratzea eta kontrolatzea, bideo-seinalea, luminantzia eta krominantzia aztertzea. Bektoreskopioa eta uhin-formako monitorea.

– Denbora-kodearen sinkronizazioa.

– Interkomunikazio-sistema bidezko probak.

– Kamera anitzeko seinale bidezko bideo-nahasketak.

Helburuak ebaluatzea, ikus-angeluaren eta foku-distantziaren arabera:

– Objektibo finkoak eta foku-distantzia aldakorreko objektiboak, zoomak.

– Objektibo angeluhandiak, normalak eta teleobjektiboak.

Objektiboak argitasunaren arabera baloratzea: diafragma eta F zenbakiak.

Foku-distantziaren irudiaren tamainaren, fokuratze-distantzien, eremu-sakoneraren eta diafragmaren arteko erlazioak aztertzea, ikus-entzunezko irudiak hartzeko hainbat motatako objektiboetan.

Eremu-sakonerako taulak egitea, honako alderdi hauen arabera: formatua, foku-distantzia, argitasuna eta fokuratze-distantzia.

Eremu-sakonera kalkulatzeko softwarearekin lan egitea.

Ikus-entzunezko obretako irudiak hartzeko eta erregistratzeko beharrezko ekipamendu-zerrendak egitea.

Zinemarako, bideorako eta telebistarako kamera digitalen tipologia: ezaugarriak eta egokitasuna, hainbat ikus-entzunezko proiektutarako.

- Erregistro-tresneriaren ezaugarri teknikoak.
- Koadro segundoko.
- Esplorazio progresiboa edo gurutzelarkatua.
- Moteltzea edo bizkortzea.
- Irabazia.
- Obturazio elektronikoa.
- Iragazte optikoa.
- Kolore-oreka.
- Kontrastea eta latitudea.
- Ukondo eta malda zuzenketak.
- Xehetasuna.
- Denbora-kodea.
- Bisorearen aukerak.
- Doikuntza pertsonalizatuak.

Irudiak hartzeko sentsore fotosentikorak:

- Sentsore motak.
- Sentsoreak kamera motaren arabera.
- Zehaztasunak.
- Bereizmenak.

Irudia eta soinua bideo digitalean:

- Kuantifikazioa, laginketaren maiztasunak eta ulermena.

Bideo digitaleko grabazioaren sistemak, formatuak eta euskarriak: disko elektrooptikoak, memoria-txartelak, disko gogorra eta zinta.

Interesa izatea ikus-entzunezko merkatuko berrikuntza teknikoei dagokienez.

Aldeko jarrera izatea lan-metodo berrien aurrean.

Arretaz erabiltzea tresneria.

3.– Kamera ekipamenduaren operatibotasuna egiaztatzea.

Erregistro-tresneriaren elikadura-sistemak egiaztatzea eta ebaluatzea: elikagailuak, bateriak, kargagailuak eta CCUak.

Bideo-kameretako bideo digitaleko grabazio-sistemetan doikuntzak aplikatzea eta egiaztatzea: Itxura-erlazioa, irudi-formatuak eta grabazio-euskarria.

Objektiboak hautatzea eta egiaztatzea, kamera motari dagokionez: baioneta, estaldura-angelua eta konexioak.

Lente-eranskinak pertsonalizatzea eta egiaztatzea: Fokua (follow focus), serboa, iragazki-euskarrien gida eta eguzki-babeskiak.

Tripodeak erabilia kameraren operatibotasuna egiaztatzea eta kamera-euskarriei buruzko informazioa biltzea: Steadicam, garabiak, travelling.

Objektiboak muntatzeko eta desmuntatzeko eragiketak egitea. Fokuratzea, foku-distantzia aldakorra eta diafragmaren kontrola baloratzea.

Objektiboak maneiatzeko aukerak hautatzea: eskuko doikuntza eta doikuntza automatikoa, serbomekanismoa eta osagarrien aukeraketa.

Kamerari erantsitako iragazkiak egiaztatzea eta ebaluatzea, eta horien emaitzak postprodukzioko tekniken bidez egindako iragazteen emaitzekin alderatzea.

Kanpo-iragazki optikoekin lortutako efektuak egiaztatzea eta ebaluatzea, eta horien emaitzak postprodukzioko tekniken bidez egindako iragazkien emaitzekin alderatzea.

Soinu-ekipamendua konfiguratzeko eta egiaztatzea:

– Mikrofonoak hautatzea.

– Haririk gabeko sistema konfiguratzeko.

– Parametroak doitzeko, bideokameretan audioa grabatzeko.

Produkzio bideografikoko suposizio behar bezala ezaugarritua (dokumentu-gidoi baten sekuentziaren bidez) abiapuntu izanik:

– Irudia hartzea.

– Soinu sinkronikoa grabatzea.

– Egindako ekintzak eta lortutako emaitzak azalduko dituen txostena idaztea.

– Erabilitako materialaren antolamendua eta zaintza aztertzea.

Bideo-kameretako bideo digitaleko grabazio-sistemak:

- Itxura-erlazioa.
- Irudi-formatuak.
- Grabazio-euskarria.

Bideo-kameretan audioa grabatzeko doikuntzak:

- Linea edo mikroko sarrerak.
- Mikrofonoetarako elikadura duten sarrerak (phanton).
- Sarrerak pistetara bideratzea.
- Audio-sarreren mailak.
- Mugagailuak eta automatismoak.
- Bideokameretan soinua monitorizatzeko konfigurazioak eta aukerak.

Soinu-ekipamenduaren zehaztapen teknikoak:

- Mikrofono motak, ezaugarri teknikoak eta aurrez finkatutako erabilerak.
- Ikus-entzunezko soinuak hartzeko elementu osagarriak: haize-babeskiak, euskarriak eta pertikak.
- Haririk gabeko igorleak eta hartzaileak: motak, erabilera egokiak, konfigurazio-aukerak eta berariazko zaintzak.
- Audio-mahai analogiko eta digital eramangarriak.
- Soinu-tresneriaren berezko erregistrogailuak.
- Bideokameretako aukerak.

Baliabide teknikoen optimizaziorako proiektua eta bitartekoak ezagutzeko interesa izatea.

Txukuntasunez eta garbitasunez egitea lan.

Prozesuan egin beharreko dokumentuak sistematikoki betetzea.

4.– Telebista saioetarako kamera anitzeko errealizazioan, kamera ekintzak planifikatzea.

Kamera anitzeko ikus-entzunezko produkzioetako kasu praktikoetan, eta elkarrizketa-saio baten eskaleta-dokumentazioaren laguntzarekin, honako hau egitea:

- Kameraren animazioa: Posizioak, mugimenduak eta enkoadraketak planifikatzea, telebista-saioetako eszenaratzeari eta espazioaren eta denboraren garapenari dagokionez.
- Kameraren animazioa: Aireak planifikatzea, errotuluen, grafikoen eta kate-adierazgarrien txertaketa aurreikusita.

Telebista-proiektuetako hasierako dokumentuak: Gidoia, «bibliak» eta eskaletak, ezaugarriak eta berariazko erabilerak.

Kamera anitz bitartez telebista-saioen errealizazioa egiteko teknikak.

– Posizioak, mugimenduak eta enkoadraketak, telebista-saiotako eszenaratzeari eta espazioaren eta denboraren garapenari dagokionez.

– Aireak, errotuluen, grafikoen eta kate-adierazgarrien txertaketa aurreikusita.

– Ikus-jarraitutasuna kontrolatzeko teknikak, kamera anitzeko errealizazioan.

– Ordenen metodoak, errealizazioaren kontrolean.

Zorroztasunez eta metodoz betetzea dokumentuak.

Autonomia eta ekimena lanak egitean.

Ikus-entzunezko sormenaren eta horren aldaeren tekniketikiko interesa izatea: telebista, zinema, bideo korporatiboa, bideo hezitzailea, publizitatea, eta abar.

5.– Kamera tresneriaren laneko fluxuak eta eragiketak planifikatzea, zinema eta bideoko erregistroetan.

Xehakapena eta lan-plana lortzea.

Errodajea edo grabazioa prestatzeko kamera-probak eta argiztapen-probak egitea.

Makillajea eta argiztapena antzezleengan egiaztatzea.

Kamera-probak ebaluatzea eta ikus-entzunezko proiekturako egokiak diren aukera teknikoak eta espresiboak zehaztea.

Kamera-tresneriaren muntaia, desmuntaia, garraioa eta biltegitratze-lanak planifikatzea.

Kamera-tresneriaren mantentze zuzentzaile eta prebentiboko prozesua betetzea.

Zinema- eta bideo-kamerako giza taldeko kideen funtzioak, eta erregistroko beste kide batzuekin dituzten loturak.

Gidoia, lan-plana eta kamera-lanean dituzten baldintzatzaileak xehakatzea: kokalekuen edo dekoratuen ezaugarriak, argi-eremuak, baldintza klimatikoak eta denbora-mugak.

Kamera-tresneriaren mantentze prebentiboko eta zuzentzaileko eragiketak.

Autonomia eta ekimena lanak egitean.

Ikus-entzunezko produkzioaren barruan antolakuntza-kudeaketaren garrantzia baloratzea.

Aurreikusitako epeak bete daitezen errespetatzea.

2. lanbide-modulua: Ikus-entzunezko irudia hartzea

Kodea: 1159

Kurtsoa: 2

Iraupena: 160 ordu

ECTS kredituetarako baliokidetzatza: 11

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1.– Kamera aurreikusitako posizioetan kokatzen du, eta zinemako eta bideoko erregistroetan egokiak diren kamera-mugimenduak egiten ditu, proiektuaren ikus-diseinuko irizpide estetikoak eta

espresiboak aplikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Planoen tipologia eta kameraren angelua eta ikuspuntua –erregistroaren tokian– zehaztu ditu, zuzendaritzaren/errealizazioaren berezko irizpideei jarraituta.

b) Hainbat motatako enkoadraketak egin ditu, proiektuaren ikus-estilorako eta eszenaratzerako irizpide teknikoak, espresiozkoak eta komunikaziozkoak aplikatuta.

c) Ikus-arau konpositiboak –hala nola puntuak, lineak, urrezko sekzioa, herenen legea, orekak eta geometriak– betetzeko beharrezko doikuntzak aplikatu ditu irudia hartzean.

d) Irudi bakoitzaren garbitasun estetiko eta espresioa sustatzeko egokia den eremu-sakonera hautatu du.

e) Erregistroaren espazioan egin beharreko eszenaratzerako egokitu du kameraren posizioen eta mugimenduen plangintza, betiere mugimendu bakoitzaren abiadura proiektuaren espresio-beharretara egokituta.

f) Ikus-entzunezko jarraitutasuna errazten duten erregistro espazialeko teknikak aplikatu ditu: planoen eskalaren grabazioa, 90 graduen araua, ekintza-ardatzak, begiradak, desplazamenduen norabideak, eta abar.

g) Plano bakoitzaren iraupena zehaztu du, ikus-entzunezko lengoaiaren parametro estetikoekin eta espresiozkoekin bat eginik.

2.– Aurrez definitutako ikus-estiloa lortzeko, ikus-entzunezko proiekturako hartzean esposizioa zehazten du, eta, horretarako, parametro optikoen doikuntza lotzen du irudi-sentsoreen ahalmenekin, biltegitartzeko gailuen eskakizunekin eta argiztapen-baldintzekin.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Bideo-kameran diafragma, obturazio eta egokia den gamma-zuzenketako kontrolen bidez doitu du esposizioa, eszenaren espresio-diseinuak finkatutako eskakizunak betetzeko.

b) Irudia monitorizatu du, uhin-formako monitoreak, bektoreskopioak, histogramak, zebra-patroiak eta monitorizaziorako beste laguntza batzuk erabilita.

c) Lan-monitore guztiak kalibratu ditu, eta, eginkizun horretan, argitasun, distira eta kontrastearen arloko eskakizunak bete ditu, patroien eta probarako karten bidez.

d) Eszenaren argi-mailak eta kontraste-ratioak aztertu ditu, behar bezala erregistratzeko esposimetroak erabilita, betiere esposizioaren latitude-beharrak kontuan izanik.

e) Eszenaren tonalitate-orekak egokitu ditu eta, horretarako, argi-iturrietan iragazki zuzentzaileak eta bihurkariak erabili ditu, kolore-tenperatura kameraren beharretara egokitzeko, betiere proiektuan finkatutako irizpide estetikoaren arabera.

f) Eszenaren tonalitate-orekarako egokiak diren kontrolak ezarri ditu, eta erregistro-tresnerietan dagozkion aplikazioak egin ditu –ND iragazkiak, zuzentzaileak, preset-ak, zuri-beltzeko balantzeak eta kolore-matrizeetako eta xehetasuneko doikuntzak–.

3.– Industria-bideoetan, hezkuntza-bideoetan, dokumentaletan, fikzioetan eta kamera bakar batekin egindako musikaletan, grabazio-teknika egokiak aplikatzen ditu, genero bakoitzaren ezaugarri bereziak bereizita.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Generoaren tipologia, komunikazio-asmoa eta proiektuaren espresiozko asmoa abiapuntu izanik, kamera bakar batekin ikus-entzunezkoa erregistratzeko prozesua hautatu du.

b) Produktu dokumentaletarako hartzeak erregistratu ditu, errealitatea irudikatzeko hainbat metodologia aplikatuta eta aurrez definitutako plangintzari eta errealizazio-irizpideei jarraituta.

c) Fikzio zinematografikoetako ezaugarriak ezartzeko eta garatzeko beharrezkoak diren eskakizun guztiak beteta erregistratu ditu irudiak.

Subjektu baten edo batzuen desplazamendua duten ikus-entzunezko sekuentziak ebaztean, kameraren posizioak aplikatu dira jarraitutasuna mantentzeko.

e) Musika-bideoen grabazioetarako lan-prozedurak ezarri ditu eta behar teknikoetako bakoitza definitu du, ikus- eta soinu-proiektuaren garapena abiapuntu izanik.

f) Animazio-prozesuetan lan faseak definitu ditu, stop-motion eta time-lapse teknikak kontrolatuta eta proiektuaren beharretara egokituta.

4.– Errealizazio-kontrolaren jarraibideak kontuan izanik, hartzen ditu telebista-saioetako irudiak, eta kamera anitzeko errealizazio-proiektuen eskakizunen berezko kalitate teknikoa eta espresiozkoa lortzea baloratzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Telebista-saio baten eskaleta-matrizearen arauak egokitu ditu, bere egituraren eta edukien garapenean oinarrituta eta errealizazioko kodeei eta araei erreparatuta.

b) Telebista-saioen proiektu bat martxan jartzeko erabiliko dituzten ikus-entzunezko lengoaiaren baliabideak zehaztu ditu, enkoadraketaren adierazpen-erabilerak eta erabilitako konposizioa zehaztuta, baita soinuko eta argiztapeneko baliabideak ere.

c) Telebista-saioetako errealizazioan kameretako bakoitzerako planoak, enkoadraketa motak, posizioak eta mugimenduak definitu ditu, errealizazio-asmoak kontuan hartuta.

d) Kamera eta euskarri bereziak hautatzea justifikatu du, hala nola eskuzko kamera, steadicam-a, garabiak eta buru beroak, betiere ezarritako planoen deskribapenari dagokionez.

e) Telebista-saioetako irudiak hartu ditu, eta, horretarako, enkoadraketak, kamera-mugimenduak eta foku-distantzietako eta fokaratzetako doikuntzak egin ditu, telebista-errealizazioko dinamikari jarraituta.

f) Intercom-eko tresneria eta tally argi-seinaleak erabili ditu programa-aginduen barne-komunikaziorako –errealizazio kontrolaren eta grabazio-setaren artekoak–.

5.– Telebista-saioen grabazioan edo emisioan kameraren kontrol-doikuntzak egiten ditu, eta alderdi hauek baloratzen ditu: teknikoki zuzenak diren irudiak lortzea, ikus-jarraitutasuna mantentzea eta lortu nahi den ikus-diseinua erdiestea.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Kamera-seinale guztiak sinkronizatzeko doikuntza egokiak egin ditu, errealizazio-kontrolari dagokionez, eta funtzionamendu zuzenerako beharrezko konexioei erreparatu die.

b) Kameraren posizioak eta horietako bakoitzean eragina duten argiztapenaren berezitasunak

aztertu ditu, telebista-saioaren dinamikan jardun konplexuak aurreikusita.

c) Elementu eszenografikoak eta janzkerako elementuak gainbegiratu ditu, kamerek irudia hartzeko garaian ager daitezkeen arazoak saihesteko, hala nola gehiegizko argi-izla eta distira.

d) Argiztapen-baldintzak kameraren kontraste-bitartearen ezaugarriekin lotu ditu, eta, horretarako, tonalitate-errendimenduan mugak aurreikusi ditu eta argiztapen-ukituen komenigarritasuna ohartarazi du.

e) Erreferentzia bera enkoadratzean ematen dituzten seinaleak abiapuntu izanik, egin ditu telebista-kameraren doikuntza teknikoak, eta kameraren kontrol-unitateen gainean jardun du, monitoreen laguntzarekin eta bideo-seinaleak neurtzeko tresnerien laguntzarekin.

f) Luminantziako, krominantziako, idulkiko, irabaziko, xehetasuneko eta kameraren kontrol-unitatearen berezko beste parametro batzuetako doikuntzak egin ditu, eta seinale guztien oreka eta lortu nahi zen ikus-espresibitatea lortu du.

g) Kamera guztien fokuratze-zuzenketa aztertu du eta izan daitezkeen erroreez ohartarazi du, horietako bakoitzaren eragiketari zuzentzeko.

B) Edukiak:

1.– Kameraren kokalekua eta mugimendua.

Erregistroaren lekuan, planoen tipologia eta kameraren ikuspuntua eta angelua hautatzea.

Plano eta enkoadraketa motak grabatzea, irizpide teknikoak, espresiozkoak eta komunikaziozkoak aplikatuta.

Kameraren mugimenduak egitea –panoramikak, travellingak, garabiko mugimendu konposatuak, egonkortzaileak eta zoom optikoa–.

Irudi bakoitzaren garbitasun estetikoa eta espresiozkoa sustatzeko egokia den eremu-sakonera hautatzeko ariketak egitea.

Ikus-entzunezko jarraitutasuna errazten duten erregistro espazialeko teknikak aplikatzea: planoen eskalaren grabazioa, 90 graduen araua, ekintza-ardatzak, begiradak, desplazamenduen norabideak, eta abar.

Plano bakoitzaren iraupena zehaztea, ikus-entzunezko lengoaiaren parametro estetikoekin eta espresiozkoekin bat eginik.

ENG kamerak.

Planoen motak eta erregistroaren tokiko kameraren angelua eta ikuspuntua, zuzendaritzaren/errealizazioaren berezko irizpideei jarraituta.

Ikus-arau konpositiboak –hala nola puntuak, lineak, urrezko sekzioa, herenen legea, orekak eta geometriak–.

Enkoadraketak eta jarraipena zineman eta bideoan. Grabazio-formatua abiapuntu izanik konposatzeko moduak. Aireak eta oreka.

Kameraren eragiketak, ikuspuntuak, kamera subjektiboa eta kameraren angelua, eta kameraren mugimenduak, tripodean eta idulkian oinarrituta.

Mugimendu arinen berariazko eragiketak, kamera sorbalda gainean eta berariazko euskarriak.

Kameraren mugimendu motak.

Steadicam-a eta garabia erabiltzeko teknikak.

Euskarri motak.

Eremu-sakonera ikus-entzunezkoan eta horren espresio-ondorioak.

Ezarritako arauak eta prozedurak betetzea.

Lanean segurtasun- eta higiene-arauak betetzea.

Kameraren eta argiztapen- eta soinu-tresnetarako gehigarrien eta tresneria osagarrien funtzionaltasuna eta garbitasuna manten dadin zaintzea.

2.– Esposizioa zehaztea.

Doikuntza eta esposizioa gauzatzea, bideo-kamerako diafragma, obturazioa eta gamma-zuzenketa egokia kontrolatuta.

Irudia monitorizatzea, uhin-formako monitoreak, bektoreskopioak, histogramak, zebra-patroiak eta monitorizaziorako beste laguntza batzuk erabilia.

Lan-monitore guztiak kalibratzea, argitasun, distira eta kontrastearen arloko eskakizunak beteta eta patroien eta probarako karten eskakizunak beteta.

Eszenaren argi-mailak eta kontraste-ratioak egiaztatzea, behar bezala erregistratzeko esposimetroak erabilia, betiere esposizioaren latitude-beharrak kontuan izanik.

Eszenaren tonalitate-orekak egokitzea, argi-iturrietan iragazki zuzentzaileak eta bihurkariak erabilia, kolore-tenperatura egokitzeko.

Eszenaren tonalitate-orekaren kontrol egokiak aplikatzea, betiere ND iragazkiak, zuzentzaileak, preset-ak, zuri-beltzeko balantzeak eta kolore eta xehetasuneko matrizeen doikuntzak erabilia.

Grabatutako irudien kalitatea aztertzea, kalitate-parametroak identifikatuta eta beharrezko zuzenketa eginda.

Irudiak hartzean eta erregistratzean ohikoenak diren asaldurak aztertzea, irudiaren kalitate ona ziurtatzeko prekaizioak eta jardunak adierazita.

Diafragma doitzeko teknikak, obturazio-abiadura, gamma, knee angelua, kolore-matrizeak, xehetasun-doikuntzak, eta zuri-beltzeko balantzeak.

Kontrol-tresnak: bektoreskopioa, uhin-formako monitorea, histograma, berariazko softwarea eta zebra-patroiak.

Monitoretze-funtzioak: distira, kontrastea, kromatismoa, punta-doikuntzak, UER barrak eta seinaleen kalibrazioa, betiere tonalitate-kartak, kontrastea, kolorea eta doikuntza abiapuntu izanik.

Neurtzeko eta kalibratzeko erremintak.

Irudiaren erregistroaren kalibrazio optikoa eta elektronikoa eta argi-eszena neurtzeko esposimetro eta luxometro motak.

Esposizioa neurtzeko eta doikuntza zehatza egiteko teknikak.

Tresneriaren garbitasuna eta funtzionaltasuna manten dadin zaintzea.

Azaleratzen diren teknologiekiko eta kontzeptu teoriko berriekiko interesa.

Burutu beharreko ekintzen sistematizaziorako eta sekuentziaziorako prest egotea.

3.– Kamera bakar baten bidez grabatzea.

Gidoi literarioa, gidoi teknikoa eta storyboard-a egitea. Kamera bakarreko produktu batena.

Generoaren tipologia, komunikazio-asmoa eta proiektuaren espresiozko asmoa abiapuntu izanik, kamera bakar batekin ikus-entzunezkoa grabatzea.

Produktu dokumentaletarako hartzeak egitea, errealitatea irudikatzeko hainbat metodologia aplikatuta eta aurrez definitutako plangintzari eta errealizazio-irizpideei jarraituta.

Fikzio zinematografikoetako ezaugarriak ezartzeko eta garatzeko beharrezkoak diren eskakizun guztiak beteta grabatzea.

Hainbat pertsonaia kopururekin egoerak eta elkarrekintzak erabakitzeak ikus-entzunezko errealizazio-teknikak aplikatzea kamerako lanari.

Ikus-entzunezko espazio eszenikoa zatitzeko teknikak aplikatzea kamerako lanari.

Musika-bideoak grabatzea eta behar teknikoetako bakoitza definitzea, ikus- eta soinu-proiektuaren garapenean oinarrituta.

Animaziorako grabazio sekuentziatua; time-lapse eta stop-motion.

Kamera bakarreko proiektu baterako beharrezko dokumentazioa, gidoi literarioa, gidoi teknikoa eta storyboard-a.

Grabazio sekuentziatuak eta kamera bakarreko tekniken garapenak. Sekuentzien espresio-plangintza.

Ikus-entzunezko espazio eszenikoaren zatiketa, kamera-lanean.

Subjektu baten edo batzuen desplazamendua duten ikus-entzunezko sekuentziak ebazteko jarraitutasuna.

Kamera bakarreko tekniken garapenak. Sekuentzien espresio-plangintza.

Ikus-entzunezko espazio eszenikoaren zatiketa, kamera-lanean.

Zinemako eta telebistako generoen ikus-entzunezko egitura, erregistroak formatuetara eta tipologietara egokitzea.

Musika-grabazioak, egiturak, tipologia eta musikara egokitutako irudiaren erritmoa.

Bi, hiru edo pertsonaia gehiagoko elkarrizketen ikus-jarraipena: plano eta kontraplanoa.

Irudia musikarekin eta narrazioaren inguruko soinu-elementu guztiekin bat egiteko teknikak.

Animazio-prozesuetako lan faseak, stop-motion eta time-lapse teknikak kontrolatuta eta proiektuaren beharretara egokituta.

Ekimenez jardutea ideiak, iritziak eta argudioak gaineratzeko.

Zorroztasunez eta metodoz betetzea dokumentuak.

Aurreikusitako epeak betetzearekiko balorazio positiboa egitea.

4.– Telebista-saioak kamera anitzekin grabatzea.

Doikuntza eta esposizioa gauzatzea, betiere eszenaren espresio-diseinurako beharrezko bideo-kamerako diafragma, obturazioa eta gamma-zuzenketako kontrolen bidez.

Irudien doikuntza egitea, kamera-kontrolako unitateak, uhin-formako monitoreak, bektoreskopioak, histogramak, zebra-patroiak eta monitorizaziorako beste laguntza batzuk erabilia.

Laneko monitore guztiak kalibratzea.

Grabazio-eskaletak eta erregistro-parteak erabiltzea.

Telebistako jarraitutasun-kontrolaren bideo- eta audio-ekipamendua konektatzea, eta tresnerien eta jarraitutasuneko informatika-sistemaren arteko lotura ezartzea.

Seinaleak TBC bidez sinkronizatzea.

Tally ohar-seinaleak erabiltzea eta errealizazio-kontrolaren eta grabazio-setaren arteko komunikazioa finkatzea.

Irakurketa egitea, telepronter kamera bidez.

Enkoadraketen, tipologiaren, kamera-posizioen eta planta-planoen erreferentziak.

Telebista-kamerak estudioan eta emanaldietan.

Seinaleak sinkronizatzeko prozesua: TBC, atzerapenak, Black Burst, Gen-Lock, eta konexio motak –CCQ, multicuore, triax eta digitalak–.

Kamera kontrolatzeko unitateak.

Barneko interkomunikazio-sistemak, petakak, kaskoak, mikrofonoak, kableak eta haririk gabeko sistemak.

Tally-aren funtzionamendua eta irakurketa sistemen funtzionamendua –telepronter kamera bidez–

Kamara anitzeko errealizazioan kameretako bakoitzerako planoen tipologia.

Nahasgailuaren errezelen bidez, hainbat kameretarako aldi baterako enkoadraketen tipologia, horietako bakoitzerako espazioak esleituta, baita aireak edo espazioak enkoadraketan, betiere grafikoak, errotuluak eta kate-adierazgarriak txertatzeari dagokionez.

Argitasunez eta ordenaz jardutea prozesu analitikoetan, deduktiboetan eta deskribatzaileetan.

Aurreikusitako epeak betetzearekiko balorazio positiboa egitea.

Telebista-estudioa osatzen duten tresna guztien garbitasuna eta funtzionaltasuna mantentzeko interesa izatea.

5.– Telebista-saioak grabatzean eta ematean kamera kontrolak doitzea.

Kamera-seinale guztiak sinkronizatzeko doikuntza egokiak egitea.

Kameren posizioak eta horietako bakoitzean eragina duten argiztapen-berezitasunak egiaztatzea.

Argiztapen-baldintzak kameren kontraste-bitartearen aukeretara egokitzea, tonalitate-errendimenduan mugak aurreikusita eta zuzenketa egokiak eginda.

Luminantzia, krominantzia, idulkia, irabazia, xehetasuna eta kameraren kontrol-unitatearen berezko beste parametro batzuk doitzea.

Kamera guztien fokuratze-zuzenketa egiaztatzea eta izan daitezkeen erroreez ohartaraztea, horietako bakoitzaren eragiketean zuzentzeko.

Kamera-seinaleak sinkronizatzeko teknikak.

Kameraren eta argiztapenaren kokalekua: kokalekua eta aldagarritasuna errealizazioan.

Elementu eszenografikoen eta jantzien kontrola, hartualdiari eta argiztapenari dagokionez; desiratzen ez diren efektuen produkzioa.

Argiztapena eta kameren kontraste-bitartea: bideo-kameraren tonalitate-errendimendua.

CCU baten konexioa eta monitorizazioa: irudi-monitoreak, uhin-formako monitoreak eta bektoreskopioak.

Luminantzia, krominantzia, idulkia, irabazia, xehetasuna eta abar doitzeko teknikak.

Estudioko kameretatik jasotako seinaleen oreka.

Fokuratzea doitzeko eta egiaztatzeko teknikak.

Argitasunez eta ordenaz jardutea prozesu analitikoetan, deduktiboetan eta deskribatzaileetan.

Ekimenez jardutea ideiak, iritziak eta argudioak gaineratzeko.

Zorroztasunez eta metodoz betetzea dokumentuak.

Aurreikusitako epeak betetzearekiko balorazio positiboa egitea.

3. lanbide-modulua: Argiztapen-proiektuak

Kodea: 1160

Kurtoa: 2

Iraupena: 100 ordu

ECTS kredituetarako baliokidetzatza: 6

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1.– Ikus-entzunezko edo ikuskizunetako ezaugarri teknikoak ebaluatzen ditu, baita eszenaratzeko beharrak ere, eta soluzioak proposatzen ditu argiztapenari dagokion ebazpen praktikorako.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Ikus-entzunezko proiektuaren ezaugarriak zehaztu ditu, platoan edo dekoratu naturaletan edo kanpoaldekoetan egin beharreko multzokako edo planoz planoko grabazioari buruzko zehaztasunei

erreparatuta.

b) Gidoiaren azterketa abiapuntu izanik, produkzioa osatzen duten kokalekuak, dekoratuak, elementu eszenografikoak, atrezzoak eta argiztapen-efektuak ebaluatu ditu, kasuak kasuko argiztapenari berariazko soluzioak emateko.

c) Produkzio askoren argiztapenean dauden alde teknikoak eta operatiboak baloratu ditu, proiektuaren dokumentazio teknikoaren eta artistikoaren analisia eta interpretazioa abiapuntu izanik.

d) Kamera anitzeko telebistako grabazio-proiektuaren dekoratuak eta multzoak banakatu ditu, eta argiztapenarekin lotzen diren baldintzatzaile teknikoak eta eszenaratzeko beharrak baloratu ditu.

e) Gidoi tekniko batean, planoz planoko grabazioko ikus-entzunezko proiektuaren ezaugarriak zehaztu ditu, argiztapenarekin lotzen diren behar teknikoei eta eszenaratzeari dagokionez.

f) Proiektuaren libretoan edo eskaletan zehaztu ditu zuzeneko ikuskizunaren ezaugarriak, argiztapenarekin lotzen diren behar teknikoei eta eszenaratzeari dagokionez.

2.– Proiektu fotografikoa, ikus-entzunezkoa edo zuzeneko ikuskizuna ebazteko egin beharreko argiztapenaren espresio-ezaugarriak eta ezaugarri estetiko orokorrak definitzen ditu, eta irizpide historikoekin, estiloekin eta proiektuen generoekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Kontsultatu beharreko irudien erreferentzien zerrenda birtuala egin du, ikuskizunaren ikus-kontzeptura hurbilduta eta zer estilo, eskola, joera eta generoren barruan dauden identifikatuta.

b) Argiztatu beharreko produkzio fotografiko motarekin edo ikus-entzunezko produkzio motarekin lotzen diren erreferentzia historikoen txostena landu du, horien zuzendaritza artistikoari eta argiztapenari buruzko dokumentazioa barnean hartuta.

c) Estiloen arabera egin beharreko ikuskizunaren eszenografiaren krokisak baloratu ditu, argiztatzeko balizko konfigurazioetarako erreferentziak markatuta.

d) Egin beharreko ikuskizun-proiektuaren eskaletaren zirriborroa landu du, eta osatzen duten multzo estetikoetan banatu du ikuskizuna.

e) Argiztapen-diseinu estetikoaren txostenean, proiektuaren alderdi formal estetikoak eta espresiozkoak zehaztu ditu, eta marrazkiak, argazkiak eta erreferentziatzko irudiak gaineratu ditu.

3.– Ikuskizuna argiztatzeko prozesuaren soluzio teknikoak eta operatiboak zehazten ditu, eta proiektuen hainbat aldaerekin lotzen ditu –hala nola aurrekontu-arrazoiekin, egutegiekin eta programatutako espazio motekin–.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Zuzeneko ikuskizunaren tokiko oin-planoko marrazkia egin du, argiztapenerako bidezkoak diren elementuak adierazita.

b) Ikuskizunen proiektuan eskatutako gutxinekoen eskaera aztertu du, eta gaur egun dagoen espaziora eta eskura dauden baliabideetara egokitzen du.

c) Luminotekniako langileen beharren hasierako zerrenda egin du, hainbat argiztapen prozesuri erreparatuta: muntaia, saiakuntzak, grabazioa eta mantentzea.

d) Argiztapen-prozesuaren berezko arazo teknikoei eta operatiboei erantzuteko beharrezko baliabide teknikoaren zerrenda landu du.

e) Egokitu beharreko proiektuaren alderdi teknikoetan eta artistikoetan beharrezko aldaketak egin ditu, bideragarritasun operatiboa ziurtatzeko.

f) Argiztatze-efektuak planifikatu ditu, eta ikuskizuna prestatzeko aldian sortu diren aldaketen ezaugarriak dokumentu bidez jaso ditu.

g) Ikuskizuna irudikatzeko espazioen arabera aplikatu beharreko balizko alternatibak argiztatzeko plana kontsignatu du.

h) Lan-planaren, kokalekuen, epeen eta dokumentazioan kontsignatutako aurrekontuaren arabera, baloratu du materialak hornituko dituen hainbat enpresa edukitzeko aukera.

4.– Zuzeneko edo grabatutako telebista-saio bat argiztatzeko prozesuaren soluzio teknikoak eta operatiboak zehazten ditu, dokumentazio tekniko egokia interpretatzea eta sortzea baloratuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Telebistako grabazio-setaren oin-planoko marrazkia egin du, argiztapenean eragina izan dezaketen elementu guztiak markatuta.

b) Grabazio-lekuaren edo kokalekuaren ezaugarriak oin-planoan edo tokian bertan aztertu ditu, haren egokitasuna baloratu du eta osatzen duten elementuen bideragarritasuna egiaztatu du.

c) Eskaleta aztertu du, saioaren blokeak, inplikaturako pertsonen esku-hartzeak eta une oro beharrezkoak diren jardun teknikoak sekuentzialki definituta.

d) Produkzioak finkatutako baldintzekin koordinatuta, saioaren errealizaziorako argiztapen-plana osatu du.

e) Argiztapen-efektuen plangintzan eta saioan zehar egongo diren aldaketen espezifikazioa egin du.

f) Proiektuaren bideragarritasuna bermatzeko beharrezko argiztapen-materialaren hasierako zerrenda landu du.

g) Proiektua egiteko beharrezko argiztapen-langileen zerrenda landu du.

h) Kameran eta pertsonaien kokapen- eta mugimendu-eskemak aztertu eta denboralizatu ditu, eskaletan kontsignatuta.

5.– Planoz planoko grabazioko ikus-entzunezko proiektu bateko edo proiektu fotografiko bateko argiztapen-prozesuaren soluzio teknikoak eta operatiboak zehazten ditu, bidezko dokumentazio teknikoaren interpretazioa eta sorkuntza baloratuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Saio-proiektu baten gidoia banakatu du, eta dokumentu batean identifikatu eta taldekatu ditu dekoratuak, barrualdeak eta kanpoalde naturalak, eguneko efektuak, gaueko efektuak eta beste giro-efektu batzuk.

b) Oin-planoan edo tokian bertan aztertu ditu kokalekuak, eta, horretarako, kokalekuen baldintzatzaileak eta egoerak aztertu ditu eta kokaleku-fitxetan kontsignatu ditu argiztapena ebazteko bidezko datuak.

c) Dekoratuaren tamainari, dekoratuaren giro eta koloreei, atrezzoari eta jantziei buruzko proiektu fotografikoaren edo ikus-entzunezkoaren dokumentazio artistikoa aztertu du, eta gidoi teknikoan edo proiektua planifikatzeko dokumentuetan dagozkion erreferentziak finkatu ditu.

d) Proiektua abian jartzeko beharrezko argiztapen-baliabideen zerrenda landu du.

e) Denbora-aurreikuspenaren eta beharrezko baliabide teknikoaren eta giza baliabideen arabera landu du aurrekontua.

f) Argiztapenaren ikuspuntutik ebaluatu du erregistro fotografikoko edo ikus-entzunezko plana, proiektua behar bezala ebazteko beharrezko aldaketa-proposamenak gaineratuta, betiere eraginkortasuna eta segurtasun-bermea aintzat hartuta.

g) Lan-planaren, kokalekuen, epeen eta dokumentazioan kontsignatutako aurrekontuaren arabera, baloratu du materialak hornituko dituen hainbat enpresa edukitzeko aukera.

6.– Zuzeneko ikuskizunerako edo proiektu fotografikorako edo ikus-entzunezko proiekturako argiztapen-plana lantzen du, eta proposatutako soluzio teknikoak hautatutako ikus-estiloaren berezitasunekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Aurreikuspen energetikoak egin ditu, argiztapen-plana osatzen duten prozesuak aintzat hartuta: muntaia, saiakuntzak, grabazioa eta mantentzea.

Tresneriarako euste eta esekidurako materialen eta material osagarrien zerrenda egin du, baita proiektagailuena eta luminariena ere, mota, marka, potentzia eta aplikazio-kokalekua zehaztuta.

c) Erregulazio-tresneriaren zerrenda landu du, dimmer kopurua eta horien potentzia zehaztuta.

d) Kontrol- eta programazio-elementuen behar teknikoak zehaztu ditu, betiere platoaren beharren, kokalekuen, errepresentazio-espazioen aldaeren edo argiztatu beharreko sekuentzia moten arabera.

e) Argiztatzearen efektuen plangintza egin du eta saioan edo ikuskizunean izango dituen aldaketak zehaztu ditu, sarrera-oinak eta soinuarekiko sinkronizazioa gidioan edo eskaletan markatuta.

f) Planoan edo informatika-aplikazio bidez egin ditu argiztapen-diseinuak, eta agertokiaren edo setaren oin-planoaren gainean marraztu ditu argi-planta, proiektagailuen kokalekuarekin.

g) Luminotekniako langileen aurreikuspenak egin ditu eta beharrezko laneko jardunaldiak aurreikusi ditu, proiektua osatzen duten argiztapen-prozesuei aintzat hartuta: muntaia, saiakuntzak, grabazioa, bira-plana eta mantentzea.

h) Proiektu fotografikoaren, ikus-entzunezkoaren edo ikuskizunekoaren argiztapenaren lan-plana ezarri du, eta garraio-planari, muntaien denboralizazioari, kontratazio-beharrei eta ordainketa-aurreikuspenei buruzko beharrezko dokumentazioa sortu du.

B) Edukiak:

1.– Proiektuaren ezaugarri teknikoak ebaluatzea, argiztapenari dagokionez.

Kokalekuen aukeraketari buruzko analisisa egitea, horien egokitasunari dagokionez.

Proiektuaren dokumentazio teknikoa eta artistikoa interpretatzea eta aztertzea.

Ikus-entzunezko proiektuaren ezaugarriak zehaztea, betiere platoan edo dekoratu naturaletan edo kanpoaldekoetan egin beharreko multzokako edo planoz planoko grabazioari buruzko zehaztasunei erreparatuta.

Kokalekuak eta elementu eszenografikoak, atrezzoak eta argiztapen-efektuak aztertzea eta aukeratzea, berariazko argiztapen-soluzioak emateko.

Kamera anitzeko telebistako grabazio-proiektuaren dekoratuak eta multzoak banakatzea, eta argiztapenarekin lotzen diren baldintzatzaile teknikoak eta eszenaratzeko beharrak baloratzea.

Gidoi tekniko batean, planoz planoko grabazioko ikus-entzunezko proiektuaren ezaugarriak zehaztea, argiztapenarekin lotzen diren behar teknikoak eta eszenaratzeari dagokionez.

Proiektuaren libretoan edo eskaletan zehaztea zuzeneko ikuskizunaren ezaugarri teknikoak, argiztapenarekin lotzen direnak.

Ikus-entzunezko proiektuaren ezaugarriak:

- Kamera bakarreko grabazioak: planoz plano.
- Kamera anitzeko grabazioak: telebista-platoa.
- Dekoratu naturaletako grabazioa.
- Kanpoaldeko grabazioa.

Espazio eszenikoak eta material eszenografikoak:

- Espazio eszenikoak. Motak eta ezaugarriak.
- Material eszenografikoak.
- Dekoratuaren oin-planoa.
- Maketak.
- Gardenkiak.
- Zikloramak.
- Inkrustazioak.

Grabazio-tresnak.

Ikus-entzunezkoen kokalekuak. Kokalekuen egokitasunaren faktoreak, argiztapenari dagokionez.

Argiztapenaren zehaztasun teknikoak eta operatiboak:

- Zuzeneko ikuskizunak: muntaia, saiakuntzak, grabazioa eta mantentzea.
- Hartze fotografikoa.
- Kamera bakarreko grabazioak: planoz planoko lana.
- Kamera anitzeko grabazioak: telebista-platoa.

Produkzioko dokumentazio teknikoak eta argiztapenarekin duen lotura.

Dokumentazio teknikoko eta eskuliburuetakoko espezifikazioak ikustea.

Azaleratzen diren teknologiekiko eta kontzeptu teoriko berriekiko interesa.

Terminologia teknikoak zehaztasunez erabiltzea.

2.– Argiztapen-proiektuaren ezaugarri estetikoak eta espresiozkoak definitzea.

Irudi-erreferentzien zerrenda birtuala lantzea, eta zer estilo, eskola, joera eta generoren barruan sartzen diren identifikatzea.

Argiztatuko den produkzio fotografikoaren edo ikus-entzunezko produkzioaren motarekin lotzen diren erreferentzia historikoen txostena sortzea.

Estiloen arabera egin beharreko ikuskizunaren eszenografiaren krokisak lantzea, argiztatzeko balizko konfigurazioetarako erreferentziak markatuta.

Egin beharreko ikuskizun-proiektuaren eskaletaren zirriborroa lantzea, eta osatzen duten multzo estetikoetan banatzea ikuskizuna.

Argiztapen-diseinua definitzea, eta, horretarako, proiektuaren alderdi formal estetikoak eta espresiozkoak zehaztea, eta marrazkiak, argazkiak eta erreferentziazko irudiak gaineratzea.

Estiloak, joerak, eskolak eta argiztapen generoak.

Argiztapen-erabileren bilakaera finkatzea.

- Argiztapen zinematografikoko generoak.
- Telebista-generoen argiztapena: albistegiak, erreportajeak, dokumentalak, eztabaidak, magazinak, emanaldiak, musikalak eta fikzioa.
- Genero fotografikoen argiztapena.
- Argiaren eta kolorearen tratamendua ikus-entzunezko generoetan.

Argiztapen-teknika berriak ikasteko prest egotea.

Sortzen diren gertaerei soluzioak bilatzeko ekimena izatea.

Autonomia izatea funtzioak betetzean.

3.– Zuzeneko ikuskizun baten argiztapenerako soluzio teknikoak eta operatiboak zehaztea.

Zuzeneko ikuskizunaren tokiaren oin-planoko marrazkia eta argiztapen-krokisa egitea.

Lan-planaren arabera argiztapen-materialen zerrenda egitea.

Argiztapen-efektuak planifikatzea, eta ikuskizuna prestatzeko aldiaren sortu diren aldaketen ezaugarriak dokumentu bidez jasotzea.

Ikuskizuna egiteko espazioen eta denboralizazioaren arabera izan daitezkeen alternatibak deskribatzea argiztapen-planean.

Lan-planaren eta dokumentazioan kontsignatutako aurrekontuaren arabera, baloratzea materialak hornituko dituen hainbat enpresa edukitzeko aukera.

Oin-planoko marrazkia eta argiztapen-krokisa:

– Espazioetara egokitzea.

– Argiztapen-materialak.

Argiztapeneko giza taldea.

Argiztapen-planak: denboralizazioa eta efektuak.

Argiztapen-teknika berriak ikasteko prest egotea.

Sortzen diren gertaerei soluzioak bilatzeko ekimena izatea.

Autonomia izatea funtzioak betetzean.

4.– Telebista-saioak argiztatzeko soluzio teknikoak eta operatiboak zehaztea.

Telebistan espresiozko argiztapen-teknikak aplikatzea.

Telebistako argiztapen-krokisak eta oin-planoko marrazkia egitea:

– Platoaren oin-planoa.

– Dekoratuaren oin-planoa.

– Kameran oin-planoa.

– Argien oin-planoa. Kanalen zerrenda.

Telebistako grabazioetan argiztapen-teknikak aplikatzea:

– Eskaletak aztertzea.

– Multzokako grabazioetan.

– Kamera anitzekoetan.

Proba operatiboak egitea argiztapen-tresneriarekin:

- Proiektagailuak.
- Erregulazio-tresneria.
- Kontrol-mahaiak.
- Osagarriak.
- Euskarriak eta eseki-sistemak.

Telebistako espresio-argiztapena.

Telebistako argiztapen-krokisak eta oin-planoko marrazkiak:

- Platoaren oin-planoa.
- Dekoratuaren oin-planoa.
- Kameran oin-planoa.
- Argien oin-planoa. Kanalen zerrenda.

Telebista-grabazioetako argiztapen-prozesuak:

- Eskaletak aztertzea.
- Multzokako grabazioetan.
- Kamera anitzekoetan.

Denboralizazioa eta efektuen minutajea, eskaletetan.

Telebistako argiztapeneko giza taldea:

- Argiztatzaillea.
- Luminotekniako langileak.
- Kameretako arduradun teknikoa. CCUko teknikaria.

Produktuaren kalitatearekiko interesa izatea.

Sortzen diren gertaerei soluzioak bilatzeko ekimena.

Teknologia berriak aztertzeko gaitasuna.

5.– Planoz planoko grabazioko ikus-entzunezko proiektuen eta proiektu fotografikoen soluzio teknikoak eta operatiboak zehaztea.

Beharren hasierako zehaztapenerako gidoi teknikoa ebaluatzea.

Saioaren proiektuaren gidioa banakatzea.

Oin-planotan edo tokian bertan aztertzea kokalekuak, beharrezko argiztapena zehazteko.

Argiaren eta dekoratuaren, jantzien eta atrezzoaren arteko elkarreragina aztertzea, eta erreferentziak idaztea gidoi teknikoan edo proiektua planifikatzeko dokumentuetan.

Argiztapenaren ikuspuntutik ebaluatzea erregistro fotografikoko edo ikus-entzunezko plana, proiektua behar bezala ebazteko beharrezko aldaketa-proposamenak gaineratuta.

Lan-planaren eta dokumentazioan kontsignatutako aurrekontuaren arabera, baloratzea materialak hornituko dituen hainbat enpresa edukitzeko aukera.

Lanaren garapenean segurtasun-arauak aplikatzea.

Gidoi teknikoa eta argiztapena: interpretazioa, banakapena eta oharrak.

Zuzendaritza artistikoarekiko elkarrekintza:

– Dekoratuak eta argia.

– Jantzkerak eta argia.

– Makillajea eta argia.

Giroa sortzeko argiztapen artistikoko baliabideak.

Giza taldearen ezaugarriak eta esleipenak.

Segurtasun-plana.

Edukiak aplikatzeko motibazioa eta jarrera ekintzailea izatea.

Proiektua ezaugarrituko duen estetikarekiko interesa izatea.

Ezagutza teorikoak eta praktikoak hobetzeko kezka izatea.

6.– Argiztapen-plana egitea.

Zuzeneko ikuskizunetan plangintza-teknikak aplikatzea.

Telebistarako argiztapen-plana egitea:

– Eusteko, esekitzeko eta laguntzeko materialaren zerrenda egitea.

– Erregulazio-tresneriaren zerrenda lantzea, dimmer kopurua eta horien potentzia zehaztuta.

– Kontrol eta programazioko elementuen behar teknikoak zehaztea.

– Argiztatze-efektuen plangintza eta saioan edo ikuskizunean zehar egongo diren aldaketen espezifikazioa egitea.

Planoz planoko grabazioan eta hartze fotografikoan plangintza-teknikak aplikatzea.

Argiztatzeko materialen zerrendak betetzea.

Argiztapen-diseinuak egitea:

– Planoaren gainean.

– Informatika-aplikazioak.

Proiektu fotografikoaren, ikus-entzunezkoaren edo ikuskizunekoaren argiztapeneko lan-plana egitea eta beharrezko dokumentazioa sortzea.

Zuzeneko ikuskizunaren plangintza.

Telebistako plangintza:

- Telebistarako argiztapen-teknikak.
- Produkzio fotografikoetako eta ikus-entzunezkoetako argiztapen-iturriak.
- Erregulazio- eta kontrol-tresneria.

Planoz planoko grabazioaren eta hartze fotografikoaren plangintza.

Elektrizitate-iturrien aurreikuspena.

Argiztatzeko materialen zerrendak.

Argiztapen-diseinuak:

- Planoaren gainean.
- Informatika-aplikazioak.

Lan-plana lantzeko teknikak.

Edukiak aplikatzeko motibazioa eta jarrera ekintzailea izatea.

Proiektua ezaugarrituko duen estetikarekiko interesa izatea.

Ezagutza teorikoak eta praktikoak hobetzeko kezka izatea.

Autonomia izatea funtzioak betetzean.

4. lanbide-modulua: Luminoteknia

Kodea: 1161

Kurtoa: 1

Iraupena: 132 ordu

ECTS kredituetarako baliokidetzak: 9

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1.– Ikuskizunetako eta ikus-entzunezkoetako proiektuetan erabili behar diren argiztapen-tresnerien baldintza teknikoak zehazten ditu, eta, horretarako, horien ezaugarri funtzionalak eta operatiboak haien xede diren erabilerekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Emisio-teknologiarekin, fotometriarekin, kolorimetriarekin, argi-sorta motarekin, tentsioarekin, potentziarekin eta argi-eraginkortasunarekin lotutako ikuskizunetako, eszenako eta ikus-entzunezko hainbat proiektutan beharrezkoak diren iturri naturaleko argien, argi gorien, fluoreszenteen eta deskargakoen emisio-kualitateak ebaluatu ditu.

b) Ikuskizunetako, eszenako eta ikus-entzunezko proiektuetan, kokaguneen, eszenen, dekoratuen, aurkezleen, gonbidatuen, ikusleen eta antzezleen gainean, argiteriaren efektuak alderatu eta definitu ditu zuzeneko argi, argi errefraktatu, argi islatu eta argi modularreko tresna finkoekin zein robotizatuekin.

c) Potentziari, fase elektrikoei, kable-sekzioei, konektoreei, koadro elektrikoei eta lineen banaketari dagokienez, multzo elektrogenoko edo elektrizitate-hartuneko aukerak definitu ditu, ikuskizunen eta ikus-entzunezkoen proiektuetan.

d) Telebistako, eszenako eta ikuskizunetako hainbat proiektutarako mahai-argien eta dimmer-en konfigurazioak zehaztu ditu, bertan sartutako argi-materialaren, eta adierazpen- eta dramatizazio-asmoen arabera.

e) Ikuskizunetako, eszenako eta ikus-entzunezko proiektuetan erabilitako argi-aparatu moten gainean, kolore-efektuetako iragazkien, eta kolore-tenperaturako bihurkarien, neutroen eta barreiatzaileen erabilera baloratu du, eta horien emaitzak dokumentatu ditu.

2.– Zuzeneko ikuskizunetarako eta ikus-entzunezkoetarako argiztapenen beharrezko aurreikuspenak egiten ditu eta argiztapenen instalazioa, muntaia eta desmuntaia antolatzen du, hartutako erabakiak justifikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Dokumentazio teknikoa aztertu du, eta eskatutako kokalekurako haren bideragarritasuna bilatu du, segurtasun- eta eraginkortasun-baldintzen arabera.

b) Zeregin zehatzen, denboren eta beharrezko langileen banaketa ezarri du, eta argiztapen-planaren oharpenei jarraitu die, produkzio- eta operatibotasun-irizpideekin.

c) Soinu eta dekorazioko jarduerekin lotzeko modua ezarri du, betiere zereginak egiteko denborari eta espazioen erabilerari dagokionez, ahalik eta operatibotasunik eta segurtasunik handiena bilatuta.

d) Balizko harrera-zentro baten segurtasuna koordinatzeko aurreikuspena egin du eta larrialdi-eta hustuketa-planetarako soluzioak gaineratu ditu.

e) Errodaje ibiltarietarako argiztapen-tresneriaren behin-behineko biltegiatzea eta garraioa aurreikusi du, eta materialaren segurtasunerako beharrezko baldintzak ezarri ditu.

f) Kantitatea, garraioa, mahuken luzatzea eta tresnerien zama-lanak aurreikusi ditu, muntaian ahalik eta eraginkortasunik handiena bilatuta.

3.– Instalazio elektrikoa eta beharrezko elementuen kableatuak egiten ditu, eta segurtasun-baldintzak betetzea eta beste tresneria batzuen lana errespetatzea baloratzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Aurreikusitako kontsumoak kalkulatu ditu eta ekintzaren lekuan korronea hartzeko aukerak aztertu ditu, ingurunea errespetatuta eta tresneria autonomoak erabiltzeko beharrezko aurreikuspenak eginda.

b) Tresneria autonomo intsonorizatuak abian jarri ditu, kokaleku egokietan kokatuta.

c) Iturri finkoetarako edo autonomoetarako konexio elektrikoak egin ditu, kontsumoa faseen arabera behar bezala banatuta.

d) Beharrezko linea anitzekoak konektatu ditu, patch-a argiztapen-planaren arabera egiteko aurreikusitako taldekatzea kontuan izanik.

e) Tresneria iturri elektrikoetara konektatu du, soinu-tresnerien konexioak eta segurtasun-baldintzak errespetatuta.

f) Tresnerien kontrol-konexioak egin ditu, eta, horretarako, argiztapen-planaren jarraibideei jarraitu die.

4.– Zuzeneko ikuskizunetarako argiztapen-tresneriak muntatzen eta desmuntatzen ditu, argiztapen-plana aplikatuta, eta segurtasun-baldintzak betetzea eta beste tresneria batzuen lana errespetatzea baloratzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Euskarriak eta esekidura-materialak instalatu ditu, betiere publikoaren eta artisten gainean kargak banatzearen segurtasuna eta beste tresneria batzuen instalazioak kontuan hartuta.

b) Proiektagailuak muntaia-planoaren arabera antolatu ditu, berehalako konexioa kontuan izanik eta plana beste lokal baten baldintzetara egokituta.

c) Planaren arabera instalatu ditu erregulazio- eta kontrol-tresneriak, eta, horretarako, balizko baldintza berrietara egokitu du eta segurtasun-arauak errespetatu ditu.

d) Proiektagailuak orientatu ditu, aurreikusitako iragazkiak jarri ditu eta argiztapen-planaren arabera beharrezkoak diren goboak, osagarriak eta periferikoak antolatu ditu, norberaren segurtasun-arauetara jarraituta.

e) Sistemaren funtzionamendua egiaztatu du, ezustekoak konponduta eta akatsak zuzenduta edo baldintza berrietara egokituta.

f) Argiztapen osagarriak eta zerbitzukoak instalatu ditu eta jarri ditu abian.

g) Ekipamendua desmuntatu du, eta zuzen eta txukun gorde du, beste kokaleku batzuetara garraiatzeko.

h) Instalazioari eta gertakariei buruzko beharrezko dokumentazioa sortu du, eta ikuskizunaren zuzendaritzarentzat, antzeppen tokietako arduradunentzat edo tresneria mantentzeaz arduratzen direnentzat garrantzizkoak diren datu guztiak gaineratu ditu.

5.– Ikus-entzunezkoetarako argiztapen-tresneriak muntatzen eta desmuntatzen ditu, fotografiako zuzendaritzaren jarraibideak aplikatuta, eta segurtasun-baldintzak betetzea eta beste tresneria batzuen lana errespetatzea baloratzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Behin-behineko konexio elektrikoak ezarri ditu, ingurunean, dekoratuetan, etxebizitzetan edo pertsonengan kalterik eragin gabe.

b) Platoko proiektagailuen eta patch-aren konfigurazioa aldatu du, saioaren argiztapen-plana betetzeko, eta, horretarako, segurtasuna hartu du aintzat eta beste tresneria batzuen jarduerak errespetatu ditu.

c) Fotografia-zuzendaritzaren eskakizunen arabera antolatu ditu proiektagailuak, tresnerien egonkortasun-baldintza onenak bilatuta eta segurtasun-baldintzak errespetatuta.

d) Argiak iragazi, errebotatu edo moztu ditu, fotografia-zuzendaritzako argibideen arabera, eta, horretarako, instalatu beharreko elementuen segurtasuna eta eraginkortasuna finkatzeko beharrezko osagarriak erabili ditu.

e) Argiztapen-elementuak kokatzeko, soinu-tresneriarekiko koordinazio-protokoloa ezarri du, bi tresneria horien funtzionaltasunik handiena errazteko.

f) Edozein instalaziotan edo kokalekutan planteatutako ezustekoak ebatzi ditu instalatzean, baita produkzioaren ondoriozko beharrak ere.

6.– Argiztapen-tresneria mantentzen du, zuzeneko ikuskizunetan eta ikus-entzunezkoetan erabiltzeko, eta ezarritako protokoloen aplikazioa hartzen du aintzat.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Merkatuko tresneriak eta osagarriak etengabe eguneratu ditu, eta horiek produkzio berrien beharretara egokitu ahal izateko eguneratuta mantendu ditu.

b) Eusteko eta ainguratzeko tresnerien garbiketa eta mantentze mekanikoa eta elektrikoa egin du, beharrezko piezak ordezkatu ditu, gas-botilak bete ditu eta koipeztatze- eta garbitze-material egokiak aplikatu ditu.

c) Proiektagailuen zati optikoa eta elektrikoa garbitu ditu eta horietan gertatzen diren arazo teknikoak konpondu ditu.

d) Errendimendua, kolore-tenperatura eta flicker-a egiaztatu du eta, hala badagokio, lanpara akastunak edo balio ez dutenak beste batzuekin ordezkatu ditu, betiere dagokion proiektagailurako mota, forma, konexioa eta kontsumoa errespetatuta.

e) Argiztatzeko, erregulatzeko eta kontrolatzeko tresnerietan matxurak hautemateko protokoloak ezarri ditu, eta tresneriak baztertzea, ordezkatzeta edo konpontzea erabaki du.

f) Materialaren inbentarioak egin ditu, eta erabiltzeko eta biltegitatzeko ordena logikoan etiketatu du elementu bakoitza, informatika-aplikazioen bitartez.

g) Materialak egiaztatu eta prestatu ditu, dokumentazio teknikoaren arabera muntatzeko.

h) Materialak segurtasunez biltegitatu ditu eta flycase-ak eta edukiontziak antolatu ditu, eta horietako bakoitza egoki etiketatu du, argiztapen-elementuak azkar aurkitzeko.

B) Edukiak:

1.– Argiztapen tresneriaren ezaugarri teknikoak zehaztea.

Argiztapen-tresneria alderatzea eta aztertzea:

– Kualitate kolorimetrokoak eta optikoak kontuan hartuta.

– Kualitate elektrikoak kontuan hartuta.

– Kontrol-kualitateak kontuan hartuta.

– Muntaia-baldintzatzaileak kontuan hartuta.

– Beste baliabide batzuekiko elkarrekintza kontuan hartuta.

Ikuskizunetako eta ikus-entzunezko baliabideetako argiztapen-instalazioetarako hartune elektrikoak definitzea.

Neurketa fotometrikoak eta kolorimetrikoak egitea.

High key eta Low key giroak sortzea tresneria egokia erabilia.

Fotometria, kolorimetria, kolorearen tenperatura, argi-iturri naturaletan eta artifizialetan. Unitateak.

Kelvin graduak eta Mired graduak. Luxometroa. Termokolorimetroa.

Hartune elektrikoak: magnitude elektrikoak, sarerako eta multzo elektrogenoetarako konexio elektrikoak eta hornikuntza, koadro elektrikoak, faseak, kable motak eta konektoreak.

Argiztapen-aparatuak eta LED, fluoreszentsia, deskarga eta inkandeszentziako lanparak.

Ikuskizunetarako eta ikus-entzunezko hedabideetarako argiteria-tresneria:

– Sorta irekiko proiektagailuak:

Kuartzoak.

Panorama simetrikoak eta asimetrikoak.

X-Lite.

– Lentea duten proiektagailuak:

PC.

Fresnel.

Mailakatua.

Mozte finkoa eta foku-aldagarria, axiala eta erradiala.

Kanoia.

– Argi arineko islagailuak:

Simetrikoak.

Asimetrikoak.

– Beste batzuk.

PAR eta ACL poteak.

Itsugarriak eta txerrentsak.

Estropuak.

– Aparatu modularrak:

Efektuen proiektagailuak.

Beste batzuk.

– Robotizatuak. Fixtureak. Atributuak:

Scanner.

MovingYoke. Wash. Spot.

Scroller.

ColorMixer. CMY, RGB.

PARLED.

LEDBar.

- Dorreak. Ground support.
- Truss.
- Eszenatoki modularrak eta aldamiok, irekigarriak.

Merkatuan eskaintzen diren tresnerietan eta osagarrietan teknologiak etengabe eguneratzeko interesa izatea.

Autonomiaz jardutea zereginak egitean.

Argiztapen artistikoarekiko eta giroen sorrerarekiko interesa izatea.

2.– Argiztapenen instalazioa, muntaia eta desmuntaia antolatzea.

Argiztapen-plana aztertzea eta egitea.

Laneko planak egitea.

Muntaia-denborak optimizatzea.

Beste talde batzuekin koordinatzea.

Larrialdi- eta hustuketa-planetan parte hartzea.

Segurtasun-neurri prebentiboak aplikatzea.

Garraiorako eta esekidurarako pisuak kalkulatzea:

- Garraiorako eta gehieneko taretarako materialen pisua kalkulatzea.
- Truss-muntaiarako materialen pisua kalkulatzea.
- Eslinga bidez esekitako muntaiarako materialen pisua kalkulatzea.

Dokumentazio teknikoa:

- Argiztapen-plana.
- Ikuskizunaren gutxienekoen eskakizuna.
- Mapen, sarbideen eta garraioen azterlana.
- Segurtasun, larrialdi eta hustuketako plana.

Giza baliabideak antolatzea.

Antolamendua eta denboren kalkulua.

Soinu-instalazioekiko elkarrekintzak.

Dekoratuekiko eta segurtasunarekiko elkarrekintzak:

- Termikoki arriskutsuak diren materialak eta suaren aurkakoak.

- Material eroaleak, lur-konexioak eta isolamenduak.

Materialen garraioa.

- Pisuak eta zama.
- Gehieneko tara.
- Gehieneko bolumena.

Materialen pisuaren kalkulua.

- Gehieneko kargak truss-ean:

Kargak banatzeko metodoak.

- Esekita dauden elementuen gehieneko kargak.

Koefiziente aldatzaileak.

Ordena mantentzea eta dokumentazio teknikoa antolatzea.

Neurri prebentiboak eta babes kolektiboko neurriak hartzea.

Taldearekin komunikazio arina mantentzea.

Kalkulu-prozedurak errespetatzea.

3.– Instalazio elektrikoa egitea.

Banaketa elektrikoko taulak/kalkuluak egitea.

Multzo elektrogeno trifasikoak jardutea:

- Aurretiazko egiaztapenak aplikatzea.
- Lur-konexioak egitea.
- Segurtasun-baldintzetan abian jartzea.
- Funtzionamendua kontrolatzea.
- Banaketa elektrikoa egiaztatzea.

Linea anitzeko eta multipareko banaketa elektrikoa eta konexioak egitea:

- Zirkuituen patch-ak egitea.
- Zirkuituak/dimmer-ak/tresneria trazagarritasuna eta identifikazioa mantentzea.
- Banaketa elektrikoa egiaztatzea.

Kontrol-konexioak egitea:

- Kontrol eta erregulazioko tresneriak kokatzea eta instalatzea.
- Konexio fisikoak egitea, sare-topologiak eta sistema-mugak errespetatzea.

– Tresneria eta sistema kontrolatuak konfiguratzea eta bideratzea.

– Kontrol-sistemaren funtzionamendua egiaztatzea.

Ekintzaren tokian aurreikusten diren kontsumo elektrikoak kalkulatzeko teknikak:

– Intentsitateak, kontsumoak eta erresistentziak.

– Sekzioa eta erresistentzia.

– Faseen banaketa: korrante monofasikoa eta trifasikoa.

Multzo elektrogenoak:

– Funtzionamendua.

– Konexioa.

– Garraioa eta mantentze-lanak.

Segurtasun elektrikoko elementuak.

– Magnetotermikoak.

– Diferentzialak.

– Fusibleak.

– Lur-konexioak:

Kableak eta konexio elektrikoa:

– Kableak eta mahukak.

– Linea anitzekoak.

– Konektoreak.

Dimmer-en rack-ak konektatzeko prozedurak.

DMX konexioak:

– Sare-topologiak.

– DMX helbideak:

Offset.

Helbideak esleitzeko aukerak.

– Kableatua eta konektoreak:

XLR5 (DMX512-1990).

XLR5 (DMX512-A RDM).

EtherCON RJ45 (ArtNet).

Argiztapen-tresneria, tresneria elektrikoa, eranskinak, kontrol-materiala eta muntaiako tresneria muntatzean, desmuntatzean, garraiatzean eta manipulatzeko, jarrerako higie- eta prebentzio-neurriak errespetatzea.

Behe-tentsioko erregelamendu elektroteknikoa errespetatzea, baita muntaiak eta instalazioak arautzen dituzten xedapenak eta neurri guztiak ere.

Konexioak egitean, pertsonen segurtasun-neurri prebentiboak errespetatzea.

Mahukak eta kableak luzatzeko eta biltzeko metodoak errespetatzea.

Euskarriak instalatzea:

– Parrilla elektrifikatuak. Euskarri altxagarriak (Genie, Truss).

– Katuak eta atzaparrak.

Proiektagailuak muntatzea eta instalatzea.

Dimmer-en rack-ak instalatzea.

Argiztapen-mahaiak eta beste kontrol-tresneria batzuk instalatzea.

Proiektagailuak altueran bideratzea, orientatzea eta iragaztea.

Muntaiaren dokumentazioa egitea.

Euskarriak instalatzeko prozedurak:

– Parrilla elektrifikatuak. Euskarri altxagarriak (Genie, Truss).

– Katuak eta atzaparrak.

Proiektagailuak instalatzeko teknikak.

Dimmer-en rack-ak instalatzeko prozedurak.

Argiztapen-mahaiak eta beste kontrol-tresneria batzuk instalatzeko prozedurak.

Proiektagailuak altueran orientatzeko eta iragazteko teknikak.

Zuzeneko ikuskizunetako argiztapen-instalazioetako periferikoak.

Muntaiak egitean pertsonen-segurtasuna zaintzea.

Tresneriaren eta instalazioen segurtasuna errespetatzea.

Konexioen luzapenen identifikazioa eta etiketak zaintzea.

Erabilitako materialen antolamendua mantentzea.

Mahukak eta kableak luzatzeko eta biltzeko metodoak errespetatzea.

5.– Ikus-entzunezkoetako argiztapen-tresneria muntatzea eta desmuntatzea.

Konexio elektrikoak egitea.

Behe-potenziako koadroetan konexioak egitea.

Patch-a egitea.

Proiektagailuak konfiguratzeko, muntatzea, helbideratzea eta doitzeko.

Beste tresneria batzuekin koordinatzea.

Etxeko instalazioetako konexioak: arreta-neurriak.

Argiztapeneko patch fisikoa.

Euskarriak eta osagarriak:

– Tripodeak.

– Pantografoak.

– Euste-elementuak.

– Banderak.

– Muntaia-eta zama-metodoak.

Balastroak.

Garraioan eta muntaiaren jarrera-higieneko eta -prebentzioko neurriak errespetatzea.

Tresneriaren eta instalazioen segurtasuna errespetatzea.

Konexioen luzapenen identifikazioa eta etiketak zaintzea.

Konexioak eta muntaiak egitean txukuntasuna eta garbitasuna mantentzea.

6.– Argiztapen-tresneria mantentzea.

Tresneriaren mantentze-lanak egitea:

– Lanparak ordezkatzea.

– Garbitzea eta koipeztatzea.

– Konponketa elektrikoak egitea.

Larakoak eta oinarriak ordezkatzea.

Lanpara-konektoreak ordezkatzea.

Mahukak ordezkatzea.

Etengailuak ordezkatzea.

Fusibleak ordezkatzea.

Triac-ak ordezkatzea.

Eztainu bidezko soldadurak egitea.

– Kolore-tenperatura eta flicker-a doitzea.

Tresneria egiaztatzea.

– Funtzionamendua egiaztatzeke protokoloak aplikatzea.

– Funtzionamendua polimetro bidez egiaztatzea.

Inbentarioak egitea:

– Inbentarioak kudeatzeko softwarea aplikatzea.

– Tresneria etiketatzea.

– Tresneriaren biltegia kudeatzea.

Lanparak krokatzeko eta konektatzeko moduak.

Mantentze mekanikoa: koipeztatzeke materialak eta garbiketa.

Kolore-tenperatura neurtzeke eta doitzeko sistema.

Flicker-a neurtzeke eta doitzeko teknika.

Luminarietako matxurak hautemateke metodoak: polimetroaren erabilera.

Tresneriaren inbentarioak egiteke, katalogatzeko eta etiketatzeke teknikak eta informatika-aplikazioak.

Merkatuan eskaintzen diren tresneria eta osagarrietan teknologiak etengabe eguneratzeko jarrera izatea.

Ordena mantentzea eta dokumentazio teknikoa antolatzea.

Tresneria identifikatzeko arauetikoko interesa izatea eta arreta jartzea.

Tresnerietan esku hartzeke prozedurak zaintzea.

5. lanbide-modulua: Argiztapen-kontrola

Kodea: 1162

Kurtoa: 1

Iraupena: 99 ordu

ECTS kredituetarako baliokidetzak: 8

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1.– Argi sortak kontrolatzen eta manipulatzeko ditu, eta horien jarduna argiztapen diseinuan lortu nahi den efektu estetiko edo dramatiko erdiestearekin lotzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Luminarien argi-intentsitatea, luminantzia, errendimendua, sortaren uniformetasuna eta flicker-ak neurtu ditu, eta horien berdintzea egiaztatzen du eta beharrezko zuzenketak aplikatu ditu.

b) Argi sortak diseinuetan markatutako dekoratuen zonetara zuzendu ditu, islapen-angeluak eta itzalen kokalekua kalkulatu.

c) Argi sortak kontzentratzeko edo hedatzeko eragiketak egin ditu, distantziak eta itzalak kontuan hartuta, eta, horretarako, lente egokiak erabili ditu, argiztapen-diseinuan lortu nahi den efektua erdiesteko.

d) Argi sortek argiztapen-diseinuan lortu nahi den efektua sortzeko, beharrezko islapen zuzeneko edo difusoko elementuak erabili ditu.

e) Argiak iragazi ditu, argi sorta erregulatzeko kolorearen tenperaturari dagokionez, kolore-dominantei dagokionez, argi-intentsitateari dagokionez eta leuntasunari dagokionez, betiere argiztapen-diseinuan markatutako efektua lortzearren.

f) Ebakitzeko elementuak jarri ditu, baita argi sorten ekintza-eremua argiztapen-diseinuaren arabera mugatzeko beste eranskin batzuk ere.

g) Lortu nahi diren argi sortak erdiesteko beharrezkoa den kasuetan, argi-erregulagailuak aplikatu ditu.

h) Luminarien kolore-tenperatura eta flicker-a hargailuetara egokitu ditu.

2.– Zuzeneko ikuskizunetan argiztapena kontrolatzen du, eta argiztapen-diseinuaren helburuen lorpena eta argiztapen-planaren egokitasuna baloratzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Patch-a konfiguratu du, eta, eginkizun horretan, erregulazio-elementuak dagozkien kanalei esleitu dizkie eta gehieneko operatibotasuna bilatu du argiztapen-planaren aplikazioan.

b) Luminariak eta argiztapen-kontrolatik maneiatu beharreko beste elementu batzuk kontrolatzeko beharrezko DMX unibertsoa konfiguratu du, dagozkien helbideak esleituta.

c) Audioarekin sinkronizatzeko protokoloak ezarri ditu, soinu-jarduerekin konektatuta edo bat eginda.

d) Ikuskizuna argiztapen-mahaian programatu du, eta, horretarako, azpimasterrak, multzoak, cue-ak eta makroak erabili ditu, baita ikuskizunaren gertakariak taldekatzeko eta denboralizatzeko eskura dituen elementu guztiak ere.

e) Urruneko argi-iturriak edo robotizatuak programatu ditu, plana betetzeko ahalik eta operatibotasunik handiena bilatuta eta kokalekuak, intentsitateak, koloreak, mugimenduak eta goboak ezarrita mugikorretan eta eskanerretan.

f) Elementu robotizatu osagarriak programatu ditu (kea, haizagailuak eta piroteknia, besteak beste), argiztapen-planean finkatutako efektu bereziak egiteko.

g) Beharrezko entseguak egin ditu; denborak, koordinazioak, oinak, kokalekuak eta abar zuzendu ditu, eta emaitzak programazio-mahaiko euskarri informatikoan eta eskaletan biltegitatu ditu.

h) Pertsonentzako, lokaletarako eta tresneriarako segurtasun-protokoloak bete ditu, ikuskizunearan esku hartzen duten tresneria guztien mugimendua eta jarduna erraztuta.

3.– Ikus-entzuketako hartzeetan eta erregistroetan argiztapena kontrolatzen du, eta argiztapen-diseinuaren helburuen lorpena eta argiztapen-planaren egokitasuna baloratzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Iragazte optikoari dagokionez, planoz planoko grabazio-kameraren jardunerako baldintzak ezarri ditu, baita beharrezko zuri-beltzen balantzeak egiteko ere, kolore-tenperaturaren kalkulua eta doikuntza, argiaren intentsitatea eta kontrasteak abiapuntu izanik.

b) Planoz planoko grabazio-kameraren jardun-baldintzak ezarri ditu, iragazki polarizatzaileak edo efektu-iragazkiak jartzeko eta argiztapen-diseinuan lortu nahi den efektua erdiesteko.

c) Seinalea manipulatzeko eta doitzeko, planoz planoko grabazio-kameraren jardun-baldintzak ezarri ditu, idulkia, irabazia eta gamma aldatuta.

d) Kolore-sakonerako eta seinale-kurbako beharrezko doikuntzak egin ditu matrizeetan, LUT tauletan edo antzekoetan, betiere argiztapen-diseinuan finkatutako ikus-itxura lortzeko.

e) Telebista-saioan, argiztapen-plana betetzeko beharrezko kamera-kontrolako unitateen doikuntza zehaztu du.

f) Entseguen eta antzezpenen bidez, kameraren eta antzezleen mugimenduetara eta soinu-hartzeetara egokitu ditu beharrezko argiztapen-parametroak.

g) Optikan jarri beharreko T zenbakia edo F zenbakia zehaztu du, argien luminantzia eta iluminantzia neurtuta eta dagokion kalkulua eginda, diseinuan finkatutako argiztapen-efektua lortzeko.

4.– Ikus-entzunezko narratiba aplikatzen du argiztapenean, ikus-entzunezko kodeak proiektuen komunikazio-helburuen lorpenarekin lotuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Beharrezko argiak justifikatu ditu, eta, horretarako, kasuan-kasuan egokienak diren teknikak erabili ditu eta, zuzendaritzako eta zuzendaritza artistikoko jarraibideei dagokienez, dokumentazioan finkatzen diren irizpideak kontuan izan ditu.

b) Gidoiaren asmoaren, zuzendaritza artistikoaren estiloaren eta obraren generoaren arabera aplikatu ditu argirik gogorrenak eta argirik leunenak.

c) Argiztapenean jarraitutasuna errespetatu du, gidoi teknikora eta kamera bideratzeko eta jarduteko beharretara egokituta.

d) Argiztapenean ardatzak errespetatu ditu, plano aldaketetan, kamera mugimenduetan eta antzezleengan, betiere gidoi teknikora eta argiztapen-diseinura egokituta.

e) Maketak argiztatu ditu, kasuan-kasuan beharrezkoa den argiztapenean errealismo-efektua lortuta.

f) Errodajeko efektu bereziak argiztatu ditu, dagokion tresneriaren beharrekin koordinatuta eta sinkronizatuta.

g) Txertaketan eta gardentasunen postprodukzioko efektuetarako setak argiztatu ditu, eta matte-gegarriketa eta ikus-elementuekiko elkarrekintza ahalik eta gehien erraztu ditu.

h) Antzezleen fotogenia aztertu du, horien itxura gidoian proposatutako narratibara ahalik eta gehien hurbil dadin bilatzeko.

5.– Postprodukzioan, irudiaren argiztapenaren ikus-itxura kontrolatzen du, eta obran desiratzen den ikus-emaizta lortzen den ebaluatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Erregistratutako hartzeak egiaztatu ditu, eta argi-emaiztak diseinura egokitzen diren baloratu du.

b) Postprodukzioko sailarekin koordinatu du grabatutako irudiak jarraitu beharreko prozesuen ibilbidea, betiere beharrezkoak diren irudia kontrolatzeko eta zuzentzeko puntuak erabakita.

c) Irudia irudikatzeke monitoreen doikuntza egiaztatu du, tresna eta software egokiak erabilia.

d) Beharrezko uneetan egin da hartuneen etalonajea, jarraitutasuna errespetatuta eta obran desiragarriak diren efektuak bilatuta.

e) Amaierako konformazioa txekeatu du, masterrean beharrezko ikus-zuzenketak aplikatuta eta hedatze- eta emisio-kopiak kontrolatuta.

B) Edukiak:

1.– Argi-sortak kontrolatzea eta maneiatzea.

Luminariak neurtzea eta doitzea:

– Kontraste-lupak erabiltzea.

– Argia kalkulatzeko.

– Argiztapena neurtzeko tresnak erabiltzea: luxometroa eta termokolorimetroa.

– Neurketa-eragiketak eta doikuntza-prozedurak egitea.

– Flicker-a doitzea.

Argi sortak bideratzea eta kontzentratzea:

– Hedapen-legeak.

– Distantziak kalkulatzeko.

– Argi sortaren irekiera kalkulatzeko.

Islapen-elementuekin jardutea.

Argiztapenean iragaztea:

– Kolorearen tenperaturari dagokionez.

– Koloreari dagokionez.

– Intentsitateari eta hedapenari dagokionez.

Ebaketa-elementuekin jardutea:

– Banderak eta osagarriak erabiltzea erabiltzea.

– Goboak erabiltzea.

Argi-erregulagailuak erabiltzea.

Argi-iturriak. Ezaugarriak:

– Kantitatea.

– Kalitatea.

– Kualitatea eta kolorea.

– Norabidea.

Luminariak neurtzeko teknikak. Argi-kalkuluak eta argiztapena neurtzeko tresnak: luxometroa eta termokolorimetroa.

Argiaren hedapen-legeak.

Argi sortaren irekieren eta distantzien kalkulua.

Islapen-elementuak.

Argiztapena iragazteko elementuak eta teknikak.

Ebaketa-elementuak.

Argi-erregulagailuak: ezaugarriak eta funtzioa.

Antolamenduaren eragiketa-mailako zereginetan laguntzeko interesa izatea.

Merkatuan sistema eragileen gainean gertatzen diren aldaketetara egokitzea.

2.– Zuzeneko ikuskizunetako argiztapena kontrolatzea.

Argiztapeneko match-a konfiguratzea.

DMX unibertsoak konfiguratzea:

– Kode bitarrak aztertzea.

– Konexioak ebaluatzea eta gauzatzea.

– DMX helbideak konfiguratzea.

Argiztapen-mahaiekin lan egitea:

– Efektu bereziak programatzea eta maneiitzea.

– Argiztapen-robotak programatzea.

Segurtasun-protokoloak identifikatzea.

Argiztapeneko match-aren ezaugarriak.

DMX unibertsoekin lan egitearen ezaugarriak.

Audioarekin sinkronizatzeko elementuak eta protokoloak.

Argiztapen-mahaiak:

- Programaезinak.
- Programagarriak.

Segurtasun-protokoloak.

Segurtasun-protokoloak zuzen erabiltzea.

3.– Ikus-entzunezkoak hartzean eta erregistratzean argiztapena kontrolatzea.

Kamera-iragazkiak hautatzea eta erabiltzea, eszenaren argiztapenaren arabera.

Irudiak hartzean, argiztapenaren doikuntzak egitea:

- Balantzeak.
- Irabaziak.
- Kolore-sakonera.
- Gamma eta seinale-kurbak.
- Matrizeak.
- LUT taulak.

CCUaren eta argiztapenaren doikuntzak egitea.

Esposizio zuzena zehazteko irakurketa esposimetrikoak aplikatzea.

Kamera-iragazkien portaera:

- Kolorea eta kolore-tenperatura.
- Intentsitatea.

Irudia hartzean doikuntzak egiteko elementuak: balantzeak, irabaziak, kolore-sakonera, gamma eta seinale-kurbak, matrizeak eta LUT taulak.

CCUak eta argiztapena.

Fotometria: esposizioa kalkulatzeko teknikak.

Baliabideak zorrotz kudeatzea.

Zorroztasunez jardutea, arauen arabera eta txukuntasun eta garbitasun egokiarekin egindako lanak aurkeztean.

4.– Argiztapenean, ikus-entzunezko narratiba aplikatzea.

Argi justifikatuaren eta justifikatu gabearen aplikazio praktikoa egitea.

Argiaren gogortasuna eta itzalak aztertzea.

Argiztapenean jarraitutasuna ebaluatzea.

Argiztapen-teknikak aplikatzea:

- Telebista.
- Maketak, eskalan.
- Efektu bereziak.

Argi justifikatuaren eta justifikatu gabearen aplikazio praktikoak.

Argiaren gogortasuna eta itzalak:

- Estiloen eta generoen aplikazioa.
- Telebista-estandarrak.

Argiztapenean jarraitutasuna:

- Ekintza-ardatzak.
- Planoen arteko jarraitutasuna.

Telebistako argiztapen-teknikak:

- Argi-triangelua.
- Elkarriketetako argiztapena.
- Set-en argiztapena.
- Zikloramen argiztapena.
- Saio motaren araberako argiztapena.

Eskalan egindako maketen argiztapena.

Efektu berezien argiztapena.

Fotogeniaren azterketa.

Antolamendu-aldaketetara egokitzea.

Laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia betetzea.

5.– Erregistroaren ondoko irudian argiztapenaren ikus itxura kontrolatzea.

Monitoreak kalibratzea eta doitzea.

Hartzeak ebaluatzea, txekeatzea eta neurtzea.

Postprodukzioko prozesuan etalonaje-teknikak egitea:

- Efektuen txertaketa.
- Dominanteak software bidez zuzentzea eta sortzea.

Masterizazio-parametroak aztertzea.

Azken konformazioa egitea.

Hartzeak neurtzeko eta txekeatzeko prozedurak.

Postprodukzioaren ibilbideak:

– Muntaia eta postprodukzioko prozesuak.

– Transferentziak eta bihurketak.

– Efektuen txertaketa.

– Etalonajea.

Etalonajearen prozedurak:

– Erabakiak hartzea.

– Etalonaje-softwarea.

– Zuzenketa-tarteak.

Azken konformazioa. Masterizazio-patroiak eta kopien kontrola.

Baliabideak zorrotz kudeatzea.

Jarduteko eraginkortasuna egin beharreko zereginak planifikatzean.

6. lanbide-modulua: Proiektu fotografikoak

Kodea: 1163

Kurtoa: 1

Iraupena: 99 ordu

ECTS kredituetarako baliokidetzak: 7

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1.– Proiektu fotografiko baten diseinua egiten du, produkzioaren ezaugarriak doitasunez definituta, informazioaren analisia eta aginduaren eskakizunak abiapuntu izanik.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Baliabidea, aplikazio-formatua eta proiektu fotografikoa erakusteko moduak zehaztu ditu, proiektuaren komunikazio-helburua eta -asmoa zehaztuta.

b) Produktu fotografikoaren ezaugarriak finkatu ditu, lortu nahi diren irudien itxura formala eta espresiozkoa zehaztuta.

c) Enkoadraketa eta konposizio mota erabaki du, hartze eta erregistro fotografikorako subjektuaren edo objektuaren ezaugarriak aintzat hartuta.

d) Sekuentzia fotografikoa adierazten duen zirriborroa egin du, irudi multzoaren lotura formala eta estilo-lotura aztertzeko.

e) Konposizioa, egitura formala eta estetikoa eta komunikazio-asmoa adierazten duten argazkien zirriborroa egin du.

f) Girotze- eta estilo-soluzioen eskemak eta zirriborroak biltzen dituen dokumentua egin du, eta bertan kokaleku, dekorazio, eszenografia eta estilismoko eskakizunak identifikatu ditu.

g) Agindu fotografikoaren akabera-baldintzak, moduak eta entrega-formatuak dokumentu bidez islatu ditu.

2.– Proiektu fotografiko baten gauzatze tekniko eta prozedurazkoa diseinatzen du, eta baliabideen optimizazioko eta kalitateko irizpideak baloratzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Irudien baliabidea, erreprodukzio-tamaina eta azken helburua zehaztu du, baita irudiak hartzeko gailuak hautatzeko beharrezko kalitate-parametroak ere.

b) Fotografiatu beharreko ikus-elementuak eta horien irisgarritasuna definitu ditu.

c) Argiztapenaren espresio-ezaugarriak zehaztu ditu, baita produktuaren ikus-estiloa lortzeko beharrezko argiaren mota eta kalitatea ere.

d) Proiektu fotografikorako egokiak diren argiztapen-eskemak zirriboratu ditu, eta, horretarako, argi-puntuen eta elementu osagarrien kokalekua eta funtzionaltasuna deskribatu du eta beharrezko ekipamenduaren zerrenda egin du.

e) Beharrezko ekipamendu eta material osagarriaren zerrenda egin du, hala nola atzealdeak, euskarriak, eskailerak edo aldamiok, dekoratuak eta islagailuak, besteak beste, balizko kontingentziak ebazteko.

3.– Eszenaratzea diseinatzen du, proiektu fotografikoen alderdi teknikoen, estetikoaren, komunikatiboen eta aurrekontuaren balorazioarekin lotuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Proiektu fotografikorako kokaleku egokia hautatu du, azpiegiturak, behar logistikoak eta produkzio-beharrekiko egokitzapena identifikatuta.

b) Pertsonaien ezaugarriak zehaztu ditu, eta, horretarako, modeloen eta antzezleen aurreikuspenen zerrenda egin du, casting-proba diseinatu du eta datuen txostenak eta egokitasunari buruzko ondorio artistikoak idatzi ditu.

c) Beharrezko makillaje, ile-apainketa eta karakterizazioko eragiketarako giza baliabide eta baliabide material egokien zerrenda egin du.

d) Dokumentu batean zehaztu ditu dekoratuak eta eszenografia, jantziak eta girotzea eraikitze beharrak, horrela giza baliabideak eta baliabide materialak aurreikusteko.

e) Dokumentu batean zehaztu ditu proiektua eszenaratzeko beharrezkoak diren efektu berezi fisikoen, kimikoen edo mekanikoen ezaugarriak eta tipologia.

f) Dokumentu batean zehaztu ditu irudien tratamendu digitaleko prozesuak –hartze-prozesuarekiko osagarriak–, eta parametro teknikoak eta espresiozkoak egokitzeko irizpideak ezarri ditu.

g) Proben monitorizazioko eta inprimazioko gailuen konfigurazioa definitu du, proben eta hartzeen berehalako balorazioa errazteko.

4.– Lan-plana eta proiektu fotografikoaren aurrekontua lantzen du, eta, horretarako, esku hartzen duten aldagai tekniko eta ekonomiko guztien integrazioa hartzen du aintzat eta baliabideak optimizatzeko irizpideak aplikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Produkzio fotografikoa egituratzeko eta koordinatzeko baliabideen prestasuna, gauzatzeko, hartzeko eta aginduak bidaltzeko epeak, desplazamenduak eta logistika kalkulatu du.

b) Lan-plana egin du, eta, horretarako, faseetako bakoitza eta taldekide bakoitzaren funtzioa zehaztu du eta produkzio fotografikoa gauzatzeko denboren aurreikuspenetarako eta optimizaziorako faseetako baldintzatzaileak eta denbora-erlazioa hartu du kontuan.

c) Lan-plana produkzio-orrietan eta lan-aginduetan banakatu du, eta horietan zehaztu du zer pertsona, material eta baliabide den beharrezkoa produkzio fotografikoaren une bakoitzean.

d) Produkzio fotografikoaren aurrekontu-kapitulua banakatu ditu, irudia hartzeko baldintzak eta hartualdian baliabideen denbora-erlazioa kontuan hartuta, betiere balorazio ekonomikoa egitera begira.

e) Proiektu fotografikoa martxan jartzeko kontratuen eta baimenen behar teknikoak eta administratiboak banakatu ditu.

f) Ereduzko enpresa fotografiko baten gastu orokorrak eta hainbat aginduren ebazpenean sortutako berariazko gastuak baloratu ditu, kostuen banakapena eta dagozkien aurrekontuetan duten aplikazioa zehaztuta.

5.– Enpresa fotografiko baten berezko baliabideak antolatzen ditu, eta ohikoenak diren agindu fotografikoen ezaugarriak prozesu estandarizatuarekin lotzen ditu, horien kudeaketa ezin hoberako.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Askotariko zerbitzu-kontratuak eta agindu fotografikoak landu ditu, eta honako alderdi hauek identifikatu ditu: horien zatiak, kontratuaren xedea, horren aginduzko klausulak, emateko modua, adostutako ordainsaria, eta ordaintzeko modua.

b) Hainbat kokalekutan beharrezkoak diren eskaerak idatzi ditu, produkzio fotografikoa egiteko beharrezko baimenak lortzeko.

c) Langileen, zerbitzuen, ekipamenduen, eta egile- eta irudi-eskubideen arloko kontratuak eta dokumentuak idatzi ditu, eta proiektu fotografikoen ebazpenean aplikatu ditu.

d) Probak baliozkotzeko kontratuak, emate-baldintzak eta produktuaren azken onarpeneko dokumentuak idatzi ditu, hainbat proiektu fotografikoren ebazpenean aplikatzeko eta proiektuaren plangintza errazteko.

e) Materialen, tresneriaren edo zerbitzuaren hornikuntzan jarraitu beharreko protokoloa definitu du –horiek eskuratzeko edo kontratatuzko-, eta baliabideen optimizazioa bilatu du.

f) Industria fotografikoan ohikoenak diren zerbitzuetako materialak eta tresneria erosteko, saltzeko eta alokatzeko baldintzak zehaztu ditu, eta enpresa fotografikoaren kudeaketan aplikatu ditu.

g) Enpresa fotografikoa sustatzeko eta harekin harremanetan erraz jartzeko eta errepresentatzeko dokumentu-zorroa diseinatu du.

B) Edukiak:

1.– Proiektu fotografiko baten diseinua egitea.

Baliabidea, aplikazio-formatua eta proiektu fotografikoa erakusteko moduak identifikatzea,

proiektuaren komunikazio-helburua eta -asmoa zehaztuta.

Produktu fotografikoaren ezaugarriak zehaztea, lortu nahi diren irudien itxura formala eta espresiozkoa zehaztuta.

Enkoadraketa eta konposizio mota hautatzea, hartze eta erregistro fotografikorako subjektuaren edo objektuaren ezaugarriak aintzat hartuta.

Banako erretratueterako, taldeko erretratueterako, haurren erretratueterako, eta abar teknikak eta estiloak aplikatzea.

Estudioaren barruan eta kanpoan lan egiteko moduak aztertzea.

Irudiak hartzeko tresneria zehaztea: konfigurazioa, maneiua eta kontrola.

Sekuentzia fotografikoa adierazten duen zirriborroa egitea, irudi multzoaren lotura formala eta estilo-lotura aztertzeko.

Prentsako fotografiako teknikak aplikatzea.

Konposizioa, egitura formala eta estetikoa eta komunikazio-asmoa adierazten duten argazkien zirriborroa egitea.

Girotzearen soluzioen eta estiloaren, dekoratuen eta atrezzoaren eskemak eta zirriborroak bilduko dituen dokumentua sortzea.

Agindu fotografikoaren akabera-baldintzak, moduak eta entrega-formatuak bilduko dituen dokumentua egitea.

Industria fotografikoa:

- Enpresa fotografikoen tipologia, ezaugarriak eta antolamendua.
- Produkzio fotografikoan inplikaturako zerbitzu osagarrien enpresen tipologia.

Estetika fotografikoa:

- Irudi fotografikoaren konposizioa.
- Argitalpen-formatua eta testuarekiko lotura.

Proiektu fotografikoa eta motak:

- Briefinga.

Produktu fotografikoa erabiltzeko, argitaratzeko eta erakusteko baliabideak eta formatuak.

Argazkilari profesionala.

Fotografia hedabideetan.

Produktu fotografikoa erabiltzeko, argitaratzeko eta erakusteko baliabideak eta formatuak.

Akabera eta aurkezpen fotografikoa.

Sailen arteko koordinaziorako prest egotea, jarduera profesionala behar bezala gauzatzeko.

Antolamendu-kezken gaineko adierazpenak egitea.

Burutu beharreko ekintzen sistematizaziorako prest egotea.

2.– Proiektu fotografikoaren gauzatze tekniko eta prozedurazkoa diseinatzea.

Irudien baliabidea, erreproduzio-tamaina eta azken helburua aplikatzea, baita irudiak hartzeko gailuak hautatzeko beharrezko kalitate-parametroak ere:

– Zuri-beltzeko eta koloreko hartzerako euskarri eta emultsio fotosentikorren eskakizunak egitea.

– Erregistro-materialen motak eta ezaugarriak identifikatzea.

Fotografiatu beharreko ikus-elementuak eta horien irisgarritasuna interpretatzea:

– Biltegiak eta laneko kopiak.

– Ustiapena eta merkaturatzea: teknikak eta estrategiak.

– Lanbide-kompetentziekin lotzen diren lanbideak: lanpostuak, lan-baldintzak, sarbide-eskakizun bereizgarriak.

Argiztapenean erabiltzen diren teknikak eta baliabideak aztertzea.

Proiektu fotografikorako egokiak diren argiztapen-eskemak aztertzea, eta, horretarako, argi-puntuen eta elementu osagarrien kokalekua eta funtzionaltasuna deskribatzea, eta beharrezko ekipamenduaren zerrenda egitea.

– Modelatzeko argiztapen teknikoak diseinatzea, prestatzea eta kontrolatzea.

– Lana egiteko beharrezko informazio teknikoak identifikatzea.

– Beharrezko ekipamendua ezartzea.

Beharrezko ekipamenduaren eta material osagarriaren zerrenda egitea.

Baliabide materialak eta teknikoak, produkzio fotografikoan:

– Hedabideak eta produktuen hartzaileak.

– Plangintza-teknikak.

– Produkzioaren plangintza.

– Antolamendu-metodoen analisia.

Kalitate fotografikoaren irizpideak eta parametroak:

– Kalitate-kontzeptua aztertzea.

– Helburuak.

– Produktibitatea.

Hartze fotografikoko gailuen ezaugarri teknikoak eta ekipamendu osagarria:

– Hartze-tresneria hautatzea, beharren arabera.

Argiztapena eta ikus-estiloa fotografian:

– Pinturaren eragina.

– Barrualdeko eta kanpoaldeko argiztapen- eta kontrol-teknikak.

Argitasunez, zorrotasunez, ordenaz eta zehaztasunez jardutea prozesu analitikoetan, deduktiboetan eta deskribatzaileetan.

Lan-metodo berriak onartzeko alde zuzeneko jarrera izatea.

Gainerako taldekideekiko aldeko jarrera izatea.

3.– Proiektu fotografikoaren eszenaratzea diseinatzea.

Proiektu fotografikorako kokaleku egokia planifikatzea, azpiegiturak, behar logistikoak eta produkzio-beharrekiko egokizapena identifikatuta.

Fotografian ohikoenak diren gaiak, helburuak eta beharrak identifikatzea.

Pertsonaien ezaugarriak zehaztea, eta, horretarako, modeloen eta antzezleen aurreikuspenen zerranda egitea, casting-proba diseinatzea eta datuen txostenak eta egokitasunari buruzko ondorio artistikoak idaztea.

Beharrezko makillaje, ile-apainketa eta karakterizazioko eragiketarako giza baliabide eta baliabide material egokien zerranda egitea.

Dokumentu batean zehaztea proiektua eszenaratzeko beharrezkoak diren efektu berezi fisikoen, kimikoen edo mekanikoen ezaugarriak eta tipologia.

Proben monitorizazioko eta inprimazioko gailuen konfigurazioa definitzea, proben eta hartzeen berehalako balorazioa errazteko.

Kokaleku fotografikoak.

Estilismo fotografikoa.

Makillajea, ile-apainketa eta karakterizazioa, fotografian.

Modeloak eta antzezleak hautatzeko prozesua edo casting-a.

Dekoratuak, eszenografia, jantziak eta girotzea eraikitzeke beharrak, horrela giza baliabideak eta baliabide materialak aurreikusteko.

Produkzio fotografikoko efektu bereziak.

Irudien tratamendu digitaleko prozesuak, hartze-prozesuarekiko osagarriak, eta parametro teknikoak eta espresiozkoak egokitzeko irizpideak ezarrita.

Tresneriari eta pertsonari buruzko segurtasun-arauak zorrotz aplikatzea.

Tresnak eta erremintak zuzen eta profesionaltasunez maneiatzea.

4.– Proiektu fotografikoaren lan plana eta aurrekontua egitea.

Baliabideak, gauzatze-peak, hartze-peak eta aginduen bidalketa sekuentziatzea.

Lan-plana egitea, faseetako bakoitza eta taldekide bakoitzaren funtzioa zehaztuta eta gauzatze-denboren optimizazioa kontuan izanik.

Lan-plana produkzio-orrietan eta lan-aginduetan lantzea.

Produkzio fotografikoaren aurrekontu-kapitulua hautatzea.

Proiektu fotografikoa martxan jartzeko kontratuen eta baimenen behar teknikoak eta administratiboak ikertzea.

Enpresa fotografiko baten gastu orokorrak baloratzea.

Produkzio fotografikoaren faseak eta antolamendua.

Produkzio fotografikoko tresneriaren funtzioak.

Produkzio fotografikoko zerbitzu osagarriak.

Produkzio fotografikoetarako aurrekontu-ereduen tipologia:

– Aurrekontu itxiak eta irekiak.

– Produkzio fotografikoaren aurrekontu-kapituluak.

Produktu eta zerbitzu fotografikoen tarifak.

Ikus-entzunezko produkzioaren barruan antolakuntza-kudeaketaren garrantzia baloratzea.

Antolamendu-kezken gaineko adierazpenak egitea.

Burutu beharreko ekintzen sistematizazioa eta sekuentziazioa.

5.– Enpresa fotografikoaren baliabideak antolatzea.

Hainbat motatako zerbitzu eta agindu fotografikoen kontratuak egitea.

Hainbat kokalekutan baimenak lortzeko beharrezkoak diren eskaerak idaztea.

Langileen, zerbitzuen, ekipamenduen, eta egile- eta irudi-eskubideen arloko kontratuak eta dokumentuak idaztea.

Probak baliozkotzeko kontratuak, emate-baldintzak eta produktuaren azken onarpeneko dokumentuak idaztea.

Materialen, tresneriaren edo zerbitzuaren hornikuntzan jarraitu beharreko protokoloa definitzea – horiek eskuratzeko edo kontratatzeko–, eta baliabideen optimizazioa bilatzea.

Industria fotografikoan ohikoenak diren zerbitzuen materialak eta tresneriak erosteko, saltzeko edo alokatzeko baldintzak zehaztea.

Enpresa fotografikoa sustatzeko eta harekin harremanetan erraz jartzeko eta errepresentatzeko dokumentu-zorroa egitea.

Proiektu fotografikoa abian jartzeko kontratuak, baimenak eta akreditazioak kudeatzea.

Produkzio fotografikora aplikatutako legeria:

- Egile-eskubideak eta obra fotografikoa ustiatzeko eskubideak.
- Fotografia hedabideetan erabiltzea.
- Jabetza intelektuala.
- Erreproduzio-kontrolak.
- Eskubide morala.
- Pertsonen eta jabetzen irudia erabiltzeko baimena.

Fotografiako laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia.

Fotografiako etika profesionala.

Enpresa fotografikoaren finantzaketa.

Material eta tresneria fotografikoaren erosketaren, salmentaren edo alokairuaren kudeaketa, eta zerbitzuen kontratazioa.

Produktuak hartzeko eta emateko prozeduren kudeaketa.

Estudio fotografikoa.

Enpresa fotografikoaren bezeroak sustatzeko eta bilatzeko orientazioak:

- Dokumentu-zorro fotografikoa.

Arretaz erabiltzea tresneria.

Erabakiak hartzeko autonomia izatea.

Ordena eta metodoa zaintzea eta kalitatearekiko interes berezia izatea.

Burutu beharreko ekintzen sistematizazioa eta sekuentziak.

7. lanbide-modulua: Hartze fotografikoa

Kodea: 1164

Kurtsoa: 2

Iraupena: 160 ordu

ECTS kredituetarako baliokidetzak: 11

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1.– Kamera eta elementu osagarriak prest jartzen ditu, muntatzen eta desmuntatzen ditu eta kokatzen ditu, eta tartean diren elementu teknologikoak eta planifikatutako hartzearen ezaugarriak lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Kamera, eranskinak eta tresneria osagarria muntatu du, funtzionamendu egokia bermatuta.

b) Kamera euskarriaren gainean jarri du, eta kamera egonkor eta eutsita dagoela ziurtatu du, baita norabide guztietara biratzeko aukera duela ere.

c) Hartze fotografikoko gailu digitala eta berariazko informatika-tresneria konektatu ditu, operatibotasun egokia ziurtatuta.

d) Euskarri berezien, aldamioren eta energia elektrikoko sorgailuen instalazioa eta doikuntza egiaztatu du, egonkortasun, tentsio eta intentsitate elektrikoa berraztertuta.

e) Sinkronizatu egin ditu distirako argiztapen-tresneria eta kamera, kable bidezko edo haririk gabeko konexio-sistemak baliatuta.

f) Kameraren, eranskinen, argiztapen-tresneriaren eta tresneria osagarriaren garbitasun- eta funtzionalitate-egoera egiaztatu du, baita horien funtzionamendua ere, irudia hartu aurretik.

g) Kamera-tresneria, eranskinak eta irudiak eta babeskopiak biltegitartzeko gailu digitalak desmuntatu ditu, eta behar bezala egokitu ditu, datuak ezbeharrez galtzea saihesteko eta kontserbazio- eta garraio-baldintza egokiak bermatzeko.

h) Kamera eta tresneria osagarriak egokitu eta enbalatu ditu, eta, eginkizun horretan, garraioa kontserbazio egokia bermatzeko moduan egiten dela ziurtatu du eta laneko arriskuen prebentzioaren arloko neurriak hartu ditu aintzat.

2.– Esposizioaren kontrol-prozesua egiten du, kameraren esposimetroa eta kanpoko neurgailuak erabilia, eta bereizi egiten ditu etengabeko argiko tresneriarekin eta argi eteneko tresneriarekin neurtzeko teknikak, baita horiek esposizio-balioetan duten eragina ere.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Argiztapenaren irakurketak egin ditu hainbat neurketa-gailurekin, eta argiek irudian sortzen dituzten efektuak baloratu ditu, betiere esposio-efektu jakin bat lortzeko.

b) Argia neurtzeko teknikak eta prozesuak aplikatu ditu (intzidentea eta islatua), eta irudia hartzeko unean emaitza ezin hobea ematea kontuan hartu du.

c) Etengabeko argi bidezko eta flash bidezko argiztapen mistoari dagokion esposizioaren kontrola egin du, hainbat argiren esposizioaren kalkulua eta neurketa aintzat hartuta.

d) Kameraren esposizioaren neurketa- eta kontrol-parametroak doitu ditu, irudiaren eskakizun teknikoak eta esposiozkoak kontuan hartuta.

e) Argiaren kolore-tenperaturen arteko lotura-arazoak ebatzi ditu, argi-iturrietan iragazki bihurkariak aplikatuta edo kamerako konfigurazio-parametroetan jardunda.

3.– Hartze fotografikoa egiten du, irizpide teknikoak, estetikoak, komunikaziozkoak eta konposiziozkoak aplikatuta eta prozesuaren azken emaitzak baloratuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Irudiak hartzeko gailuaren eta sistema optikoaren parametro teknikoak konfiguratu ditu, eta, horretarako, kameraren menuetan eta kontroletan jardun du eta fotografiatuko den eszenan dagozkion probak egin ditu.

b) Enkoadraketa eta konposizioa egin du, perspektiba, eszenografia, estilismoa eta argiztapena aintzat hartuta eta nahi ez diren efektuak gertatzen ez direla egiaztatuta.

c) Hartzearen probak egin ditu, hainbat obturazio-denbora erabilia, eta irudian sortzen den mugimendu-sentsazioko efektuekin lotu ditu.

d) Kamerak irudien sekuentzia hartzeko modua konfiguratu du, eta, beharrezkoa izanez gero, kliskagailu modua doitu du.

e) Irudia fokuratu du, fotografiatu beharreko egoeraren arabera egokienak diren autofokuratzeko moduak eta sistemak aplikatuta.

f) Hartutako irudia ebaluatu du, eta, eginkizun horretan, irudiaren parametro teknikoak, estetikoak, komunikaziozkoak eta konposiziozkoak baloratu ditu eta beharrezko zuzenketak zehaztu ditu.

g) Irudiak biltegitratzean, kanpoko gailu batera pasa ditu irudiak eta babeskopia egin du.

4.– Erretratu eta modako proiektuetan hartze fotografikoa egiten du, irizpide estetikoak, komunikaziozkoak eta konposiziozkoak aplikatuta eta modeloaren espresio- eta interpretazio-kualitateak sustatzea baloratuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Erretratu batean irudia hartzea baldintzatzen duten irizpide estetikoak, komunikaziozkoak eta konposiziozkoak aztertu ditu, baita argiztapena ere, estiloak eta joerak baloratuta.

b) Erretratuko eta modako fotografia-proiektu baten eszenaratzea prestatu du, eta, horretarako, dekoratua eraiki du edo atzealdea aukeratu du, kanpoaldeko edo barrualdeko eszenografia egokitu du eta espazio jakin batean ekintza-eremua hautatu du, betiere fotografiatu beharreko jantzien edo osagarrien salmenta kontuan hartuta.

c) Atzealdeak eta argiztapena egokitu ditu, fotografiatu beharreko tonalitatea, ehundura, argitasuna eta formak kontuan izanik.

d) Erretratuko eta modako proiektu fotografikoa egiteko kokaleku egokiak kudeatu ditu, eta, zeregin horretan, zerbitzu osagarriak, logistika eta beharrezko desplazamenduak antolatu ditu eta aginduzko baimenak eta akreditazioak eskuratu direla egiaztatu du.

e) Proiektuaren dokumentazioan aurrez definitutako komunikazio-helburuak lortzeko modeloen edo antzezleen probak eta entseguak egin ditu.

f) Estilismoa (jantziak, makillajea, karakterizazioa eta ile-apainketa) argiztapenarekin eta proiektuaren dokumentazioan aurrez definitutako eskakizunekin bat datorrela gainbegiratu du.

g) Modako erretratu bat egin du, modeloaren espresibitatea aintzat hartuta, betiere fotografiatu beharreko linearen estilo-helburuen arabera. Horretarako, une egokia hautatu du interpretazio-kualitateak ahalik eta gehien aprobetxatzeko, eta irizpide teknikoak, estetikoak eta konposiziozkoak hartu ditu kontuan.

h) Gizarte-erretratu bat egin du, subjektuaren ezaugarriak adierazgarrienak nabarmenduta eta gizarte- eta konposizio-testuinguruan kokatuta.

i) Erretratua hartzea ebaluatu du, eta, horretarako, modeloaren espresibitate-efektua, espazioaren testuinguruan kokatzeko modua eta proiektuaren helburuetarako egokitzapena baloratu du.

5.– Erreportaje-proiektuetan hartze fotografikoa egiten du, eta, eginkizun horretan, berariazko tratamendu baten aplikazioa hartzen du aintzat, irudi-multzo gisa, eta gaia ezaugarrituko duen zentzu pertsonala ematen dio.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Erreportajearen gaia, ezaugarriak eta tratamendua definitu ditu, zentzu osoa duten irudien multzo gisa ulertuta eta irudi pertsonala gaineratuta.

b) Erreportajeko proiektu fotografikoa egiteko kokaleku egokiak kudeatu ditu, horietarako sarbideak prestatu ditu eta bidezko baimenak eta akreditazioak lortu direla egiaztatu du.

c) Kanpoalde edo barrualde natural baten egokitzapen eszenografikoko prozesua egin du, fotografiatuko den ekintza non gertatuko den hautatuta.

d) Kazetaritzaren edo dokumentalen arloko erreportaje baterako irudiak hartu ditu, hedabide batean argitara emango den nolabaiteko gaurkotasuna eta interesa duen gaia ilustratzeko.

e) Ekintzako eta kiroletako erreportaje baterako irudiak hartu ditu, mugimenduan diren subjektuen edo ekintzen funtsezko unea jasota eta ekitaldiaren barruan duen testuinguruarekin lotuta.

f) Paisaia-erreportaje baterako irudiak hartu ditu, espazioaren estetika nabarmenduko duten konposiziozko eta sormeneko teknikak aplikatuta.

g) Arkitekturako proiektu fotografiko batean, perspektiba irudikatze arazoak ebatzi ditu, kamera teknikoaren berezko mugimenduak aplikatuta eta distorsioak eta buletak saihesteko beharrezko zuzenketak eginda.

h) Erreportajerako irudiak hartzearen emaitza ebaluatu du, eta, horretarako, irudi bakoitzaren eduki estetikoa, espresiozkoa eta komunikaziozkoa baloratu du eta osotasunari zentzu osoa emateko egokienak hautatu ditu.

6.– Natura hileko eta publizitateko proiektuetarako hartze fotografikoa egiten du, eszenografia eraikitzen du eta hainbat objektutarako berariazko argiztapen eta konposiziozko tekniken aplikazioa irudiaren zentzu estetiko eta komunikaziozkoa sortzearekin lotzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Natura hileko fotografia-proiektu bat eszenaratu du, estudio batean eszenografia eraikita eta gainbegiratuta –irudiaren analisi estetiko eta formala abiapuntu izanik–.

b) Dekoratuak muntatzeko eta desmuntatzeko lanak antolatu ditu, laneko arriskuen prebentzioaren eta segurtasunaren arloan indarrean dagoen araudia aplikatuta.

c) Atzealdeak eta tamaina egokitu ditu, tonalitatea, ehundura, argitasuna eta formak kontuan hartuta, betiere proiektuaren ezaugarri teknikoetan eta artistikoetan oinarrituta.

d) Irudia hartu ondoren, tratamendu digitalaren mende izan daitezkeen dekoratuaren edo kokalekuaren elementuak zehaztu ditu.

e) Hainbat material, ehundura eta koloretako objektuak dituen publizitateko natura hilaren irudia hartu du, irudiari zentzu estetiko eta komunikaziozkoa emango dioten argiztapeneko eta islapenen kontrolerako berariazko teknikak aplikatuta.

f) Dimentsio txikiko elementuen hartze fotografikoa egin du, makrofotografiako tekniken bidez, berariazko argiztapen teknikak aplikatuta eta hurbiltze-eranskinak erabilia.

g) Jatorrizko dokumentuen eta arte-lanen erreproduzio fotografikoa egin du, berariazko argiztapen teknikak aplikatuta eta eranskin eta teknologiarik egokienak erabilia.

h) Hartutako irudia ebaluatu du, eta, horretarako, enkoadraketaren barruan elementuen antolamendua egiaztatu du eta proiektuaren komunikazio-helburura egokitzen den baloratu du.

B) Edukiak:

1.– Kamera fotografikoa eta tresneria osagarria prest jartzea, muntatzea, desmuntatzea eta kokatzea.

Kamera-tresneria, eranskinak, argiztapen-tresneria eta tresneria osagarria prestatzea:

– Kamera-tresneriaren, eranskinen, argiztapen-tresneriaren eta tresneria osagarriaren garbitasuna egiaztatzea.

– Kamera, eranskinak eta tresneria osagarriak haien euskarrian muntatzeko eta kokatzeko lanak egitea.

– Kamera-tresneriaren, eranskinen, argiztapen-tresneriaren eta tresneria osagarriaren funtzionaltasuna egiaztatzea.

Kamera-tresneria, eranskinak, argiztapen-tresneria eta tresneria osagarria konfiguratzeko eta prest jartzea:

– Hartze fotografikoko gailu digitalen eta informatika-tresneriaren konexioak egitea.

– Tresneriaren instalazioa eta funtzionamendua egiaztatzea (kamera, eranskinak, osagarriak, argiztapena, informatikoak).

– Euskarri bereziak doitzea.

Energia elektrikoko sorgailuak berraztertzea:

– Distirako argiztapen-tresneria eta kamera kable bidez sinkronizatzea.

– Distirako argiztapen-tresneria eta kamera haririk gabe sinkronizatzea.

Kamera-tresneria, eranskinak, irudiak biltegitratzeko gailu digitalak eta babeskopiak desmuntatzea.

Laneko arriskuen prebentzioari buruzko neurriak zehaztea.

Kamera fotografikoetako euskarriak: motak eta aplikazioak.

Kamera-euskarriaren funtzionamendua:

Hartze fotografikoko gailu digitalen eta informatika-tresneriaren konexioak egitea. Funtzionaltasuna:

– Diagrama logikoak eta multzo-diagramak.

Kamera fotografikoa eta distirako argiztapen-tresneria sinkronizatzeko teknikak:

– Plano fokaleko eta zentraleko obturaziorako sinkronizazio moduak:

Lehen gortinako sinkronizazioa.

Bigarren gortinako sinkronizazioa.

FPko sinkronizazioa.

- Kable bidezko sinkronizazioa.
- Fotozelula bidezko sinkronizazioa.
- IR eta RX bidezko sinkronizazioa.
- Kontroladore bidezko sinkronizazioa.

Kameraren, argiztapen-tresneriaren eta tresneria osagarriaren mantentze-lanak eta garbiketa:

- Prozedurak/metodoak.
- Materialak.
- Ingurumen-faktoreak.

Kamera fotografikoko tresneriaren eta horien eranskinen garraio-sistemak:

- Garraio-materialak.
- Zama-metodoak.
- Jarrera-higienea eta arriskuen prebentzioko neurriak.

Kameraren, argiztapen-tresneriaren eta tresneria osagarriaren funtzionaltasuna eta garbitasuna mantentzea.

Kamera-tresneria, eranskinak, euskarri-materialak, argiztapen-tresneria eta irudiak biltegitratzeko gailu digitalak muntatzean, desmuntatzean, garraiatzean eta maneiitzean jarrera-higieneko eta prebentzioko neurriak errespetatzea.

Merkatuan eskaintzen diren tresneria eta osagarrietan teknologiak etengabe eguneratzeko jarrera izatea.

2.– Esposizio fotografikoaren kontrol prozesua egitea.

Argi intzidenteko eta islatuko neurketa-teknikak aplikatzea:

- Batez besteko maila zehaztea.
- Iturri baten maila zehaztea.
- Argiztapen-contrastea zehaztea.
- Batez besteko sistemak.
- Sistema matrizialak.
- Preponderantzia zentralako sistemak.
- Neurketa puntualeko metodoak:

Gris tonalitatean, % 18.

Gako-tonalitatean.

Tonalitate zurian.

Tonalitate beltzetan.

Bi tonalitatetako kontrasteen.

Hiru tonalitatetan.

Tonalitate-gamaren tartea zehaztea.

Zona-sistema aplikatzea.

Esposizioa zehazteko teknikak aplikatzea:

- Etengabeko argiarekin.
- Deskarga-lanpararen esposizioaren errendimendua.
- Flash-arekin.
- Argiztapen mistoarekin (giroa eta flash-a).
- Distira anitzekin.

Argiarekin marrazteko teknikak aplikatzea:

- Argiarekin marraztea.
- Argi ibiltaria.

Argiaren neurketako gailuak.

Argi intzidenteko, argi islatuko eta puntualeko neurketa-teknikak.

Esposizio-balioa zehazteko kalkuluak.

Etengabeko argiak eta flash-ak osatutako argiztapen mistoko esposizioa kontrolatzeko teknikak:

- Flash motak.
- Flash-eranskinak.
- Flash errebotatuko teknika.
- Flash zuzenduaren edo TTLaren funtzionamendua.
- Flash-aren argi bidezko esposizioaren kalkulua.
- Etengabeko argiko eta flash-argiko konbinazio-teknikak.

Hainbat kolore-tenperaturak konposizioan duten lotura.

Flash-aren obturazioko eta distirako diafragma/denbora erlazio ezin hobea.

Kameraren esposizioaren neurketa- eta kontrol-teknikak.

Kameran flash-aren esposizioa kontrolatzea.

Potentziako urrutiko kontrola duen flash anitzeko sistema.

Lan egiteko modu automatikoetan, kamerako eta flash-eko gainesposizioa edo azpiesposizioa doitzeko eta kontrolatzeko teknikak.

- Esposizioko konpentsazioa.
- Kalkulu-metodoak.
- Doitzeko sistemak eta metodoak.

Flash bidezko esposizioaren kontrol-teknika bereziak:

- Distira anitzeko diaframatzea.
- Eszena handiko argiztapena, esposizioko aldi luzeak eta flash-argia duten eszena handiak argizatzea (argiarekin marraztea):

Argi-pistola komertzialak.

Zuntz optikoko sistemak.

Flash konbentzionaleko tresneriaren egokitzapena.

Txukuntasunez doitzea eta konfiguratzea tresneria.

Pentsamendu deduktiboa eta jarrera proaktiboa izatea esposizioari buruzko erabakiak hartzean.

Materialaren txukuntasuna eta antolamendua mantentzea eta haren etengabeko operatibotasuna zaintzea, bateriak eta elikadura-iturriak barne.

3.– Hartze fotografikoa egitea.

Fokuratzeko teknikak aplikatzea:

- Hautemate bidezko eskuzko fokuratzea.
- Lagundutako eskuzko fokuratzea.
- Autofokuratze pasiboa.
- Autofokuratze aktiboa.
- Autofokuratze dinamiko etengabea.

Hartze fotografikoak egitea:

- Enkoadraketako hainbat metodorekin.
- Hainbat ekortze-efektuekin eta mugimenduaren argitasunarekin.
- Hainbat perspektibarekin eta hierarkizazio espazialekin.
- Hainbat eremu-sakonerarekin, fokuratze selektiboa kontrolatuta.

– Iraupen luzeko esposizioekin eta zarata murrizteko teknikekin.

Hartze fotografikoak egitea:

- Eskuz.
- Denborari lehentasuna emanda.
- Irekidurari lehentasuna emanda.
- Programa anitzeko moduan.

Fotografien transferentziak edo iraulketak egitea:

- Sistemako nabigatzailearen bidez.
- Transferentziako softwarearen bidez.
- Irudien kudeaketako suitearen bidez.
- Hartzeko suitearen bidez.

Hargailuaren parametro teknikoen konfigurazio-sistemak:

- Kamera fotografikoko formatuak.
- Kamera fotografikoaren kontrol-parametroak.
- Kolore-espazioak.
- Profilak sortzeko kolore sortak.
- Kameran kolore-tenperatura kontrolatzeko teknikak.

Obturazio-denborak eta mugimenduaren efektua irudian.

Ikuspuntua, fokuratze-distantzia eta perspektiba.

Eremu-sakonera eta konposizioaren argitasuna kontrolatzeko teknikak.

Irudia hartzean kliskatzeko modalitateak:

- Irudia hartzeko softwarea eta kameraren kontrola.

Esposizio-teknikak, esposizio-denbora luzeekin.

Fokuratzearen teknika.

Hartze fotografikoaren ebaluazioa.

Irudien transferentzia, kanpoko biltegiratzeko gailuetara:

- Aplikazioak.
- Interfazeak.

Merkatuan eskaintzen diren hartze fotografikoaren arloko metodoen eta tekniken esparruan etengabe eguneratzeko jarrera izatea.

Txukuntasunez eta arretaz erabiltzea elementu optikoak.

Txukuntasunez zaintzea kameraren konfigurazioak.

Txukuntasunez eta metodologiaz kudeatzea sortzen diren irudiak.

Tresneriarekin lan egiteko metodologia mantentzea.

4.– Erretratu eta modako proiektuetan hartze fotografikoa egitea.

Erretraturako eta modarako eszenaratzea prestatzea:

– Emankizunean.

– Barnealde eta kanpoalde naturaletan.

Casting-a eta kamera-probak egitea.

Sekzioak prestatzea eta antolatzea.

Argiztapen-teknikak aplikatzea eta doitzea:

– Erretraturako.

– Modarako.

Moda-saioak egitea.

Gizarte-erretratua egitea.

Irizpide estetikoak, komunikaziozkoak eta konposiziozkoak erretratua hartzean:

– Erretratuko konposizio-teknikak.

– Elementuen hierarkizazioa enkoadraketan.

– Interesguneak.

Erretratuko eta modako fotografiaren estiloak, bilakaera eta joerak:

– Erretratuko eta modako fotografiaren historia.

– Estilo fotografikoek mugimendu artistikoekin eta erretratu fotografikoko egileekin duten lotura.

Erretratuko eta modako fotografiaren gaur egungo estiloak eta joerak.

Erretratuko fotografiaren eszenaratzea:

– Barrualde eta kanpoalde naturaletako erretratua.

– Studioko erretratua.

Kokalekuak: erretratuko eta modako irudia hartzeko baimenak eta akreditazioak izapidetzeko eta lortzeko kudeaketa.

Estilismoa erretratuan:

Jantziak, makillajea, karakterizazioa eta ile-apainketa erretratuan.

Erretratuko eta modako fotografian argiztatzeko teknikak.

Erretraturako flash anularra erabiltzeko teknikak.

Erretratuko fotografiako generoak.

Modako fotografiako generoak.

Subjektu baten ezaugarri fisionomikoak, nortasunekoak eta inguruneak aztertzea.

Erretratuko eta modako proiektuetan irudiak hartzea ebaluatzeko teknikak.

Erretratuko eta modako prozedura teknikoak errespetatzea.

Proposamen tekniko-estilistiko berrietara zabaltzeko eta beste soluzio batzuk bilatzeko jarrera irekia izatea.

Arretaz erabiltzea estudioko tresneria.

5.– Erreportajeko proiektuetan hartze fotografikoa egitea.

Kazetaritzako eta dokumentaletako argazki-erreportajea egitea:

– Behin-behineko erabilera eszenografikorako inguruneak egokitzea eta hautatzea.

Kiroletako edo ekintzako erreportajea egitea.

Paisaiako edo bidaiako erreportajea egitea.

Perspektiba kontrolatzeko teknikak aplikatzea:

– Hartze arkitektonikoak egitea.

Erreportaje fotografikoaren gaiak, ezaugarriak eta motiboak: komunikazio-helburuak.

Erreportaje fotografikoaren tratamendua eta egitura.

Erreportajeko fotografiaren estiloak, bilakaera eta joerak.

Fotografia dokumentaleko teknikak.

Erreportajeko fotografien hartzaileak.

Iturri dokumentalak eta informazio-bideak erreportajeko fotografian.

Hedabide bateko fotografia-saila.

CV – Agentzia fotografikoak.

Epe luzerako erreportaje dokumentaleko proiektu fotografikoak.

Kokalekuak: erreportaje-proiektuetako irudia hartzeko baimenak eta akreditazioak izapidetzeko eta lortzeko kudeaketa.

Erreportaje-fotografiako eszenaratzea.

Erreportaje fotografikoko motak eta generoak.

Kamera teknikoarekin perspektiba zuzentzeko irizpideak eta teknikak. Arkitekturako fotografiaren teknikak.

Itsaspeko fotografiako erreportajearen berariazko teknika eta teknologia.

Naturako fotografiako erreportajearen berariazko teknika eta teknologia:

– Landareen fotografiarako teknikak:

UV teknikak.

– Animalien fotografiarako teknikak:

Ehiza fotografikoa.

Zelatan egindako fotografia.

Erreportaje-proiektuetan hartze fotografikoa ebaluatzeko irizpideak.

Itsaspeko fotografian, naturan, arkitekturan eta erreportajeetan erabilitako metodoak eta teknikak etengabe eguneratzeko jarrera izatea.

Erreportajeak egiteko erabiltzen diren behin-behineko inguruneak zaintzea.

Txukuntasunez eta irizpidez aplikatzea kamera-mugimenduak hartze arkitektonikoetarako.

Txukuntasunez eta metodologiaz kudeatzea erreportajeak eta bildumak.

6.– Natura hileko eta publizitateko proiektuetan hartze fotografikoa egitea.

Makrofotografiako edo mikrofotografiako teknikak aplikatzea:

– Eremu distiratsuko argiztapenarekin.

– Eremu iluneko argiztapenarekin.

– Modelatze-argiztapenarekin.

– Argiztapen anularrarekin.

– Ziluetatze-argiztapenarekin.

– Argi polarizatuko argiztapenarekin.

Honako elementu hauek eszenaratzea, argizatzea eta fotografiak hartzea:

– Beirazko produktuak (edariak, lurrinak, beirateria,...).

– Produktu kromatuak edo metal leundukoak (erremintak, mahai-tresnak, sukaldeko ontziteria, bitxigintza, osagarriak, ibilgailuak, industria-materialak,...).

– Material sintetikoko produktuak (etxetresna elektriko txikiak, lanparak, bulegoko materiala, ontziak, jostailuak, eranskinak, edukiontziak, industria piezak,...).

– Zurezko edo ehunezko produktuak (altzariak, sukaldeko materialak, idazmahaiko materialak, irudiak, tailuak,...).

Erreprografiako teknikak aplikatzea:

- Argiztapen islatua.
- Argiztapen polarizatua.
- Argiztapen transmititua.

Estudio fotografikoa.

Natura hileko eta fotografiako proiektuak eszenaratzeko teknikak.

Dekoratuen muntaia eta desmuntaia.

Atzealde fotografikoak: atzealdeen eta tamainen egokitzapena, tonalitatearen, ehunduraren, argitasunaren eta formen arabera.

Akatsak zuzentzeko eta dekoratua aldatzeko tratamendu digitaleko prozedurak.

Hainbat materialetako, ehunduretako eta koloretako argiztapenerako eta konposiziorako berariazko teknikak:

- Beira.
- Kromatuak.
- Sintetikoak.
- Zurak.
- Ehundurak.
- Papera/kartoia.

Dimensio txikiko elementuetarako hartze eta argiztapeneko berariazko teknikak:

- Hurbiltzeko eranskinak.
- Fotomakrografia: teknikak eta aplikazioak:

Konfigurazioak.

Argiztapen-teknikak.

- Fotomikrografia: teknikak eta aplikazioak:

Konfigurazioak.

Argiztapen-teknikak.

Jatorrizko dokumentuen eta arte-lanen erreproduzio fotografikoko teknikak.

Jatorrizko dokumentuak eta arte-lanak erreproduzitzeko berariazko argiztapen teknikak:

- Jatorrizko opakuetarako teknikak.
- Jatorrizko gardenetarako edo zeharrargietarako teknikak.

Publizitateko fotografian, hurbilketakoan eta erreprodukzioetan erabiltzen diren metodoen eta tekniken arloan etengabe eguneratzeko jarrera izatea.

Txukuntasunez egitea estudioko muntaia eta instalazio iragankorrak.

Errespetua eta txukuntasuna zaintzea prozedurekin lotzen diren berriazko tekniketari.

8. lanbide-modulua: Tratamendu fotografiko digitala

Kodea: 1165

Kurtsoa: 1

Iraupena: 198 ordu

ECTS kredituetarako baliokidetzak: 9

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1.– Irudien tratamenduko eta digitalizazioko prozesuetan erabiltzen diren eskanerrak, informatika-tresneria, kalibragailuak eta periferikoak mantentzeko eta kontrolatzeko eragiketak eta prozesuak egiten ditu, eta horien egoera eta operatibotasuna emaitza ezin hobek lortzearekin lotzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Informatika-tresneriaren eta eskaneatzeko tresneriaren arteko konexioak egin ditu, zuzenean edo tresneria lotzeko informatika-sare baten bitartez.

b) Informatika-tresneriaren, eskanerren eta kalibragailuen funtzionamendu-arauak definitu ditu, baita horien erabilera zuzena eta emaitzen egonkortasuna bermatzeko baliagarriak izango diren lan-prozedurak ere.

c) Irudiak modu arinean, egonkorrean eta fidagarrian prozesatzeko aukera emango duten lan-baldintza egokiak lortzeko beharrezkoak diren informatika-tresnerien potentziako gutxienezko eskakizunak, prestazioak eta ezaugarriak definitu ditu.

d) Eskaneatzeko eta bistartzeko gailuen eta tresnerien aurrezko kalibrazioa egin du, lortutako emaitzak behin eta berriz errepikatzea bermatzeko duen erantzunetako fidagarritasuna lortzeko.

e) Eskanerrak, informatika-tresneria eta periferikoak mantentzeko, garbitzeko eta prest jartzeko prozedurak aplikatu ditu, eta, horretarako, aparatuen fabrikatzailearen jarraibideak bete ditu eta horrek ezarritako maiztasunarekin egin du, betiere emaitzen kalitatea eta eraginkortasuna ziurtatzeko.

f) Irudiak digitalizatzeko eta tratatzeko prozesuan erabilgarriak lan-tresneria manipulatzeko eta maneiatzeko, kalitate, segurtasun, osasun eta ingurumen-babeseko arauak eta estandarrak aplikatu ditu.

2.– Gailu digitalizatzaileetan, monitoreetan eta irudia tratatzeko programetan, koloreen kudeaketa ziurtatzeko eta mantentzeko prozedurak egiten ditu, eta, horretarako, produkzio-prozesuan, kolorearen koherentzia eta mantentzea baloratzen du eta, hasierako koloreei dagokienez, fidagarriak eta egokiak diren emaitzak lortzearekin lotzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Monitorea berriazko aplikazioaren bidez kalibratu du, prozedura teknikoan ezarritako jarraibideen arabera, eta, hala, luminantzia-ezaugarriak eta gailuan duen tolerantzia zehaztu du, distira eta kontrastea doitu ditu eta kolore-tenperatura eta -gama aurrefinkatu du, baldintza normalizatu behartu ostean.

b) Monitorea prozedura teknikoan ezarritako jarraibideen arabera ezaugarritu du, berriazko informatika-aplikazioaren eta neurketa-tresna egokien bitartez, eta lortutako emaitza sistema

eragilean biltegitatu du eta erabiltzen diren informatika-aplikazioetarako aktibo mantendu du.

c) Gailu digitalizataileak prozedura teknikoan ezarritako jarraibideen arabera kalibratu ditu – betiere fabrikatzaileak bere patroien edo iragarkien bidez ezarritako prozesuei jarraituta–, eta horiek kontrolatzen dituzten softwarearen aukeren gainean jardun du.

d) Gailu digitalizatailea prozedura teknikoan ezarritako jarraibideen arabera ezaugarritu du, berariazko aplikazioak erabilia eta kolore-karta edo garatutako patroia estandarra aurrez finkatutako baldintzetan digitalizatuta.

e) Irudiaren tratamendu digitalerako berariazko informatika-programan, kolorearen kudeaketa konfiguratu du, eta, horretarako, irudia tratatzeko prozesuan, kolorearen kalitate eta leialtasun egokia mantentzeko parametrorik egokienak hautatu ditu.

f) Fotografian oinarrituta edo kolore-kartaren irudi eskaneatuan oinarrituta egin ditu kolore-probak. Eginkizun horretan, prozesu osoa aplikatu du, eta emaitza eta jatorrizkoa alderatu ditu, beharrezko zuzenketak egiteko.

3.– Irudiak digitalizatzen ditu, eta horretarako, eskaneatzeko sistemekin eta tresneriarekin egiten du lan eta jatorrizkoaren ezaugarrien, jasan ditzakeen tarteko tratamenduen eta irudi digitalizatuaren azken xedearen artean ezartzen diren loturak baloratzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Jatorrizkoen garbiketa egin du, irudien euskarri diren beharrak eta ezaugarriak kontuan izanik, horiek gardenak edo opakuak izanda ere.

b) Digitalizatzeko prestatu ditu jatorrizkoak, eta, horretarako, enkoadraketak, ebaketak, zabaltzeko/murrizteko faktoreak eta gainerako indikazioak finkatu ditu eta horien ezaugarriak kontuan hartu ditu, baita digitalizazio-tresneriaren ezaugarriak eta eskatutako produktuaren ezaugarri teknikoak ere.

c) Gailu digitalizatailea bere ezaugarrien arabera garbitu eta prestatu du, eskaneatze zuzenerako beharrezko parametro guztiak konfiguratuta.

d) Irudietan kolorea kontrolatzeko prozedurak aplikatu ditu, kolore-espazioak, gailu digitalizatailearen erantzun bereizgarria eta tratamendua zehaztuta –euskarriaren eta jatorrizko kolorearen arabera–, eta kolorearen amaierako erreprodukzio zuzenerako profil egokiak hautatuta.

e) Eskaneatzeko parametroak konfiguratu ditu, eta, horretarako, enkoadraketa, tamaina, ebazpena, sakonera eta kolore modua produkzio-prozesuaren beharren arabera doitu ditu eta eskatutako amaierako fitxategiaren ezaugarri teknikoak kontuan hartu ditu.

f) Irudiak pantailan bertan egiaztatu ditu, haien kalitatea baloratzeko. Hala, lortutako emaitzan izan daitezkeen desbideratzeak edo akatsak hauteman ditu eta, behar izanez gero, neurri zuzentzaileak proposatu ditu.

g) Irudiak fitxategi-formatu egokian biltegitatu ditu, lan-fluxuan integratzeko, betiere gomendio teknikoaren eta ezarritako kalitate-parametroen arabera.

4.– Tratamendu digitala egiten du, batez ere irudien doikuntza eta optimizazioa, eta, zeregin horretan, informatika-programak aplikatzen ditu, azken produktuaren beharretara egokitzen den baloratzen du eta emandako jarraibide teknikoetara egokitzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Esposizioaren, mailen, kurben eta kontrasteen arloko transformazioak egin ditu, besteak beste, teknikarik eta erremintarik egokienak aplikatuta eta azken produktuaren eskakizunen arabera.

b) Jatorrizkoaren kolore-zuzenketak eta transformazioak egin ditu, kasuak kasu egokienak diren erremintak aplikatuta, betiere azken emaitzaren eskakizunen arabera.

c) Akatsak, erroreak, ezpurutasunak eta elementu ez desiragarriak ezabatu ditu ukitu-erremintekin, azken emaitzaren kalitatea eta itxura hobetuz.

d) Pikor eta zarata digitala ezabatu du, lortu nahi den kalitatea erdiesteko erremintarik eta teknikarik egokienak aplikatuta.

e) Lentea zuzentzeko doikuntzak egin ditu, lortu nahi den kalitateko eta itxurako emaitzak erdiesteko erremintarik eta teknikarik egokienak aplikatuta.

f) Behar bezain irudi garbia lortzeko beharrezko fokuratze-maskarak aplikatu ditu azken irudian.

g) Irudiak biltegiratu ditu eta, horretarako, kasuak kasu egokienak diren irudi-formatuak erabili ditu eta oraindik manipulatu edo tratatu behar diren tarteko irudiak edo behin betiko azken irudiak diren hartu du kontuan.

5.– Irudi digitalen muntaiak egiten ditu eta, zeregin horretan, informatika-tresna egokiak aplikatzen ditu eta aurreko maketaren edo zirriborroaren doikuntzaren garrantzia hartzen du kontuan, fusio leunak eta hautemanezinak lortzeko.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Fotomuntaiarako beharrezko irudiak bildu eta sailkatu ditu, eta horien ezaugarri teknikoak eta aurretiazko zirriborroan edo maketan definitutako muntaiaren berezitasunak hartu ditu kontuan.

b) Muntaia egiteko irudiak hautatu ditu eta haien artean harmoniako, naturaltasuneko eta kolorearen orekako kalitate egokiak mantentzen dituzten egiaztatu du.

c) Irudiak berariazko moduan tratatu ditu, muntaiarako beharrezko bereizgarritasun teknikoetara egokituta (dimentsioak, bereizmena, enkoadraketak, fitxategi-formatuak, moduak eta kolore-profilak, besteak beste).

d) Beharrezko maskarak, ebaketak, aukeraketak eta trazadurak egin ditu, fusio-beharren araberako irizpide teknikoak aplikatuta.

e) Fusioa modu leun eta hautemanezinean egin du, mailakatze sakonak ezabatu ditu, argiak eta itzalak parekatu ditu eta kolore doikuntzak egin ditu, muntaiaren kromatikotasun uniforme lortzeko.

f) Fotomuntaiaren artxiboa biltegiratu du, lan-prozesuaren beharretarako irudi-formaturik egokiena erabilita.

6.– Elementu grafiko bektorialak egiten ditu informatika-aplikazioen bidez, eta horiek produkzio-prozesuan integratzeko beharra eta azken produktuaren beharretarako egokitzapena baloratzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Marrazki bektorialerako beharrezko tresneria prestatu du, haren kalibrazioa eta monitorearen

kolore aktiboaren profila egiaztatuta.

b) Marrazki bektorialaren informatika-aplikazioetan kolorearen kudeaketa konfiguratu du, fabrikatzaileen eta normalizazio-erakundeen gomendioak kontuan hartuta eta produkzio-prozesuan ezarritako kolorea kontrolatzeko fluxua aintzat hartuta.

c) Kolorearen kudeaketaren konfigurazioan lortutako balioak ezarri ditu, erabiltzen ari den aplikazioaren lehentasun gisa.

d) Grafiko bektorialak egin, tratatu eta zuzendu ditu, erreproduktzioarako optimizazio egokia jarraituta.

e) Grafiko bektorialetan definitutako koloreak egiaztatu eta aldatu ditu, ezarritako kolore-fluxua eta azken erreproduktzio gailuaren mugak kontuan izanik.

f) Grafiko bektorialen funtzionaltasuna baloratu du, eta, horretarako, elementu integratzaile guztiak daudela eta horiek zuzenak direla egiaztatu du, baita erabiltako tipografiak erabilgarri daudela ere.

g) Produkzio-fluxurako fitxategi-formatu egokian biltegitatu ditu grafiko bektorialak, ezarritako kalitate-arauak betetzen direla egiaztatuta.

B) Edukiak:

1.– Eskaneatze-prozesuetan lan-tresneria mantentzea eta kontrolatzea.

Eskanerren, kalibragailuen eta informatika-tresneriaren arteko konexioak egitea:

– Zuzeneko konexioa edo haririk gabea.

– Lan-sareko tresneriaren konexioa.

Eskaneatze- eta informatika-tresneria garbitzea eta mantentzea:

– Tresneriaren konfigurazioa eta aldian behingo berrazterketa egitea.

– Irudiak berreskuratzeko informatika-programak.

– Garbitzeko prozedurak: hautsa eta zikinkeria ezabatzea.

Tresneria zuzen erabiltzeko eta mantentzeko fabrikatzailearen dokumentazio teknikoa interpretatzea.

Eskanerren, kalibragailuen eta informatika-tresneriaren arteko konexio motak:

– Zuzeneko konexioa: haririk gabe eta hari bidez.

– Lan-sareko tresneriaren konexioa.

Informatika-tresneriaren, eskanerren eta kalibragailuen funtzionamendu-arauak.

Potentzia-eskakizunak, informatika-tresneriaren ahalmena:

– Plataformak eta sistema eragileak.

– Prozesadoreak: funtzioak, motak eta prestazioak.

– RAM memoria: garrantzia eta gutxieneko eskakizunak.

– Biltegitratzeko sistemak: ahalmena, motak eta disko gogorren abiadurak (barnekoak eta kanpokoak).

– Txartel grafikoak: funtzioak, motak, potentziak eta prestazioak.

– Irakurketa eta grabazioko unitateak eta datu-transferentzia.

Irudien tratamendu digitalerako monitoreak eta periferikoak:

– Monitoreak: ezaugarriak eta prestazioa; motak.

– Taula grafikoak: motak, ezaugarriak eta funtzionamendua.

Sareko sistemak abian jartzeko prozesuak baloratzea eta periferikoen ezarpen partekatua egitea.

Erabili beharreko tresneriaren garbiketaren, mantentze-lanen eta berrazterketen plangintza metodikoa egitea.

Autonomia izatea funtzioak betetzean.

2.– Irudiaren digitalizazioko eta tratamendu digitaleko prozesuan kolorea kudeatzea.

Kolore-kudeaketako prozesuak kudeatzea:

– Kolore-kartak (motak) eta kolore-bibliotekak erabiltzea.

– Aretoa egokitzea:

Argiztapena.

Monitoreak egokitzea.

Kolorearen administrazioa sistema eragilean eta hainbat informatika-aplikaziotan aplikatzea (software bidez kalibratuta).

Hardware bidez kalibratzea.

Kolorea kudeatzeko profilak egitea eta instalatzea.

Dentsitometro, kolorimetro eta espektrofotometro bidez neurtzeko teknikak aplikatzea kolore-kudeaketarako.

Kolore-kudeaketan kalitate-kontrola kudeatzea: kolore-kudeaketa mantentzeko prozedurak.

Kolorimetria irudiaren tratamendu digitalean:

– Kolore-modua.

– Kolore-mapak eta -espazioak.

– ICC profilak.

– Kolore-sakonera.

Monitorearen konfigurazioa eta doikuntzak.

Kolore-kudeaketan erabiltzen diren dentsitometroen, kolorimetroen eta espektrofotometroen printzipioak.

Kolorea kudeatzeko sistemak. Funtzionamendua eta osagaiak.

Kolorea kudeatzeko eta kalibratzeko prozesuak baloratzea, lortu nahi den emaitzara ondo egokitzeko.

Kolore-kudeaketan, kalitate-kontrolaren kudeaketa egoki mantentzen dela zaintzea.

3.– Irudiak digitalizatzeko prozesua eta teknikak.

Irudiak digitalizatzeko prozedurak eta irizpideak aplikatzea:

– Digitalizazio-aplikazioetan kolorearen kudeaketa eta administrazioa konfiguratzea.

Jatorrizko baten irudia hartzean eta digitalizatzean, irudia zuzentzeko eta doitzeko teknikak erabiltzea:

– ICE sistema.

– GEM eta ROC sistemak (pikorra eta zarata murriztea eta gehitzea).

Sortutako irudiaren kalitatea ebaluatzea.

Jatorrizkoak hautatzea:

– Jatorrizko motak eta ezaugarriak.

– Papera eta filma eskaneatzea.

– Emultsio negatiboa edo diapositiba eskaneatzea.

– Jatorrizkoa garbitzea eta prestatzea.

Irudiaren ebaluazio teknikoa egitea eta eskatzen diren ezaugarriak erkatzea.

Irudien digitalizazioaren oinarriko kontzeptuak eta funtsak:

– Irudia hartzearen printzipio teknikoak.

– Eskaner motak eta horien funtzionamendua.

– Sistema automatikoa, erdiautomatikoa eta eskukoa.

– Digitalizazio-aplikazioen printzipioak, ezaugarriak eta maneiatzea.

– Irudia hartzearen ezaugarriak.

– Eskaneatzearen bereizmena.

Teknika berezien aplikazioa:

– HDR.

– Iraganaldi anitzak.

Eskaneatutako irudietarako fitxategien formatuak.

Jatorrizkoak egoki digitalizatzeko prozedurak eta teknikak baloratzea.

Lortutako emaitzak baloratzeko gaitasun kritikoa izatea, eta beharrezkoa bada, horiek hobetzea.

Irudiaren digitalizazioaren arloan agertzen diren teknika berritzaileak eta abangoardistak ikertzeko interesa izatea.

4.– Irudiaren tratamendu digitala egitea.

Tratamendu digitaleko programak maneiatzea eta ezaugarriak kudeatzea.

Irudia doitzeko teknikak aplikatzea:

– «Doikuntza» eta «optimizazio» kontzeptua.

– RAW doikuntzak.

– Nibelen doikuntza.

– Oinarrizko kolore-doikuntza.

– Kurbak.

– Distira eta kontrastea.

– Gris-oreka.

Irudien zuzenketa digitalerako teknikak aplikatzea:

– Lente-zuzenketak.

– Kolorea zuzentzeko teknikak eta tresnak.

– Hautespen-teknikak.

– Maskaratze-prozedurak.

– Iragazteko teknikak.

Irudi digitalaren tratamenduaren oinarrizko kontzeptuak:

– Bit-mapa (bitmap).

– Bektorialak.

– Kolore-sakonera.

– Kolore-moduak.

Bereizmena: terminologia, mugak, bereizmenaren kalkulua, bereizmen-ahalmenarekiko aldeak, bereizmen fotografikoa eta kamera-bereizmena, bilbea eta bereizmen-aldaketa (interpolazioarekin edo gabe).

Tratamendu digitaleko prozesuan irudia artxibatzeko formatuak:

- Fitxategiaren tamaina.
- Konpresioa.
- Motak: RAW, TIFF, DNG, JPEG, GIF, BMP, PSD eta PNG.
- Metadatuaren erabilera tratamendu digitaleko prozesuan.

Irudia doitzeko parametroak.

Jatorrizkoak egoki digitalizatzeko prozedurak eta teknikak baloratzea.

Lortutako emaitzak baloratzeko gaitasun kritikoa izatea, eta beharrezkoa bada, horiek hobetzea.

Irudien tratamendu digitalaren arloan agertzen diren teknika berritzaileak eta abangoardistak ikertzeko interesa izatea.

5.– Irudi digitalak muntatzea.

Aurreitazko maketa edo zirriborroa egitea.

Fotomuntaiak egiteko irudiak hautatzea, irudien ezaugarri teknikoak baloratuta eta aurreikusitako emaitza lortzeko egokitzapena baloratuta.

Irudia muntatzeko programa informatikoen tresnak aplikatzea.

Irudiak doitzeko eta berdintzeko teknikak aplikatzea muntaiarako:

- Irudien bereizmena, tamaina eta enkoadraketa doitzea.
- Kolore-moduak eta kolore-profilak doitzea.
- Koloreak doitzea eta berdintzea.

Irudien muntaia digitalaren kontzeptuak aplikatzea.

Irudien muntaiaren erabiltzen diren teknikak kudeatzea:

- Hautespen-teknikak.
- Ebaketa-teknikak.
- Marrazketa-teknikak.

Irudien fusioan erabiltzen diren teknika bereziak gauzatzea:

- Mailakatzeak ezabatzea.
- Argiak eta itzalak berdintzea.
- Kolorea berdintzea.

Fotomuntaietako fitxategiak kudeatzea, lan-prozesura hobe egokitzen diren fitxategien formatuak erabilia.

Irudien muntaia digitalaren kontzeptuak:

- Geruzak.
- Fusio-moduak.
- Opakutasuna.
- Kanalak.
- Doikuntza-geruza.
- Fokuratze-teknikak.
- Geruza-maskara.

Irudia berdintzeko teknikak: bereizmena, tamaina, kolore-doikuntzako eskala eta kolore moduak.

Hautespen-tresnak.

Pintzelen parametroak.

Hautespen-motiboak.

Gainesposizioko eta azpiesposizioko, leuntzeko, fokuratzeko eta desfokuratzeko, asetzeko eta desasetzeko tresnak.

Klonazioak.

Edizio bektoriala.

Iragazkien tipologia.

Funtzioak autonomiaz egitea.

Lortutako emaitzak baloratzeko gaitasun kritikoa izatea, eta beharrezkoa bada, horiek hobetzea.

Irudien muntaia digitalaren arloan agertzen diren teknika berritzaileak eta abangoardistak ikertzeko interesa izatea.

6.– Grafiko bektorialak egitea.

Marrazki bektorialerako tresneria prestatzea, haren kalibrazioa eta monitorearen kolore aktiboaren profila egiaztatuta.

Prozedura bektorialak aplikatzea:

- Grafikoak aldatzeko eta optimizatzeko prozedurak.

– Grafiko bektorialak produkzio-prozesu fotografikoaren eta azken produktuaren eskakizunetara egokitzea.

Marrazketa bektorialeko teknikak eta prozesuak egitea:

- Marrazketa bektorialeko informatika-programen ezaugarri orokorrak.
- Zirriborroen interpretazioa.
- Portaera bektoriala.
- Oinarrizko formak.
- Trazadurak.
- Objektuen transformazioa.
- Betegarria.
- Trazuak.
- Gardenkiak.
- Maskarak.
- Geruzak.
- Efektuak.
- Transformazioak.
- Objektuen hautespena eta antolamendua.

Teknika bereziak erabiltzea:

- Marrazketa bektorialeko aplikazioetan kolorearen administrazioa konfiguratzea.
- Testuetan sistema bektoriala aplikatzea.

Fitxategi bektorialak kudeatzea, produkzio-fluxurako fitxategi-formatu egokiak erabilia.

Marrazketa bektorialaren oinarrizko printzipioak eta funtsa:

- Elementu grafiko bektorialak.
- Grafiko bektorialen ezaugarriak.
- Artxibo-formatu egokiak.
- Bézier kurbak.

Marrazketa bektorialeko teknikak eta prozesuak:

- Marrazketa bektorialeko informatika-programen ezaugarri orokorrak.
- Zirriborroen interpretazioa.
- Portaera bektoriala.
- Oinarrizko formak.

- Trazadurak.
- Objektuak inplementatzea.
- Betegarria.
- Trazuak.
- Gardenkiak.
- Maskarak.
- Geruzak.
- Efektuak.
- Transformazioak.
- Objektuen hautespena eta antolamendua.

Grafiko bektorialak egitearen arloan agertzen diren teknika berritzaileak eta abangoardistak ikertzeko interesa izatea.

Funtzioak autonomiaz egitea.

Lortutako emaitzak baloratzeko gaitasun kritikoa izatea, eta beharrezkoa bada, horiek hobetzea.

9. lanbide-modulua: Amaierako prozesu fotografikoak

Kodea: 1166

Kurtsoa: 2

Iraupena: 80 ordu

ECTS kredituetarako baliokidetzatza: 5

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1.– Inprimatzeko, akabera emateko eta artxibatzekeo tresneria mantentzera eta kontrolatzera zuzentzen diren eragiketak eta prozesuak egiten ditu, eta horien egoera eta operatibotasuna emaitza egokiak lortzearekin lotzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Informatika-tresneriaren eta inprimatzeko tresneriaren arteko konexioak egin ditu, zuzenean edo tresneria lotzeko informatika-sare baten bitartez.

b) Inprimatze-tresneriaren funtzionamendu-arauak definitu ditu, baita horien erabilera zuzena eta emaitzen egonkortasuna bermatzeko baliagarriak izango diren lan-prozedurak ere.

c) Inprimatze-tresneria mantentzeko, garbitzeko eta prest jartzeko prozedurak aplikatu ditu, eta, horretarako, aparatuen fabrikatzailearen jarraibideak bete ditu eta horrek ezarritako maiztasunarekin egin du, betiere emaitzen kalitatea eta eraginkortasuna ziurtatzeko.

d) Inprimatze-tresneriaren doikuntza kromatikoa egin du, tresneriaren erantzunean egonkortasuna lortzeko moduan, lortutako emaitzak errepikatzea bermatuko baita.

e) Inprimatzeko tinten egoera egiaztatu du inprimagailuaren softwarearen bitartez (injekzio-inprimagailuetan, injektoreen testaren bidez), eta, beharrezkoa bada, tinta aldatu du.

f) Inprimatze-buruen lerrokadura egiaztatu du –injekzio-inprimagailuen kasuan, tresneriaren inprimatze-softwarearen bidez– eta aldaketak edo zuzenketak egin ditu, emaitzetan desbideratzeak hauteman badira.

g) Inprimatzeko prozesuan erabilitako laneko tresneria manipulatzeko eta maneiatzeko, kalitate, segurtasun, osasun eta ingurumen-babeseko arauak eta estandarrak aplikatu ditu.

2.– Helburu den baliabiderako edo euskarrirako prestatzen ditu irudiak, eta irteera-doikuntzak ebaluatzen ditu, aginduaren ezaugarrien arabera eta inprimatzeko eta bistaratzeko gailuen eta euskarrien arabera.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Irudi-tamainaren, fokuratzearen, kolore-espazioaren eta kolore-sakoneraren doikuntzak egin ditu, betiere pantailan eta web-orri batean bistaratzera zuzentzen den irudi bati irteera-ezaugarri egokiak emateko.

b) Pantailan bistaratzera zuzentzen den irudia fitxategi-formatu egokian eta konpresio maila egokian gorde du, azken xedearen arabera fitxategiaren tamaina informatikoa kontuan hartuta: Internet, PDF, ordenagailu bidezko aurkezpenak, posta elektronikoa edo telefono mugikorra, besteak beste.

c) Paperean irtengo den irudiaren kasuan, irudiaren tamaina egokirako doikuntzak egin ditu, eta, horretarako, aintzat hartu ditu lortu nahi den kopiaren azken tamaina eta helburu den inprimatze-sistemaren bereizmena. Edonola ere, tartekatze eta berriz lagintzeko teknikak aplikatu ditu, baldin eta irudia altuegia bada edo baxuegia bada, hurrenez hurren.

d) Lortuko den kopia inprimatuaren kalitatea areagotzeko beharrezko fokuratze-doikuntzak egin ditu, eta, kasuan-kasuan, kopiak izango duen azken tamainaren arabera fokuratze-teknikarik egokiena aplikatu du.

e) Fitxategi digitalean biltzen den informazioa berariazko irteera-profil egokien bihurtu du, inprimagailua, tintak eta paper mota kontuan hartuta eta, beharrezkoa bada, profila bilatuta eta instalatuta.

f) Irudi inprimatuaren emaitza simulatzeko probaren doikuntza egin du, kasuan-kasuan egokiena den «gamaz kanpoko kolore bihurketa» metodoa aplikatuta.

g) Irteerako azken doikuntzak egiteko garaian, irudia inprimategian, laborategi digitalean (lambda) edo inprimagailuan inprimatuko den hartu du aintzat, eta kasuan-kasuan erabakirik egokiena hartu du, inprimatze-sistemetak bakoitzaren ezaugarrien arabera.

3.– Kopia inprimatuak lortzen ditu, emaitzen eta aginduaren zehaztapenen arteko egokitzapena egiaztatzen du, eta eskatutako emaitza lortzeko neurri zuzentzaileak aplikatzea hartzen du aintzat.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Inprimagailua kontrolatzen duen softwarean inprimatze-parametroak doitu ditu (tamaina, paper mota, bereizmena, kolore-aukerak, irteera-profilak eta abar), aurreikusitako emaitzak bermatzeko.

b) Inprimatze-tresneriaren ezaugarrien arabera eta eskatzen diren emaitzen eta akaberen arabera egokiena den inprimatze-euskarria hautatu du.

c) Akatsak eta desbideratzeak identifikatzeko inprimatze-probak egin ditu, horien kausak zehaztu ditu, eta beharrezko zuzenketak eta doikuntzak egin ditu, beharrezko kalitatea lortu arte.

d) Kopia inprimatua argi egokipean ikuskatu du, baina tintak egonkortzeko denbora-tarte bat utzi ondoren, pantailako irudiarekin alderaketa errealista egin ahal izateko.

e) Kopiaren kromatismoa aztertu du (dominanteak, desbideratzeak, sakonera, eta kolorearen zehaztasuna, besteak beste), eta egon daitezkeen akatsak edo desbideratzeak identifikatu ditu, horien kausak zehaztu ditu eta beharrezko zuzenketak ezarri ditu, horiek konpontzeko eta beharrezko kalitatea duen kopia lortzeko.

f) Kopia inprimatuaren kalitatea aztertu du (kolorea, itzalen eta argi handien zehaztasuna, sakonera, kontrastea, zarata digitala, bereizmena, pikorra eta pixelizazioa), eta egon daitezkeen akatsak edo desbideratzeak identifikatu ditu, horien kausak zehaztu ditu eta beharrezko zuzenketak ezarri ditu, horiek konpontzeko eta beharrezko kalitatea duen kopia lortzeko.

g) Egindako kopiaren arazoak eta arazo horiek ebazteko prozedurak bilduko dituen dokumentua landu du, eta ukituak egiteko, eraikitzeo edo errepikatzeo beharrak adierazi ditu.

h) Produkzio-prozesuan kolorea erreproduzitzeari dagokionez, UNE eta ISO gomendioak aplikatu ditu, irudia eta azkenean lortutako kopia inprimatua bat datozela bermatzeko.

4.– Kopien akabera-lanak egiten ditu eta aurkezteko euskarrietan amaitzen eta muntatzen ditu, akatsak zuzentzeko teknikak aplikatuta eta aginduaren ezaugarrien arabera egokienak diren azken akaberak baloratuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Kopiaren gainazala arretaz berraztertu du eta aurreikusitako euskarri motan egin dela egiaztatu du, edozein inperfekzio fisiko hautemateko (marrak, hautsa, olioak edo orotariko narriadurak) eta konpontzeko eta berreraikitzeo beharra baloratzeko.

b) Kopietako erroreak, inperfekzioak eta akatsak baloratzeko dokumentua landu du eta horiek zuzentzeko eta berreraikitzeo beharrezko neurriak ezarri ditu.

c) Kopian inperfekzio fisikoak konpondu ditu, material egokiak erabilia (spray-ak, pintzelak, disolbatzaileak, ultrasoinuak eta abar), akabera perfektua lortu arte.

d) Kopiak moztu, muntatu eta enbalatu ditu, eta kopien eta handitzeen aurkezpenean erabiltzen diren euskarri fotografikoak aplikatu ditu, izango duten azken helburua kontuan izanik.

e) Kopia markoan ipini du, beharrezkoa bada, eta lortu nahi den azken emaitzaren arabera posible diren azken itxurak eta erabiliko diren materialak (metala, plastikoa eta beira) baloratu ditu.

f) Akabera fotografikoko prozesuak egin ditu, eta azken akabera perfektu batek ahalbidetzen duen txukuntasunarekin eta garbitasunarekin aplikatu ditu teknikak. Izatez, kopiak mozteko eta muntatzeko tresnak segurtasun- eta prekaizio-irizpideekin erabili ditu.

5.– Material fotografikoa kontserbatzen eta mantentzen du, eta, zeregin horretan, gehien erabiltzen diren neurriak formatuaren arabera baloratzen ditu eta ondorengo eskakizunak bermatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Material fotografikoak eusten dituzten euskarrien eta material babesleen pH-a egiaztatu du, gai azidorik ez dagoela baztertzeko eta, hala, kontserbazioa bermatzeko.

b) Kopiak izkin-babeskiekin, laminekin, babesekin eta enbalaje egokiekin babestu ditu, kopien gainazalek kalterik ez izateko eta ez narriatzeko, biltegitratzean zein garraiatzean.

c) Material fotografikoa biltegitratzen den lekuaren argi-intentsitate, tenperatura eta giro-hezetasuneko baldintzak egiaztatu ditu, luxometroak, termometroak eta hezetasuna neurtzeko txartelak erabilia.

d) Irudi digitalak fitxategi-formatu egokienetan gorde ditu, berriro erabili ahal izatea bermatzeko moduan. Fitxategi-formatuaren ezaugarriak, tamaina, kalitatea eta konpresioa hartu du kontuan, bateragarritasuna, iraupena eta unibertsaltasuna ziurtatzeko moduan.

e) Fitxategi digitalak biltegitratzeko euskarri egokia (CDa, DVDa, BDa, kanpoko edo barruko disko gogorra, memoria-txartela eta abar) hautatu eta konfiguratu du, iraupena, segurtasuna, fidagarritasuna eta espazio informatiko okupatua edo erabilgarri dagoena kontuan hartuta.

f) Fitxategi digitalen babeskopiak egin ditu biltegitratzeko beste gailu edo euskarri batzuetan, eta, hala, galdu edo ezabatuz gero, irudi horien iraupena bermatu du.

g) Fitxategi digitalen biltegitratze optikoko euskarriak eta gailuak kontserbatu ditu, babeserako kaxak edo zorroak erabilia, baita hezetasuna xurgatzeko gel lehortzailea ere.

6.– Material fotografikoa artxibatzen du, eta, horretarako, fitxategi fotografiko digitalak kudeatzeko programa informatikoak aplikatzen ditu eta irudiak antolamendu-irizpideekin katalogatzen ditu, ondoren erraz aurkitzeko eta erabiltzeko.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Karpeta-egitura, fitxategien izendapena eta katalogatzeko eta etiketatzeko irizpide baliagarriak diseinatu ditu, denboran egonkor mantenduko den –zaharkituta geratzeko arriskurik gabe– artxibatze-sistema malgua eta irekia eutsiko dutenak, edozein unetan material fotografiko berria sartzeko moduan.

b) Artxibatuko diren irudiak hautatu ditu, kalitate eta baliagarritasun irizpideak aplikatuta, etorkizunean erabili ahal izateko, jatorrizko fitxategiak eta eratorriak bereizita.

c) Material fotografikoa identifikatu eta erregistratu du, metadatuak, gako-hitzak, kodeak, GPS datuak, sortzaileari, lizentziei eta eskubideei buruzko informazioa eta beste datu batzuk erabilia, eta ondoren erraz eta azkar aurkitzea ahalbidetuko duen etiketatze-sistema sortu du.

d) Fitxategi fotografiko digitalak kudeatzeko softwareak eskaintzen dituen erremintak egoki erabili ditu, artxibatze-sistema egokia, egonkorra eta eraginkorra lortzeko.

e) Fitxategi digitala biltegitratzeko euskarri egokia hautatu eta konfiguratu du, iraupena, segurtasuna eta okupatuta edo eskuragarri dagoen espazio informatikoa aintzat hartuta.

f) Artxibatze sistemaren baliagarritasuna egiaztatu du, eta, horretarako, hainbat irizpideren arabera bilatu ditu irudiak, aurreko prozedurak zuzen egin direla egiaztatzeko moduan.

B) Edukiak:

1.– Inprimatze, akabera eta artxibatze fotografikoan laneko makineria eta tresneria mantentzea eta kontrolatzea.

Informatika-tresneria eta inprimatze-tresneria konektatzea.

Inprimatze-tresneria garbitzea eta mantentzea:

- Tresneriaren konfigurazioa eta aldiari behingo berrazterketa egitea.
- Fabrikatzaileen jarraibideak eta gomendioak.
- Buruen lerrokatze-proba.
- Inprimatze-tresneriaren doikuntza-probaren orria.
- Patroi-irudien inprimaketa.
- Injektoreen testa.
- Tinten aldaketa eta buruen garbiketa.

Inprimatzeko prozesuan erabilitako laneko tresneria manipulatzeko eta maneiatzeko, kalitate, segurtasun, osasun eta ingurumen-babeseko arauak eta estandarrak aplikatzea.

Laneko tresneria mantentzea:

- Tresneriaren oinarrizko konfigurazioa.
- Laneko tresneria mantentzeko oinarrizko eragiketak.
- Software-programak.

Inprimatzeko tresneriaren doikuntza kromatikoa egitea.

Inprimatze-tinten egoera inprimagailuaren softwarearen bidez egiaztatzea –injektoreen testaren bidez injekzioko inprimagailuen kasuan–.

Inprimatze-buruen lerrokatzea –injektoreen testaren bidez injekzioko inprimagailuen kasuan–.

Informatika-tresneria eta inprimatze-tresneria konektatzeko teknikak:

- Zuzeneko konexioa.
- Lan-sareko tresneriaren konexioa.

Inprimatze-tresneriaren funtzionamenduari eta lan-prozedurei buruzko arauak.

Tresneria mantentzeko oinarrizko eragiketak.

UNE eta ISO gomendioak, produkzio-prozesuetan kolorea erreproduzitzeari dagokionez.

Kalitateari, segurtasunari, osasunari eta ingurumen-babesari buruzko arauak.

Inprimatzeko tresneriaren doikuntza kromatikoaren ezaugarriak.

Honako alderdi hauek bermatuko dituzten kolore-proben tipologia:

- Ondorengo prozesuetako kalitatea.
- Fitxategiaren formatua eta tamaina.
- Kolore-modua.

Jarrera ordenatua eta metodikoa lanak egitean.

Tresneriari eta pertsoneri buruzko segurtasun-arauak zorrotz aplikatzea.

Erabakiak hartzeko autonomia izatea.

2.– Irudiak prestatzea helburu den baliabiderako edo euskarrirako.

Pantailan bistaratzea helburu duen irudia prestatzea:

- Irudia moldatzea.
 - Irudiaren tamaina pantailan bistaratzeko doitzea, berriz lagintzearen bidez (zabaltzea eta murriztea).
 - Fokuratze leuna edo lineala aplikatzea.
 - Kolore-espazioa eta kolore-sakonera bihurtzea.
 - Pantailarako irudia gordetzea.
 - Xedearen araberako berariazko doikuntzak egitea.
 - Irudia inprimaketarako prestatzea:
 - Bereizmenaren neurketa-unitateak eta horien erlazioa aztertzea: ppi, dpi.
 - Irudia metodorik egokienarekin tartekatzea.
 - Erabili ohi diren inprimatze-bereizmenak aztertzea.
 - Irudia fokuratzea.
 - Irteerako profilak aztertzea, inprimagailuetarako eta papererako berariazkoak.
 - Berezko profilak sortzea.
 - Emaizak proba-doikuntza bidez simulatzea, gamaz kanpoko koloreak bihurtzeko metodoak erabilia.
 - Inprimaketarako irudiaren fitxategi-formatua hautatzea.
- Zuri-beltzeko inprimaketarako berariazko doikuntzak egitea.

Zehaztapen tekniko jakin batzuk eta jatorrizko digital jakin batzuk abiapuntu izanik, irudietako kolorea zuzentzea:

- Tonalitate-gama egiaztatzea.
- Argien eta itzalen balioa doitzea.
- Tonalitate-erdiak doitzea.
- Kolore-dominanteak ezabatzea.
- Koloreak orekatzea.

Irudiak behar den heinean fokuratzea.

Zehaztapen tekniko batzuk eta jatorrizko digital jakin batzuk abiapuntu izanik:

– Bereizmena/tamaina aldatzea irudi-tratamenduko aplikazioen bitartez, eta azken produktuaren arabera beharrezkoa den kalitatea mantentzea.

Pantailan bistaratzera zuzentzen den irudia fitxategi-formatuan lortzea, konpresio-mailarik egokienean, haren azken helburuaren arabera:

- Internet.
- PDF.
- Ordenagailuko aurkezpenak.
- Posta elektronikoa edo telefono mugikorak, besteak beste.

Lortuko den kopia inprimatuaren kalitatea areagotzeko beharrezko fokuratze-doikuntzak egitea.

Fitxategi digitalean biltzen den informazioa egiaztatzea, egokiena den berariazko irteera-profila baloratuta eta honako alderdi hauek aintzat hartuta:

- Inprimatzeko modua.
- Tintak.
- Paper mota, profila bilatuta eta instalatuta, beharrezkoa bada.

Irudi inprimatuaren emaitza simulatzeko probako doikuntza aplikatzea, kasuak kasu egokiena den «gamaz kanpoko kolore bihurteta» metodoa aplikatuta.

Irudiaren irteerako azken doikuntzak egitea, eta, horretarako, irudia inprimategian, laborategi digitalean (λ) edo inprimagailuan inprimatuko den baloratzea, eta kasuak kasurako erabakirik egokiena hartzea, inprimatze-sistemetakako bakoitzaren ezaugarrien arabera.

Pantailan eta web-orri batean bistaratzera zuzentzen den irudiaren doikuntzen ezaugarriak.

Inprimatzera zuzentzen den irudi baten doikuntzen ezaugarriak, kopiaren azken tamaina eta inprimatze-sistemaren bereizmena kontuan hartuta:

- Fokuratzea.

– Kolore-espazioa.

– Kolore-sakonera.

Azken helburuaren arabera digitalizatzeko bereizmena eta tamaina kalkulatzeko teknikak:

– Inprimaketarako berariazko doikuntzak.

– Irudi digitalen parametroen kontrola, handitzearen azken tamainen arabera.

Irudi baten azken kolorearen zehaztasuna kontrolatzeko prozedurak, irudia hartzen denetik inprimatzen den arte.

Fitxategi nagusia gordetzeko eta mantentzeko prozedura.

Zuri-beltzez inprimatzeko irudi baten doikuntzen ezaugarriak.

Egin beharreko zereginetan informazio teknikoak betetzea.

Tresneriari eta pertsoneri buruzko segurtasun-arauak zorrotz aplikatzea.

Tresnak eta erremintak zuzen eta profesionaltasunez maneiatzea.

3.– Kopia inprimatuak lortzea eta emaitzak baloratzea.

Inprimaketa kontrolatzean doikuntzak egitea.

Kopia inprimaturako euskarria hautatzea:

– Azalera.

– Beste ezaugarri batzuk:

Gramajea.

Oinarri-kolorazioa/gardentasuna.

Tintekiko bateragarritasuna.

Pigmentuak eta itsasgarriak.

Iraunkortasuna eta kontserbazioa, giro-erresistentzia.

– Berariazko beste euskarri batzuk: lambda-rako RC paperak.

Kopia fotografiko inprimatuak egiaztatzea eta ebaluatzea:

– Kopien argiztapen- eta behaketa-baldintzak.

– Kopien behaketan erabiltzen diren tresnak.

– Kolorearen analisia: dominanteak, zehaztasuna, sakonera, eta abar.

– Itzaletako eta argi handietako xehetasunen analisia, kontrastea, pikorrak, pixelizazioa, kopiaren bereizmena eta zarata.

– Kopia inprimatuetako ohiko arazoak.

Inprimatze-probak egitea, akatsak eta desbideratzeak identifikatzeko.

Egindako kopiaren arazoak eta horiek konpontzeko prozedura egokiak bilduko dituen dokumentua lantzea.

Produkzio-prozesuan kolorea erreproduzitzeari dagokionez, UNE eta ISO gomendioak aplikatzea.

Inprimagailua kontrolatzen duen softwarean inprimatze-parametroen ezaugarriak (tamaina, paper mota, bereizmena, kolore-aukerak, irteera-profilak eta abar).

Inprimatze fotografikorako tresneria eta inprimagailuak:

- Tinta-injekzio bidezko inprimatze-tresneriaren ezaugarriak.
- Lambda sistemaren inprimatze-tresneriaren funtzionamendua.
- Inprimategia.

Inprimaketako faseak:

- Ezaugarriak: kolorazioa eta iraupena.
- Tinta motak.

Kolorea ziurtatzeko sistemak (inprentan eta beste ingurune batzuetan).

Inprimatze-tresneriaren ezaugarrien arabera eta eskatzen diren emaitzen eta akaberen arabera egokiena den inprimatze-euskarria.

UNE eta ISO gomendioak, produkzio-prozesuetan kolorea erreproduzitzeari dagokionez.

Ematen diren irudien ezaugarriak:

- Kolore-modua.
- Irudi-tamaina.

Bereizmena.

Kolore-profila.

Fitxategi-formatua.

Tresnak eta erremintak zuzen eta profesionaltasunez maneiatzea.

Ordena eta garbitasuna zaintzea lanpostuan.

Antolamendu-lanekiko interesa izatea.

Ezarritako prozedurak betetzea.

4.– Akabera-prozesua egitea eta kopiak aurkeztea.

Kopiaren gainazala arretaz egiaztatzea eta aurreikusitako euskarri motan egin dela ziurtatzea, edozein inperfekzio fisiko hautemateko (marrak, hautsa, olioak edo orotariko narriadurak) eta konpontzeko eta berreraikitze beharra baloratzeko.

Kopietako erroreak, imperfekzioak eta akatsak baloratzeko dokumentua lantzea eta horiek zuzentzeko beharrezko neurriak ezartzea.

Kopiak moztu, muntatu eta enbalatzea, eta kopien eta handitzeen aurkezpenean erabiltzen diren euskarri fotografikoak aplikatzea, izango duten azken helburua kontuan izanik.

Kopia markoan ipintzea, beharrezkoa bada, eta lortu nahi den azken emaitzaren arabera posible diren azken itxurak eta erabiliko diren materialak (metala, plastikoa eta beira) baloratzea.

Akabera fotografikoko prozesuak egitea, eta azken akabera perfektu batek ahalbidetzen duen txukuntasunarekin eta garbitasunarekin aplikatzea teknikak, kopiak mozteko eta muntatzeko tresnak, segurtasun- eta prekauzio-irizpideekin erabilia.

Kopien akatsak garbitzeko eta konpontzeko teknikak:

- Kopien imperfekzio fisikoak.
- Konpontzeko erabiltzen diren materialak eta erremintak.
- Garbiketara eta konponketara erabiltzen diren lan-metodoak.
- Spray-ak.
- Pintzelak.
- Disolbatzaileak.
- Xaboiak.
- Ultrasoinuak.
- Beste batzuk.

Kopiak muntatzeko teknikak eta prozesuak eta horien aurkezpena:

- Kopien ebaketa.
- Euskarri eustea.
- Ijezteko, leuntzeko eta muntatzeko aparatuak.
- Ehunduretarako eta akabera fisikoetarako makinak.
- Akabera eta ematearen fasean erabiltzen diren aurkezpen-euskarrien ezaugarriak eta motak: markoak, plastifikatuak, passe-partout-ak, foam gaineko muntaia, tefloizko orria, kartulinak eta euskarri bereziak.

Produktu fotografikoak emateko aplikatutako enbalaje-teknikak.

Euskarri fotografikoetan akatsak eta asaldurak hautemateko prozedurak.

Eragiketen barruan antolamendu-garrantzia baloratzea.

Sailen arteko koordinaziorako prest egotea, jarduera profesionala behar bezala gauzatzeko.

Ordena eta garbitasuna zaintzea langunean.

5.– Material fotografikoa kontserbatzea eta biltegitratzea.

Material fotografikoak eusten dituzten euskarrien eta material babesleen pH-a egiaztatzea, gai azidorik ez dagoela baztertzeko eta, hala, kontserbazioa bermatzeko.

Kopiak izkin-babeskiekin, laminekin, babesekin eta enbalaje egokiekin babestea, kopien gainazalek kalterik ez izateko eta ez narriatzeko, biltegitratzean zein garraiatzean.

Material fotografikoa biltegitratzen den lekuaren argi-intentsitate, temperatura eta giro-hezetasuneko baldintzak egiaztatzea, luxometroak, termometroak eta hezetasuna neurtzeko txartelak erabilia.

Fitxategi digitalak biltegitratzeko euskarri egokia hautatzea eta konfiguratzea (CDa, DVDa, BDa, kanpoko eta barruko disko gogorra, memoria-txartelak, eta abar).

Fitxategi digitalen biltegitratze optikoko euskarriak eta gailuak kontserbatzea, babeserako kaxak edo zorroak erabilia, baita hezetasuna xurgatzeko gel lehortzailea ere.

Gai azidoek eta korrosiboek euskarri osagarri fotografikoen gainean dituzten ondorioak.

Materialen iraupena murrizten duten gaiak hautemateko sistemak.

Kopia eta euskarri fotografikoak babesteko eta biltegitratzeko teknikak:

– Argi-baldintzen, temperaturaren eta hezetasunaren kontrola, material fotografikoa kontserbatzeko.

– Kontserbazio-baldintzak kontrolatzeko erabiltzen diren tresnak: luxometroak, termometroak eta hezetasuna neurtzeko txartelak.

Kontserbazio eta biltegitratze fisikorako tresnak eta materialak:

– Artxibagailuak, gutun-azalak, enbalajeak, izkin-babeskiak eta orri babesleak.

– Kartoizko tutuak, kristala, tefloia eta abar.

– Metalezko artxibagailuak eta albumak.

– Euskarri optikoak kontserbatzeko zorroak.

Gailu eta euskarri informatikoetan biltegitratzea:

– Gailuen eta euskarrien ezaugarri orokorrak.

– Irudi digitalak kontserbatzeko eta biltegitratzeko gailu eta euskarri motak, eta horien berariazko ezaugarriak.

Jarrera ordenatua eta metodikoa lanak egitean.

Eragiketen barruan antolamendu-garrantzia baloratzea.

Ordena eta garbitasuna zaintzea langunean.

6.– Material fotografikoak artxibatzea eta katalogatzea.

Irudiak sailkatzeko eta katalogatzeko sistemaren konfigurazioa.

Irudiak etiketatzeko eta erregistratzeko prozesuak betetzea:

- Katalogaziorako metadatuaren erabilera.
- Gako-hitz bidezko irudien deskribapena.
- Etiketatzeko beste prozedura batzuk.
- Antolatzeko hierarkien erabilera.
- Sortzaileari buruzko informazioak txertatzea.
- Irudien lizentziei eta eskubideei buruzko informazioak.

Artxibatuko diren irudiak hautatzea, kalitate- eta baliagarritasun-irizpideak aplikatuta, etorkizunean erabili ahal izateko, eta jatorrizko artxibatuak eta eratorriak bereizita.

Material fotografikoa identifikatzea, metadatuak, gako-hitzak, kodeak, GPS datuak, sortzaileari, lizentziei eta eskubideei buruzko informazioa eta beste datu batzuk erabilia, eta ondoren erraz eta azkar aurkitzea ahalbidetuko duen etiketatze-sistema sortzea.

Fitxategi fotografiko digitalak kudeatzeko softwareak eskaintzen dituen tresnak egoki erabiltzea, artxibatze-sistema egokia, egonkorra eta eraginkorra lortzeko.

Fitxategi digitala biltegitatzeko euskarri egokia hautatzea eta konfiguratzeko, iraupena, segurtasuna eta okupatuta edo eskuragarri dagoen espazio informatikoa aintzat hartuta.

Fitxategi digitalen kudeaketaren alde onak eta txarrak.

Fitxategi fotografiko digitalak kudeatzeko softwarea.

Irudiak sailkatzeko eta katalogatzeko sistemaren konfigurazioa.

Artxibatze eta katalogatzeko sistemarekiko bateragarritasuna.

Fitxategien eta karpeten antolamendua eta izendapena.

Irudiak etiketatzeko eta erregistratzeko prozedurak:

- Katalogaziorako metadatuaren erabilera.
- Gako-hitz bidezko irudien deskribapena.
- Etiketatzeko beste prozedura batzuk.
- Antolatzeko hierarkien erabilera.
- Sortzaileari buruzko informazioak.
- Irudien lizentziei eta eskubideei buruzko informazioak.

Irudi digitalak biltegitatzeko eta kontserbatzeko fitxategi-formatuaren hautespena:

Biltegitatzeko fitxategi-formatuaren ezaugarriak eta prestazioak.

Hainbat formatuaren alde onak eta txarrak.

Artxibategian irudiak bilatzeko tresnak eta prozedurak:

Entsegu-metodoak.

Irudiak aurrez bistartzeko aukerak.

Datu-base digitalen printzipioak, ezaugarriak, konfigurazioa eta maneia.

Ordena, metodoa eta kalitatearekiko interesa izatea.

Gertatuko diren aldaketa teknologikoak asimilatzeke prest egotea.

Burutu beharreko ekintzen sistematizazioa eta sekuentziazioa.

10. lanbide-modulua: Ikus-entzunezko erreportajeen grabazioa eta edizioa.

Kodea: 1167

Kurtsoa: 1

Iraupena: 198 ordu

ECTS kredituetarako baliokidetzak: 9

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1.– Ikus-entzunezko grabazio-tresneria eta -sistemak prestatzen ditu, erakunde-bideoetarako, hezkuntza-bideoetarako, industria-bideoetarako, gizarte-erreportajeetarako eta informazio-generoetarako –berehalakotasun-egoeratan–, betiere tresneriaren ezaugarriak aztertuta eta protokolo teknikoak aplikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Irudia eta soinua erregistratzeko beharrezko audio eta bideoko kableak, konexioak eta egokigailuak prestatu eta egiaztatu ditu.

b) Grabazio-formatua eta kamera mota hautatu ditu, proiektuaren ezaugarriei, fidagarritasunari, eraginkortasunari, sendotasunari eta informazioa erregistratzeko presari erreparatuta.

c) Erregistroko eta argiztapen arineko elikadura-sistemak egiaztatu ditu, eta baterien, kargagailuen, elikagailuen, luzagarrien, entxufe-oinarrien eta mendeko sistema elektrikoaren funtzionamendu ona eta fidagarritasuna probatzen du.

d) Mikrofono moten eskakizunetarako egokia den elikadura elektrikoa antolatu du eta kamera eta soinua nahasketa-mahaia doitu du.

e) Erregistratu beharreko ekitaldietarako komeni diren denbora-kodeen doikuntzak hautatu ditu, grabazio-euskarrien arabera eta aurreikusitako edizio-metodologiaren arabera.

f) Metadatuak, bereizmen txikiko proxiak eta markak grabatzeko aukerak prestatu ditu, albistek eta erreportajeak editatzeko prozesuen azkartasuna errazteko.

g) Bideoeko test-seinalea eta hasierako beltz-seinalea grabatu du, protokolo-iraupenekin, irudiaren zuzenketa teknikoak egiaztatuta eta soinu-proba eginda.

h) Bideo-monitorizazioa kalibratu du eta distira, kontraste eta koloreko doikuntzak erreferentziazko test-seinalera egokitu ditu.

2.– Erakunde-bideoetarako, hezkuntza-bideoetarako, industria-bideoetarako, gizarte-erreportajeetarako eta informazio-generoko bideoetarako –bideokameretako grabazioetan– berariazko soinu-konfigurazioak aplikatzen ditu, kalitatea lortzeko irizpideei erreparatuta eta grabazio

estandarizatuetao protokoloei jarraituta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Berariazko mikrofoia mota hautatu du, egoera bakoitzak eskatzen duen barrutiaren irizpide akustikoei, erabilgarritasunari, sentsibilitateari, lerrun dinamikoari, maiztasuneko erantzunari, atzeko zaratari eta direktibotasunari erreparatuta –ahots-grabazioetarako, giro-grabazioetarako edo musika-grabazioetarako–.

b) Mikrofonoak zaraten, bibrazioen eta haizearen aurkako euskarriekin eta babesekin egokitu ditu, giroko baldintzen arabera.

c) Kameran jasotako audio-seinaleak dagozkien grabazio-pistetara zuzendu ditu, albisteen hartze, emizio eta emisioko faseen arteko koordinazio-protokoloei jarraituta.

d) Ekintza, ikuskizun edo kokaleku jakin batzuetan, soinu-tresneriaren –berearen edo eskura dagoenaren– konexiorako beharrezko kable eta konektore moten beharrak zehaztu ditu.

e) Kamerako sarrera motak eta audio-mailak doitu ditu, eta seinaleak grafikoki eta entzumen-mailan monitorizatu ditu, ezarritako arauak gomendatzen dituzten erreferentziako mailak aplikatuta.

f) Hainbat soinu-iturri audioko nahasketa-mahaien bitartez kontrolatu ditu, eta erreportajeetarako eta dokumentaletarako soinu-hartzean beharrezko kualitate teknikoak zehaztu ditu, parte hartzen dutenen kopurua kontuan hartuta.

3.– Albisteetan eta erreportajeetan informazioaren ikus- eta entzun-tratamendua zehazten du, eta informazio-erreportajeetako irizpideak aukera narratiboekin eta komunikazioekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Telebistako hainbat informazio-generoen eta -formaturen kasuan, informazioaren ikus- eta entzun-tratamenduaren arabera zehaztu ditu ezaugarri bereizgarriak.

b) Albiste izan daitezkeen egintzako parte-hartzaileak grabazioaren aurretik ezagutu ditu, kamerekin eta mikrofonoekin horien jarraipena egiteko.

c) Gaurkotasuneko zenbait ekitalditan eta gertakaritan estaliko den informazioaren funtsezko gakoak dokumentatu da.

d) Albiste izan daitezkeen egintzetako kamera-tratamenduko dinamikak ebaluatu ditu, eta ikus-entzunezko deskribapena optimizatzen duten kameraren kokalekuak eta audioa hartzeko puntuak zehaztu ditu.

e) Informazio-gertakarietan arretaguneak eta interesguneak bereizi eta hierarkizatu ditu, eta, berehala, eraginkortasunez eta segurtasunez aplikatu ditu komunikazio-hautespeneko irizpideak.

f) Informazio-ekitaldian grabatzeko ohiko espazioak sailkatu ditu, eta horien argi eta espazio-baldintzapenak aztertu ditu, erreportajeak grabatzean aukera estetikoak eta espresiozkoak maximizatzeo.

4.– Albisteak eta erreportajeak grabatzen ditu, eta informazio-gaurkotasuneko ikus- eta soinu-alderdirik adierazgarrienak hartzerazuzentzen diren teknikak garatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Azkar eta eraginkortasunez doitu ditu kameraren parametroak giroko zirkunstantzietara, betiere enkoadraketan eta soinua hartzean ahalik eta informazio-transmisorik handiena lortzeko.

b) Tripode arina erabiltzea edo kamera sorbaldan erabiltzea baloratu du, ikus-entzunezko erreportajearen benetako beharrei erreparatuta.

c) Adierazpenak eta lead-ak kameraren ikuspuntutik grabatu ditu, informazioaren subjektu direnen informazio-intereserako enkoadraketa egokien bitartez.

d) Hainbat parte-hartzaileraren elkarrizketak grabatu ditu, zenbait ikuspuntutatik eta enkoadraketa aintzekin, galdera-erantzunen dinamikari jarraituta eta edizioan jarraitutasuna erraztuta.

e) Errekurtso-planoak hartu ditu, baita edizio fasean zenbait aukera ahalbidetzeko beharrezko txertaketak ere.

f) Ahalik eta hurbilen eta kalitaterik onenarekin hartu du soinua eta grabatu du irudia, betiere erregistratutako gertakariaren baldintzatzaileen arabera, eta giza taldearen eta tresneria teknikoaren osotasunerako arriskuak murriztuta.

g) Metadatu, parte eta etiketa bidez dokumentatu du grabazioaren azken euskarria, horren edukia deskribatuta eta edizio faserako bidalketa erraztuta.

5.– Aurreko grabazioetatik datorren materiala landu gabe editatzen du, eta hainbat muntaia-teknika aplikatzea eta erreportajearen berezko prozedura narratiboak aplikatzea baloratzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Irudiak, elkarrizketak eta adierazpenak katalogatzeko eta minutatzeko prozesua egin du, muntaia-prozesuan antolatzearen.

b) Irudiak eta hauei dagokien audioa sinkronizatu ditu, klaketen irudi- eta soinu-marketan edo beste edozein erreferentzian oinarrituz.

c) Lokuzioak ezarritako audio-kanaletan grabatu ditu, sarrera-mailek eskatzen diren kalitate-arauak eta -estandarrek betetzen dituztela kontrolatuta.

d) Edizioa egin du lead-aren, guztizkoaren, off-eko lokuzioen eta kolen antolamendua eta iraupena zehaztuta.

e) Masterrean sortu eta aplikatu ditu izenburuen, kredituen, grafismoen eta beharrezko marken txertaketak, titulaziorako berariazko tresnak abiapuntu izanik.

f) Ikus-entzunezko masterra landu du, programaren helburuak lortzeko lagungarriak diren erritmo, jarraitutasun eta mugimenduko komunikazio-baldintzak kontuan izanik –besteak beste–.

g) Soinua eta sinkronismoak bideoan emititzeko berariazko arauak eta eskakizunak betetzen dituen amaierako masterra sortu du.

h) Hartzailleetara eta balizko banda-zabaleretara egokitzen diren zenbait irteera-formatutan sortu ditu bertsioak, satellite bidezko eta Internet bidezko emisioetan eskura daudenak.

B) Edukiak:

1.– Erreportajerako ikus-entzunezko grabazio-tresneria prestatzea.

Kableak, konexioak eta audio- eta bideo-egokigailuak prestatzea eta egiaztatzea.

Kamera prestatzea:

– Bideoeko test-seinalea eta hasierako beltz-seinalea grabatzea, irudiaren zuzenketa teknikoak egiaztatzeko.

– Menuan doikuntzak egitea (formatua, denbora-kodea, markak, metadatuak, bereizmen txikiko proxiak,...).

– Doikuntzak egitea bisorean.

– Audioko eta monitorizazioko pistak bideratzea. Soinu-proba egitea.

Argiztapeneko tresneria arina erabiltzea.

Bideo-monitorizazioa kalibratzea eta distira, kontraste eta koloreko doikuntzak erreferentziatzeko test-seinalera egokitzea.

Mikrofonorako, kamerarako, nahasketa-mahairako eta argiztapenerako eskura dagoen elikadura elektrikoa egiaztatzea:

– Bateriak.

– Kargagailuak.

– Elikagailuak.

– Luzagarriak.

– Entxufe-oinarriak.

– Sistema elektrikoak.

Irudia eta soinua erregistratzeko erabiltzen diren audio eta bideoeko kable, konektore, egokigailu motak.

Kamera motak eta horien maneia:

– Menua.

– Denbora-kodea.

– Audioa.

– Zehaztasunak.

Grabazio-formatuak proiektuaren ezaugarrien arabera.

Telebista-erreportajeetarako argiztapen-tresneria arinak.

Kalibrazioa eta monitorizazioa.

Burutu beharreko ekintzen sistematizazioa eta sekuentziazioa.

Kamera-tresneria, eranskinak, euskarri-materialak eta argiztapen-tresneria muntatzean, desmuntatzean, garraiatzean eta maneiatzean jarrera-higieneko eta prebentzioko neurriak errespetatzea.

2.– Erreportajeak grabatzeko soinu-konfigurazioak aplikatzea.

Barrutiaren akustikaren arabera erabiltzea mikrofonoak:

- Baliagarritasuna.
- Sentsibilitatea.
- Lerrun dinamikoa.
- Maiztasun-erantzuna.
- Hondoko zarata.
- Direktibitatea.

Zaratez, bibrazioez eta haizeaz babesteko osagarriak.

Audioko nahasketa-mahaia erabiltzea.

Audioko nahasketa-mahaiko eta kamerako audio-grabazioaren sarrera eta kontrol moten doikuntzak egitea.

– Seinaleak forma grafikoan eta entzun-forman monitorizatzea, eta erreportajeetarako eta dokumentaletarako soinua hartzean kalitate teknikoak zehaztea.

Mikrofonoen ezaugarriak:

- Direktibitatea.
- Maiztasun-erantzuna.
- Sentsibilitatea.
- Zarata-maila.

Erreportajerako audioko nahasketa-mahaia.

Audio-grabazioko formatu digitalak.

Audioko grabazio-kontrolak:

- Grabazio-mailak:
- Vumetroak.
- Pikometroak.

Burutu beharreko ekintzen sistematizazioa eta sekuentziazioa.

Autonomiaz jardutea lanak egitean.

Arretaz erabiltzea tresneria.

3.– Erreportajeetako informazioaren ikus-entzunezko tratamendua zehaztea.

Informazio-ekitaldietako grabazio-espazioak aztertzea, argi- eta espazio-baldintzatzaileak aztertuta.

Gaurkotasuneko ekitaldietan eta gertakarietan estali beharreko informazioaren giltzarriak identifikatzea, ikus-entzunezko tratamendua planifikatzeko.

Irudia eta soinua hartzean kamera-tratamenduaren dinamikak ebaluatzea:

- Kameren kokalekuak.
- Angeluazioak.
- Distantzia ezin hobeak.
- Desplazamenduen aurreikuspena.
- Ibilbideak.
- Oztopoak.

Albisteetan kameren kokalekua eta mugimenduak planifikatzea.

Informazio-gertakarietan arretaguneak eta interesguneak bereiztea eta hierarkizatzea.

Telebistako erreportajeetan, dokumentaletan eta informazio-generoetan informazioaren ikus- eta entzun-tratamendua.

Informazio-gertakarietan irudia eta soinua hartzea.

Informazio-ekitaldietako ohiko grabazio-espazioen sailkapena, argi- eta espazio-baldintzatzaileak aztertuta.

Ikus-entzunezko errealizazioetan hizkuntza estetikoa eta komunikaziozkoa erabiltzeko interesa izatea.

Ekimenez jardutea ideiak, iritziak eta argudioak gaineratzeko.

Arretaz erabiltzea tresneria.

4.– Albisteak eta erreportajeak grabatzea.

Kamera giroko zirkunstanzietara doitzeko eragiketak egitea, enkoadraketan eta soinua hartzean ahalik eta informazio-transmisiorik handiena lortzeko.

Tripode arina erabiltzearen edo kamera sorbaldan erabiltzearen balorazioa egitea.

Adierazpenak eta sarrerak kameraren ikuspuntutik grabatzea, informazioaren subjektu diren informazio-intereserako enkoadraketa egokien bitartez.

Hainbat parte-hartzailerren elkarrizketak grabatzea, zenbait ikuspuntutatik eta enkoadraketa anitzekin, galdera-erantzunen dinamikari jarraituta eta edizioan jarraitutasuna erraztuta.

Errekurtso-planoak hartzea, baita edizio fasean zenbait aukera ahalbidetzeko beharrezko txertaketak ere.

Ahalik eta hurbilen eta kalitaterik onenarekin grabatzea soinua eta irudia, betiere erregistratutako gertakariaren baldintzatzaileen arabera, eta giza taldearen eta tresneria teknikoaren osotasunerako arriskuak murriztuta.

Metadatu, parte eta etiketa bidez dokumentatzea grabazioaren azken euskarria, horren edukia deskribatuta eta edizio faserako bidalketa erraztuta.

Albisteak hartzean kamerako eta optikako parametroak doitzeko teknikak.

Erreportajeak grabatzeko teknikak:

- Kamerako enkoadraketak eta ikuspuntuak ikus-entzunezko erreportajeetan.
- Irudiaren konposizio-teknikak.
- Informatzaileekin eta elkarrizketatuekin erreportajeak grabatzeko teknikak.

Elkarrizketak hainbat ikuspuntutatik grabatzeko teknikak.

Ediziorako grabatutako ikus-entzunezko materialaren dokumentazioa: metadatuak, etiketak eta katalogazioa.

Kamerako parametroak argi- eta optika-baldintzetara doitzea, albisteak hartzean:

- Iragazkiak.
- Zuriaren balantzea.
- Argiztapen-aurredoikuntzak.

Albisteen grabazioaren baldintzatzaileak: segurtasuna.

Arretaz erabiltzea tresneria.

Kameraren eta argiztapen-tresneriaren gehigarrien eta tresneria osagarrien funtzionaltasuna eta garbitasuna mantentzea.

Talde-lanarekiko konpromisoa hartzea, eta zereginak egitean nor bere erantzukizuna hartzea.

5.– Bideo edizioa:

Irudiak, elkarrizketak eta adierazpenak katalogatzea eta minutatzea, muntaia-prozesuan antolatzearen.

Irudiak eta audioa sinkronizatzea, klaketetako irudi- eta soinu-marketan edo beste edozein erreferentzian oinarrituz.

Lokuzioak ezarritako audio-kanaletan grabatzea, sarrera-mailak kontrolatuta.

Edizioa egitea, lead-aren, guztizkoaren, off-eko lokuzioen eta kolen antolamendua eta iraupena zehaztuta.

Masterrean sortzea eta aplikatzea izenburuen, kredituen, grafismoen eta beharrezko marken txertaketak, titulaziorako berriazko tresnak abiapuntu izanik.

Ikus-entzunezko masterra lantzea, erritmo, jarraitutasun eta mugimenduko komunikazio-baldintzak kontuan izanik –besteak beste–.

Soinua eta sinkronismoak bideoan emititzeko berariazko arauak eta eskakizunak betetzen dituen amaierako masterra sortzea.

Hartzaileetara eta balizko banda-zabaleretara egokitzen diren zenbait irteera-formatutan sortzea bertsioak, satellite bidezko eta Internet bidezko emisioetan eskura daudenak.

Informazio- eta dokumental-generoak muntatzeko teknikak.

Mugimenduaren muntaia eta ikus-entzunezko erritmoaren sorrera.

Ikus-entzunezko jarraitutasuneko teknikak:

- Ekintza-ardatzak.
- Norabideak.
- Desplazamenduen abiadurak.
- Begiradak.
- Erlazio espazialak eremuaren barruan eta kanpoan.

Trantsizioak eta efektuak aplikatzeko teknikak.

Lan-estazio eramangarriak, edizio ez-linealerako.

Materiala landu gabe hartzea eta katalogatzea.

Edizio ez-linealeko teknikak eta metodoak.

Edizio ez-linealeko proiektuaren konfigurazioa.

- Bideoaren estandarra.
- Esplorazioa.
- Irudi-tamaina.
- Pixelaren eta irudiaren itxuraren arteko lotura.
- Bideoen codec-ak.
- Laginketa-maiztasuna.
- Kuantifikazioa.
- Kanalak.
- Audioen codec-ak.

Edizio ez-linealeko proiektuko konfigurazioak analizatzea.

Tresneriaren eta babeskopien erabilera- eta kontserbazio-prozedurak errespetatzea.

Zorroztasunez eta metodoz betetzea dokumentuak.

Aurreikusitako epeak betetzearekiko balorazio positiboa egitea.

Autonomiaz jardutea lanak egitean.

11. lanbide-modulua: Ingeles teknikoa

Kodea: E200

Kurtsoa: 2

Iraupena: 40 ordu

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1.– Tituluaren lanbide-esparruarekin, prestakuntza pertsonalarekin eta eskainitako produktuarekin/zerbitzuarekin lotutako ahozko informazioa interpretatu eta erabiltzen du, eta haren ezaugarriak eta propietateak, enpresa motak eta horien kokapena identifikatu eta deskribatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Zuzeneko mezuaren, telefono bidezkoaren edo entzunezko beste bitarteko baten bidezkoaren xedea ezagutu du.

b) Ahozko mezu zehatzak adierazi ditu egoera puntualak ebazteko: hitzordu bat, produktu bat igortzeko/jasotzeko datak eta baldintzak, makina/gailu baten oinarrizko funtzionamendua.

c) Ahozko argibideak ezagutu ditu eta enpresaren testuinguruan emandako adierazpenei jarraitu die.

d) Sektorearen berezko produktuak edo zerbitzuak deskribatzeko termino tekniko zehatzak erabili ditu.

e) Mezu bat bere elementu guzti-guztiak ulertu beharrik gabe orokorrean konprenitzea zeinen garrantzitsua den konturatu da.

f) Emandako informazioen ideia nagusiak laburbildu ditu bere hizkuntza-baliabideak erabilita.

g) Beharrezkotzat jo duenean diskurtsoa edo horren zati bat berriz formulatzeko eskatu du.

h) Laneko elkarrizketa baterako aurkezpen pertsonala prestatu du.

i) Lan-ingurunean garatu beharreko konpetentziak deskribatu ditu.

2.– Sektorearen eta nazioarteko merkataritza-transakzioen berezko dokumentuak interpretatu eta betetzen ditu: ezaugarriei eta funtzionamenduari buruzko eskuliburua, eskabide-orria, jasotze- edo entrega-orria, fakturak, erreklamazioak.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Berariazko informazioa atera du eskainitako produktuarekin edo zerbitzuarekin lotutako mezuetatik (publizitate-liburuxkak, funtzionamenduari buruzko eskuliburua) eta bizitza profesionalarekin zerikusia duten eguneroko alderdietatik.

b) Merkataritza-transakzioei buruzko dokumentuak identifikatu ditu.

c) Euskarri telematikoen bitartez jasotako mezua interpretatu du: besteak beste, posta elektronikoaren eta faxaren bidez jasotakoa.

d) Sektoreko web-orri bateko oinarrizko informazioak identifikatu ditu.

e) Dagokion lanbide-esparruko merkataritza-dokumentazioa eta berariazko dokumentazioa bete ditu.

f) Lanbidearen berezko terminologia eta hiztegia zuzen erabili ditu.

g) Aurkezpenetan eta agurretan, prestatu beharreko dokumentuaren berezko adeitasun-formulak erabili ditu.

h) Bere lanbide-ingurunearekin erlazionatutako testuen laburpenak egin ditu.

i) Profilarekin lotutako okupazioak eta lanpostuak identifikatu ditu.

j) Bere konpetentziako lan-prozesu bat deskribatu eta sekuentziatu du.

k) Lan-ingurunean garatu beharreko konpetentziak deskribatu ditu.

l) Nork bere prestakuntza eta lanbide-konpetentziak aurkezteko Europako herrialdeetan erabilitako jarraibideen araberrako Curriculum Vitae egin du.

3.– Komunikazio-egoeretan jarrera eta portaera profesionalak identifikatu eta aplikatzen ditu, herrialde bakoitzarekin ezarritako protokolo-arauak eta haren ohiturak errespetatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Atzerriko hizkuntza hitz egiten den erkidegoko ohitura eta usadioen ezaugarri esanguratsuenak definitu ditu.

b) Herrialdearen berezko gizarte- eta lan-harremanetako protokoloak eta arauak deskribatu ditu.

c) Sektorearen berezko alderdi sozioprofesionalak identifikatu ditu edozein testu motatan.

d) Atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdearen berezko gizarte-harremanetako protokoloak eta arauak aplikatu ditu.

e) Beste herrialde batzuetako berezko balioak eta ohiturak identifikatu ditu, eta jatorrizko herrialdekoekin lotu ditu, antzekotasunak eta desberdintasunak ezartzeko.

B) Edukiak:

1.– Profilarekin lotutako ahozko mezuak ulertu eta sortzea.

Sektoreko mezu profesionalak eta egunerokoak ezagutzea.

Zuzeneko mezuak, telefono bidezkoak eta grabatutakoak identifikatzea.

Idea nagusia eta bigarren mailako ideiak bereiztea.

Beste hizkuntza-baliabide batzuk ezagutzea: gustuak eta lehentasunak, iradokizunak, argudioak, argibideak, baldintzaren eta zalantzaren adierazpena eta bestelakoak.

Ahozko mezuak igortzeko erabiltzen diren erregistroak hautatzea.

Ahozko diskurtsoa mantentzea eta jarraitzea: sostengua ematea, ulertzen dela erakustea, argitzeko eskatzea, eta bestelakoak.

Intonazioa, ahozko testuaren kohesio-baliabide gisa.

Nahikoa ulertzeko soinuak eta fonemak egoki sortzea.

Gizarte-harremanen markatzaile linguistikoak, adeitasun-arauak eta erregistro-desberdintasunak hautatzea eta erabiltzea.

Laneko elkarrizketa bat prestatzea, dituen prestakuntza eta motibazio pertsonalak aurkezteko.

Sektoreko terminologia espezifikoa.

Gramatika-baliabideak: aditz-denborak, preposizioak, adberbioak, lokuzio preposizionalak eta adberbialak, boz pasiboaren erabilera, erlatibozko perpausak, zehar-estiloa, eta bestelakoak.

Hots eta fonema bokalikoak eta kontsonantikoak. Konbinazioak eta elkartek.

Lan-elkarrizketa baten gaikako atalak.

Atzerriko hizkuntzak lanbide-munduan duen garrantziaz konturatzea.

Ulertzeko eta ulertarazteko interesa izatea eta hori errespetatzea.

Informazio-trukean bete-betean parte hartzea.

Atzerriko hizkuntzan komunikatzeko norberaren gaitasunaz jabetzea.

Hizkuntza bakoitzaren berezko adeitasun-arauak eta erregistro-desberdintasunak errespetatzea.

2.– Profilarekin lotutako idatzizko mezuak interpretatu eta adieraztea.

Hainbat formatutan emandako mezuak ulertzea: eskuliburuak, liburuxkak, eta oinarrizko artikulua profesionalak eta egunerokoak.

Idea nagusia eta bigarren mailako ideiak bereiztea.

Erlazio logikoak ezagutzea: aurkakotasuna, kontzesioa, konparazioa, baldintza, kausa, helburua, emaitza.

Denbora-erlazioak bereiztea: aurrekotasuna, gerokotasuna, aldiberekotasuna.

Sektorearen berezko testu erraz profesionalak eta egunerokoak lantzea.

Puntuazio-markak erabiltzea.

Lexikoa hautatzea, egitura sintaktikoak hautatzea, horiek egoki erabiltzeko eduki adierazgarria hautatzea.

Testu koherenteak lantzea.

Lan-ingurunearekin lotzen den lan-eskaintza bateko iragarkien atalak ulertzea.

Norberaren profilarekin lotzen den lan-eskaera egitea: curriculum eta motibazio-gutuna.

Euskarri telematikoak: faxa, e-mail, burofaxa, web-orriak.

Hizkuntzaren erregistroak.

Nazioarteko transakzioekin lotutako dokumentazioa: eskabide-orria, jasotze-orria, faktura.

Europako Curriculum Vitaearen eredua.

Heziketa-zikloarekin lotutako konpetentziak, lanbideak eta lanpostuak.

Ulertzeko eta ulertarazteko interesa izatea eta hori errespetatzea.

Beste kultura batzuen alderdi profesionalakiko interesa erakustea.

Beste kultura eta gizarteetako ohiturak eta pentsamoldea errespetatzea.

Testuaren garapenean koherentziaren premia balioestea.

3.– Herrialdearen berezko errealitate soziokulturala ulertzea.

Komunikazio-egoera bakoitzerako kultura-elementu esanguratsuenak interpretatzea.

Enpresaren irudi ona proiektatzeko portaera sozioprofesionala eskatzen duten egoeretan baliabide formalak eta funtzionalak erabiltzea.

Atzerriko hizkuntza (ingeleza) mintzatzeko den herrialdeen elementu soziolaboral esanguratsuenak.

Nazioarteko harremanetan arau soziokulturalak eta protokolokoak balioestea.

Bestelako usadioak eta pentsamoldeak errespetatzea.

12. lanbide-modulua: Irudia argiztatzeko, hartzeko eta tratatzeko proiektua

Kodea: 1168

Kurtsoa: 2

Iraupena: 50 ordu

ECTS kredituetarako baliokidetzak: 5

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1.– Produkzio-sektorearen beharrak identifikatzen ditu, eta behar horiek ase ditzaketen ereduak proiektuekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Sektorako enpresak antolamendu-ezaugarrien arabera eta eskaintzen duten produktuaren edo zerbitzuaren arabera sailkatu ditu.

b) Ereduko enpresak ezaugarritu ditu, eta, horretarako, sail bakoitzaren funtzioak eta antolamendu-egitura eman ditu aditzera.

c) Enpresei gehien eskatzen zaizkien beharrak identifikatu ditu.

d) Sektoran aurreikus daitezkeen negozio-aukerak baloratu ditu.

e) Aurreikusten diren eskaerei erantzuteko behar den proiektu mota identifikatu du.

f) Proiektuak izan behar dituen berriazko ezaugarriak zehaztu ditu.

g) Zerga-betebeharrak, lanekoak eta arriskuen prebentziokoak, eta horiek aplikatzeko baldintzak zehaztu ditu.

h) Proposatzen diren produkzio edo zerbitzuko teknologia berriak txertatzeko jaso daitezkeen laguntzak edo diru-laguntzak identifikatu ditu.

i) Proiektua lantzeko jarraitu beharreko lan-gidoia landu du.

2.– Tituluan adierazitako konpetentziekin lotutako proiektuak diseinatzen ditu, eta horiek osatzen dituzten faseak barnean hartu eta garatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Proiektuan jorratuko diren alderdiei buruzko informazioa bildu du.

b) Bideragarritasun teknikoari buruzko azterlana egin du.

c) Proiektua osatzen duten faseak edo zatiak eta horien edukia identifikatu ditu.

d) Lortu nahi diren helburuak ezarri ditu eta horien iristea identifikatu du.

e) Egiteko beharrezkoak diren baliabide naturalak eta pertsonalak aurreikusi ditu.

f) Dagokion aurrekontu ekonomikoa egin du.

g) Abian jartzeko finantziazio-beharrak identifikatu ditu.

h) Diseinatzeko beharrezko dokumentazioa definitu eta landu du.

i) Proiektuaren kalitatea ziurtatzeko kontrolatu beharreko alderdiak identifikatu ditu.

3.– Proiektua gauzatzea planifikatzen du, eta esku hartzeko plana eta dagokion dokumentazioa zehazten du.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Jarduerak sekuentziatu ditu eta osatzeko premien arabera antolatu ditu.

b) Jarduera bakoitzerako beharrezko baliabideak eta logistika finkatu ditu.

c) Jarduerak gauzatzeko baimenen beharrak identifikatu ditu.

d) Jarduerak gauzatzeko edo jarduteko prozedurak finkatu ditu.

e) Proiektua ezartzeari datxekion arriskuak identifikatu ditu, eta arriskuei aurrea hartzeko plana eta beharrezko bitartekoak eta ekipamenduak definitu ditu.

f) Baliabide materialak eta giza baliabideak eta gauzatze-denborak esleitzeko plangintza egin du.

g) Ezartzearen baldintzei erantzuten dien balorazio ekonomikoa egin du.

h) Proiektua ezartzeko edo gauzatzeko beharrezko dokumentazioa zehaztu eta prestatu du.

4.– Proiektua gauzatzean, jarraipena eta kontrola egiteko prozedurak definitzen ditu, eta erabilitako aldagaiak eta tresnak hautatu izana justifikatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Jarduerak edo esku-hartzeak ebaluatzeko prozedura definitu du.

b) Ebaluazioa egiteko kalitate-adierazleak definitu ditu.

c) Jarduerak egitean sor daitezkeen gorabeherak eta izan daitekeen konponbidea ebaluatzeko eta horiek erregistratzeko prozedura definitu du.

d) Baliabideetan eta jardueretan izan daitezkeen aldaketak kudeatzeko prozedura definitu du, horiek erregistratzeko sistema barne.

e) Jarduerak eta proiektua ebaluatzeko beharrezko dokumentazioa definitu eta landu du.

f) Erabiltzaileei edo bezeroei buruzko ebaluazioan parte hartzeko prozedura ezarri du, eta berriazko dokumentuak prestatu ditu.

g) Proiektuaren baldintza-agiria betetzen dela bermatzeko sistema ezarri du, halakorik dagoenean.

5.– Proiektua aurkeztu eta defendatzen du. Horretarako, eraginkortasunez erabiltzen ditu proiektua gauzatzean eta heziketa-zikloko ikasteko prozesuan bereganatutako kompetentzia teknikoak eta pertsonalak.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Proiektuari buruzko memoria-dokumentua egin du.

b) Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak erabiliko dituen aurkezpena prestatu du.

c) Proiektuaren azalpena egin du. Bertan, haren helburuak eta eduki nagusiak deskribatu ditu eta jasotako ekintza-proposamenen hautaketa justifikatu du.

d) Azalpenean komunikazio-estilo egokia erabili du eta, ondorioz, azalpen antolatua, argia, atsegina eta eraginkorra lortu du.

e) Proiektua defendatu du, eta talde ebaluatzaileak haren inguruan egindako galderari arrazoiak emanez erantzun die.

13. lanbide-modulua: Laneko prestakuntza eta orientabidea

Kodea: 1169

Kurtoa: 1

Iraupena: 99 ordu

ECTS kredituetarako baliokidetzak: 5

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1.– Lan-munduratzeko eta bizialdi osoko ikaskuntzako hautabideak identifikatu ondoren, lan-aukerak hautatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Etengabeko prestakuntzaren garrantzia baloratu du, enplegatze aukerak zabaltzeko eta produkzio-prozesuaren eskakizunetara egokitzeko funtsezko faktore gisa.

b) Tituluaren lanbide-profilari lotutako prestakuntza-ibilbidea eta ibilbide profesionala identifikatu ditu.

c) Profilari lotutako lanbide-jarduerarako eskatzen diren gaitasunak eta jarrerak zehaztu ditu.

- d) Tituludunarentzako lanerako eta lan-munduratzeko hobi nagusiak identifikatu ditu.
- e) Lana bilatzeko prozesuan erabiltzen diren teknikak zehaztu dira.
- f) Tituluari lotutako lanbide-sektoreetan autoenplegurako hautabideak aurreikusi ditu.
- g) Erabakiak hartzeko nortasuna, helburuak, jarrerak eta norberaren prestakuntza baloratu ditu.

2.– Talde-laneko estrategiak aplikatzen ditu, eta erakundearen helburuak lortzeko duten eraginkortasuna baloratzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Profilari lotutako lan-egoeretan talde-lanak dituen abantailak baloratu ditu.
- b) Benetako lan-egoera batean osa daitezkeen lan-taldeak identifikatu ditu.
- c) Lan-talde ez-eraginkorraren aldean, talde eraginkorrak dituen ezaugarriak zehaztu ditu.
- d) Taldekideek bere gain hartutako denetako eginkizunen eta iritzien beharra ontzat baloratu du.
- e) Taldekideen artean gatazkak sortzeko aukera erakundearen alderdi ezaugarritzat onartu du.
- f) Gatazka motak eta horien sorburuak identifikatu ditu.
- g) Gatazkak konpontzeko prozedurak zehaztu ditu.

3.– Lan-harremanen ondoriozko eskubideak baliatu eta betebeharrak betetzen ditu, eta lan-kontratuetan horiek onartzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Lan-zuzenbidearen oinarrizko kontzeptuak identifikatu ditu.
- b) Enpresaburuen eta langileen arteko harremanetan esku hartzen duten erakunde nagusiak bereizi ditu.
- c) Laneko harremanaren ondoriozko eskubideak eta betebeharrak zehaztu ditu.
- d) Kontratazio modalitate nagusiak sailkatu ditu, eta kolektibo jakin batzuentzat kontratazioa sustatzeko neurriak identifikatu ditu.
- e) Lan-bizitza eta familia-bizitza bateragarri egiteko indarrean dagoen legeriak ezarritako neurriak baloratu ditu.
- f) Laneko harremanak aldatu, eten eta deuseztatzearen arrazoiak eta ondorioak identifikatu ditu.
- g) Soldata-ordainagiria aztertu du, eta haren osagai nagusiak identifikatu ditu.
- h) Gatazka kolektiboko neurriak eta gatazkak ebazteko prozedurak aztertu ditu.
- i) Tituluarekin zerikusia duen lanbide-sektore bati aplikatzekoa zaion hitzarmen kolektiboan adostutako lan-baldintzak zehaztu ditu.
- j) Lan-antolamenduaren ingurune berrien ezaugarriak identifikatu ditu.

4.– Estalitako kontingentzien aurrean, Gizarte Segurantzako sistemaren babes-ekintza zehazten du eta prestazio mota guztiak identifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Herritarren bizi-kalitatea hobetzeko funtsezko oinarri gisa baloratu du Gizarte Segurantzaren eginkizuna.

b) Gizarte Segurantzak estaltzen dituen kontingentziak zerrendatu ditu.

c) Gizarte Segurantzako sisteman dauden araubideak identifikatu ditu.

d) Gizarte Segurantzako sistemaren barruan enpresaburuaren eta langilearen irudiak dituen betebeharrak identifikatu ditu.

e) Langilearen kotizazio-oinarriak, eta langilearen eta enpresaburuaren irudiari dagozkion kuotak identifikatu ditu.

f) Gizarte Segurantzako sistemaren prestazioak sailkatu eta eskakizunak identifikatu ditu.

g) Legez egon daitezkeen langabezia-egoerak zehaztu ditu.

h) Oinarrizko kontribuzio mailari dagokion langabezia-prestazioaren iraupena eta kopurua kalkulatu ditu.

5.– Bere jardueraren ondoriozko arriskuak ebaluatzen ditu, lan-inguruneko lan-baldintzak eta arrisku-faktoreak aztertuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Enpresaren esparru eta jarduera guztietan prebentzioaren kulturak duen garrantzia baloratu du.

b) Lan-baldintzak langilearen osasunarekin erlazionatu ditu.

c) Jardueraren arrisku-faktoreak eta horien ondoriozko kalteak sailkatu ditu.

d) Tituluaren lanbide-profilari lotutako lan-inguruneetan ohikoenak diren arrisku-egoerak identifikatu ditu.

e) Enpresan dauden arriskuak ebaluatu ditu.

f) Lanbide-profilari lotutako lan-inguruneetan, prebentziorako garrantzitsuak diren lan-baldintzak zehaztu ditu.

g) Tituluaren lanbide-profilari lotutako kalte profesionalen motak sailkatu eta deskribatu ditu, bereziki lan-istripuei eta lanbide-gaixotasunei dagokienez.

6.– Enpresa txiki batean, arriskuen prebentziorako plana egiten laguntzen du, inplikaturako agente guztien erantzukizunak identifikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Laneko arriskuen prebentziorako dauden eskubide eta betebeharrak nagusiak zehaztu ditu.

b) Enpresan prebentzioa kudeatzeko moduak sailkatu ditu, laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudian ezarritako irizpideen arabera.

c) Arriskuen prebentzioari dagokionez, enpresan langileak ordezkatzeko moduak zehaztu ditu.

d) Laneko arriskuen prebentzioarekin zerikusia duten erakunde publikoak identifikatu ditu.

e) Enpresan, larrialdirik izanez gero jarraitu beharreko jardun-sekuentziarioa barne hartuko duen prebentzio-plana izatearen garrantzia baloratu du.

f) Tituludunaren lanbide-sektorearekin lotutako lantoki baterako prebentzio-planaren edukia zehaztu du.

g) Larrialdi- eta ebakuazio-plan bat pentsatu du.

7.– Prebentzio- eta babes-neurriak aplikatzen ditu, eta tituluari lotutako lan-ingurune arrisku-egoerak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Kalteak sorburuan saihesteko eta, saihestezinak badira, haien ondorioak ahalik eta gehien murrizteko aplikatu behar diren prebentzio-teknikak, eta norbera eta taldea babestekoak zehaztu ditu.

b) Mota guztietako segurtasun-seinaleen esanahia eta hedadura aztertu ditu.

c) Larrialdietarako jardun-protokoloak aztertu ditu.

d) Larrialdietan, larritasun-maila desberdinetako biktimak daudenean, zaurituak sailkatzeko teknikak identifikatu ditu.

e) Istripuaren lekuan bertan hainbat kalteren aurrean aplikatu beharreko lehen laguntzetako oinarritzko teknikak identifikatu ditu, baita botikinaren osaera eta erabilera ere.

f) Langileen osasuna zaintzeko eskakizunak eta baldintzak zehaztu ditu, eta prebentzio-neurri gisa duten garrantzia adierazi du.

B) Edukiak:

1.– Lan-munduratzeko eta bizialdi osoko ikaskuntzako prozesua.

Lan-ibilbiderako interes, gaitasun eta motibazio pertsonalak aztertzea.

Tituluari lotutako prestakuntza-ibilbideak identifikatzea.

Tituluaren lanbide-sektorea definitzea eta aztertzea.

Norberaren ibilbidea planifikatzea:

– Beharrekin eta hobespeneekin bateragarriak izango diren epe ertain eta luzerako lan-helburuak ezartzea.

– Uneko eta gerorako pentsatutako prestakuntzarekiko helburu errealistak eta koherenteak.

Ibilbide-planaren, prestakuntzaren eta helburuen arteko koherentzia norberak egiaztatzeko zerranda bat ezartzea.

Lan-munduratzeko beharrezko dokumentuak betetzea (aurkezpen-gutuna, curriculum vitae...), eta test psikoteknikoak eta elkarrizketa simulatuak egitea.

Lana bilatzeko teknikak eta tresnak.

Erabakiak hartzeko prozesua.

Sektoreko enpresa txiki, ertain eta handietan lana bilatzeko prozesua.

Europar ikasi eta enplegatzeako aukerak. Europass, Ploteus.

Tituludunaren lan- eta lanbide-ibilbiderako etengabeko prestakuntzak duen garrantzia baloratzea.

Norberaren ikaskuntzaz arduratzea. Eskakizunak eta aurreikusitako emaitzak ezagutzea.

Autoenplegua lan-mundura sartzeko hautabidetzat balioestea.

Lan-munduan egoki txertatzeko lan-ibilbideak baloratzea.

Lanarekiko konpromisoa izatea. Lortutako trebakuntza baliaraztea.

2.– Gatazka eta lan-taldeak kudeatzea.

Antolakundea pertsona-talde gisa aztertzea.

Antolamendu-egiturak aztertzea.

Kideek lan-taldean izan ditzaketen eginkizunak aztertzea.

Antolakundeetako gatazken sorrera aztertzea: espazioak, ideiak eta proposamenak partekatzea.

Gatazka motak, esku-hartzaileak eta horien abiapuntuko jarrerak aztertzea.

Gatazkak ebazteko moduak, bitartekotza eta jardunbide egokiak aztertzea.

Lan-taldeen sorrera aztertzea.

Enpresa baten antolamendu-egitura, xede bat lortzeko pertsona-talde gisa.

Talde motak sektoreko industrian, dituzten eginkizunen arabera.

Komunikazioa, taldeak sortzean arrakasta lortzeko oinarritzko elementu gisa.

Lan-talde eraginkorraren ezaugarriak.

Gatazkaren definizioa: haren ezaugarriak, sorburuak eta etapak.

Gatazkak ebatzi edo deuseztatzeko metodoak: bitartekotza, adiskidetzea eta arbitrajea.

Enpresa-helburuak lortzeko pertsonen ekarpena balioestea.

Antolamenduaren eraginkortasunean talde-lanak dituen abantailak eta eragozpenak balioestea.

Talde-lanerako funtsezko faktoretzat komunikazioa baloratzea.

Lan-taldeetan sor daitezkeen gatazkak ebazteko partaidetzazko jarrera izatea.

Gatazkak ebazteko sistemak aztertzea.

3.– Lan-kontratuaren ondoriozko lan-baldintzak.

Lan-zuzenbidearen iturriak aztertzea eta hierarkiaren arabera sailkatzea.

Langileen Estatutuari buruzko Legearen Testu Bateginean (LELTB) arautzen diren lan-jardueren ezaugarriak aztertzea.

Kontratu-modalitate ohikoenak formalizatu eta alderatzea, haien ezaugarrien arabera.

Nomina interpretatzea.

Dagokion lanbide-jarduerako sektorerako hitzarmen kolektiboa aztertzea.

Lan-zuzenbidearen oinarriko iturriak: Konstituzioa, Europar Batasunaren direktibak, Langileen Estatutua, Hitzarmen Kolektiboa.

Lan-kontratua: kontratuaren elementuak, ezaugarriak eta formalizazioa, gutxieneko edukiak, enpresaburuaren betebeharrak, enpleguari buruzko neurri orokorrak.

Kontratu motak: mugagabeak, prestakuntzakoak, aldi baterakoak, lanaldi partzialekoak.

Lanaldia: iraupena, ordutegia, atsedenaldiak (laneko egutegia eta jaiegunak, oporrak, baimenak).

Soldata: motak, ordainketa, egitura, aparteko ordainsariak, soldataz kanpoko eskuratzeak, soldata-bermeak.

Soldata-kenkariak: kotizazio-oinarriak eta ehunekoak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (PFEZ).

Kontratua aldatu, eten eta deuseztatzea.

Ordezkaritza sindikala: Sindikatua kontzeptua, sindikatzeko eskubidea, enpresa-elkarteak, gatazka kolektiboak, greba, ugazaben itxiera.

Hitzarmen kolektiboa. Negoziazio kolektiboa.

Lan-antolamenduaren ingurune berriak: kanpora ateratzea, telelana, etab.

Lana arautzeko beharra baloratzea.

Dagokion lanbide-jarduerako sektorearen lan-harremanetan aplikatzen diren arauak ezagutzeko interesa izatea.

Aurreikusitako legezko bideak laneko gatazken ebazpide gisa aintzat hartzea.

Langileen kontratazioan etika eskaseko eta legez kanpoko jardunak baztertzea, batez ere premia handienak dituzten kolektiboetara dagokienez.

Gizartea hobetzeko agente gisa, sindikatuen eginkizuna aintzat hartu eta balioestea.

4.– Gizarte Segurantza, enplegua eta langabezia.

Gizarte Segurantzako sistema orokorra unibertsala izateak duen garrantzia aztertzea.

Gizarte Segurantzaren prestazioei buruzko kasu praktikoak ebaztea.

Gizarte Segurantzako sistema: aplikazio-esparrua, egitura, araubideak, erakunde kudeatzaileak eta laguntzaileak.

Enpresaburuen eta langileen betebeharrak nagusiak Gizarte Segurantzaren arloan: afiliazioak, altak, bajak eta kotizazioa.

Babes-ekintza: osasun-asistentzia, amatasuna, aldi baterako ezintasuna eta ezintasun iraunkorra, baliaezintasun gabeko lesio iraunkorrak, erretiroa, langabezia, heriotza eta biziraupena.

Prestazioen motak, eskakizunak eta kopurua.

Langileak euren eskubideen eta betebeharren inguruan aholkatzeko sistemak.

Herritarren bizi-kalitatea hobetzeko Gizarte Segurantzaren eginkizuna aintzat hartzea.

Gizarte Segurantzarako kotizazioan nahiz prestazioetan iruzurrezko jokabideak gaitzestea.

5.– Arrisku profesionalak ebaluatzea.

Lan-baldintzak aztertu eta zehaztea.

Arrisku-faktoreak aztertzea.

Segurtasun-baldintzei lotutako arriskuak aztertzea.

Ingurumen-baldintzei lotutako arriskuak aztertzea.

Baldintza ergonomikoei eta psikosozialei lotutako arriskuak aztertzea.

Enpresaren arrisku-esparruak identifikatzea.

Lanbide-eginkizunaren araberako arrisku-protokoloa ezartzea.

Lan-istripuaren eta lanbide-gaixotasunaren artean bereiztea.

Arrisku profesionalaren kontzeptua.

Enpresan arriskuak ebaluatzea, prebentzio-jardueraren oinarritzko elementu gisa.

Profilarri lotutako lan-ingurunearen berariazko arriskuak.

Antzemandako arrisku-egoeren ondorioz langilearen osasunean eragin daitezkeen kalteak.

Lanbide-jardueraren fase guztietan prebentzioaren kulturak duen garrantzia.

Lanaren eta osasunaren arteko lotura balioestea.

Prebentzio-neurriak hartzeko interesa azaltzea.

Enpresan prebentziorako prestakuntza ematearen garrantzia balioestea.

6.– Enpresan arriskuen prebentzioa planifikatzea.

Planifikazio- eta sistematizazio-prozesuak bideratzea, oinarritzko prebentzio-tresna gisa.

Laneko Arriskuen Prebentzioari (LAP) buruzko oinarritzko araua aztertzea.

Laneko Arriskuen Prebentzioaren (LAP) arloko egitura instituzionala aztertzea.

Lan-ingurunerako larrialdi-plan bat egitea.

Zenbait larrialdi-plan bateratu eta aztertzea.

Lanak giza osasunean eta segurtasunean dituen ondorioak.

Eskubideak eta betebeharrak laneko arriskuen prebentzioaren arloan.

Erantzukizunak laneko arriskuen prebentzioaren arloan. Erantzukizun mailak enpresan.

Laneko Arriskuen Prebentzioan (LAP) eta osasunean esku hartzen duten agenteak, eta horien eginkizunak.

Prebentzioaren kudeaketa enpresan.

Langileen ordezkariak prebentzioaren arloan (laneko arriskuen prebentzioko oinarrizko teknikaria).

Laneko arriskuen prebentzioarekin zerikusia duten erakunde publikoak.

Prebentzioaren plangintza enpresan.

Larrialdi- eta ebakuazio-planak lan-inguruneetan.

Laneko Arriskuen Prebentzioaren (LAP) garrantzia eta beharra baloratzea.

Laneko arriskuen prebentzioko (LAP) eta laneko osasuneko (LO) agente gisa duen posizioa baloratzea.

Erakunde publikoek eta pribatuek laneko osasunean (LO) errazago sartzeko egindako aurrerapenak baloratzea.

Dagokion kolektiboaren larrialdi-planei buruzko ezagutza baloratu eta zabaltzea.

7.– Enpresan prebentzio- eta babes-neurriak aplikatzea.

Norbera babesteko teknikak identifikatzea.

Norbera babesteko neurriak erabiltzeko garaian enpresak eta banakakoek dituzten betebeharrak aztertzea.

Lehen sorospenetako teknikak aplikatzea.

Larrialdi-egoerak aztertzea.

Larrialdietarako jardun-protokoloak egitea.

Langileen osasuna zaintzea.

Banako eta taldeko prebentzio- eta babes-neurriak.

Larrialdi-egoera batean jarduteko protokoloa.

Larrialdi medikoa / lehen sorospenak. Oinarrizko kontzeptuak.

Seinale motak.

Larrialdien aurreikuspena balioestea.

Osasuna zaintzeko planen garrantzia baloratzea.

Proposatutako jardueretan bete-betean parte hartzea.

14. lanbide-modulua: Enpresa eta ekimen sortzailea

Kodea: 1170

Kurtsoa: 2

Iraupena: 60 ordu

ECTS kredituetarako balioak: 4

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1.– Ekimen sortzaileari lotutako gaitasunak ezagutu eta aintzat hartzen ditu, eta lanpostuen eta enpresa-jardueren ondoriozko eskakizunak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Berrikuntzaren kontzeptua, eta gizartearen aurrerabidearekin eta gizabanakoen ongizatearekin duen lotura identifikatu du.

b) Kultura ekintzailearen kontzeptua, eta enpleguaren eta gizarte-ongizatearen sorburu gisa duen garrantzia aztertu du.

c) Norberaren ekimenaren, sormenaren, prestakuntzaren eta lankidetzaren garrantzia baloratu du, jarduera ekintzailean arrakasta lortzeko ezinbesteko eskakizuntzat.

d) Sektoreko enpresa txiki eta ertain bateko enpleguaren lanerako ekimena aztertu du.

e) Sektorean hasten den enpresaburu baten jarduera ekintzailea nola garatzen den aztertu du.

f) Jarduera ekintzaile ororen elementu saihestezintzat aztertu du arriskuaren kontzeptua.

g) Enpresaburuaren kontzeptua, eta enpresa-jarduera garatzeko beharrezko eskakizunak eta jarrerak aztertu ditu.

2.– Enpresa txiki bat sortzeko aukera zehazten du, enpresa-idea aukeratzen du eta haren bideragarritasuna oinarritzen duen merkatu-azterketa egiten du, jardun-ingurunearen gaineko eragina baloratuta eta balio etikoak gaineratuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Negozio-ideiak sortzeko prozesu bat garatu du.

b) Tituluarekin lotutako negozio baten esparruan ideia jakin bat hautatzeko prozedura sortu du.

c) Hautatutako negozio-ideiaren inguruko merkatu-azterketa egin du.

d) Merkatu-azterketatik ondorioak atera ditu eta garatu beharrezko negozio-eredua ezarri du.

e) Negozio-proposamenaren balio berritzaileak zehaztu ditu.

f) Enpresen gizarte-erantzukizunaren fenomenoaren eta enpresa-estrategiaren elementu gisa duen garrantzia aztertu ditu.

g) Tituluarekin zerikusia duen enpresa baten balantze soziala egin du, eta sorrarazten dituen kostu eta mozkin sozial nagusiak deskribatu ditu.

h) Sektoreko enpresetan, balio etikoak eta sozialak gaineratzen dituzten ohiturak identifikatu ditu.

i) Tituluarekin zerikusia duen enpresa txiki eta ertain baten bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioari buruzko azterketa egin du.

j) Enpresa-estrategia deskribatu du eta enpresaren helburuekin lotu du.

3.– Enpresa-plan bat egiteko eta, ondoren, hura abiarazi eta eratzeko jarduerak egiten ditu. Dagokion forma juridikoa hautatzen du eta, horren arabera, legezko betebeharrak identifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Enpresa baten oinarrizko eginkizunak deskribatu ditu eta enpresari aplikatutako sistemaren kontzeptua aztertu du.

b) Enpresaren ingurune orokorraren osagai nagusiak identifikatu ditu; batik bat, ingurune ekonomiko, sozial, demografiko eta kulturalarenak.

c) Berariazko ingurunearen osagai nagusi diren heinean, bezeroekiko, hornitzaileekiko eta lehiakideekiko harremanek enpresa-jardueran duten eragina aztertu du.

d) Sektoreko enpresa txiki eta ertain baten ingurunearen elementuak identifikatu ditu.

e) Enpresa-kulturaren eta irudi korporatiboaren kontzeptuak, eta horiek enpresa-helburuekin duten lotura aztertu ditu.

f) Enpresaren forma juridikoak aztertu ditu.

g) Hautatutako forma juridikoaren arabera, enpresaren jabeek legez duten erantzukizun-maila zehaztu du.

h) Enpresen forma juridikoetarako ezarritako tratamendu fiskala bereizi du.

i) Indarrean dagoen legeriak enpresa txiki eta ertain bat eratzeko exijitutako irizpideak aztertu ditu.

j) Erreferentziazko herrian sektoreko enpresak sortzeko dauden laguntza guztiak bilatu ditu.

k) Enpresa-planean, forma juridikoa aukeratzearekin, bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioarekin, administrazio-irizpideekin, diru-laguntzekin eta bestelako laguntzekin zerikusia duen guztia barne hartu du.

l) Enpresa txiki eta ertain bat abian jartzeko dauden kanpoko aholkularitza eta administrazio-kudeaketako bideak identifikatu ditu.

4.– Enpresa txiki eta ertain baten oinarrizko kudeaketa administratibo eta finantzarioko jarduerak egiten ditu: kontabilitate- eta zerga-betebehar nagusiak egiten ditu, eta dokumentazioa betetzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Kontabilitatearen oinarrizko kontzeptuak eta kontabilitate-informazioa erregistratzeko teknikak aztertu ditu.

b) Kontabilitate-informazioa aztertzeke oinarrizko teknikak deskribatu ditu, batez ere, enpresaren kaudimenari, likidezari eta errentagarritasunari dagokienez.

c) Tituluarekin zerikusia duen enpresa baten zerga-betebeharrak zehaztu ditu.

d) Zerga-egutegian zerga motak bereizi ditu.

e) Sektoreko enpresa txiki eta ertain batentzako merkataritza eta kontabilitateko oinarrizko dokumentazioa bete du (fakturak, albaranak, eskabide-orriak, kanbio-letrak, txekeak eta bestelakoak), eta dokumentazio horrek enpresan egiten duen bidea deskribatu du.

f) Banku-finantzaketako tresna nagusiak identifikatu ditu.

g) Dokumentazio hori enpresa-planean barne hartu du.

B) Edukiak:

1.– Ekimen sortzailea.

Tituluari lotutako sektorearen jardueran berrikuntzak dituen ezaugarri nagusiak aztertzea (materialak, teknologia, prozesuaren antolamendua, etab.).

Ekintzaileen funtsezko faktoreak aztertzea: ekimena, sormena, lidergoa, komunikazioa, erabakiak hartzeko konpetentzia, plangintza eta prestakuntza.

Jarduera ekintzailean arriskua ebaluatzea.

Sektoreko berrikuntza eta garapen ekonomikoa.

Kultura ekintzailea gizarte-behar gisa.

«Enpresaburu» kontzeptua.

Ekintzaileen jarduna sektoreko enpresa bateko enplegatu gisa.

Ekintzaileen jarduna enpresaburu gisa.

Ekintzaileen arteko lankidetzak.

Enpresa-jardueran aritzeko eskakizunak.

Negozio-ideia lanbide-arloaren esparruan.

Kultura ekintzaileari lotutako jardunbide egokiak tituluari dagokion jarduera ekonomikoan eta toki-esparruan.

Izaera ekintzailea eta ekintzailetzaren etika baloratzea.

Ekimena, sormena eta erantzukizuna balioestea ekintzailetzaren bultzatzaile gisa.

2.– Enpresa-ideiak, ingurunea eta haien garapena.

Enpresa-ideiak zehazteko tresnak aplikatzea.

Internet bidez, sektoreko enpresei buruzko datuak bilatzea.

Garatu beharreko enpresaren ingurune orokorra aztertzea.

Lanbide-arloko ereduak enpresa bat aztertzea.

Ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak identifikatzea.

Merkatu-azterketaren ondorioetatik abiatuta, negozio-eredua ezartzea.

Erabakitako ideia-aren gainean berrikuntza-ariketak egitea.

Enpresaren betebeharrak berariazko ingurunearekiko eta sozietate osoarekiko (garapen iraunkorra).

Lan-bizitza eta familia-bizitza bateragarri egitea.

Sektoreko enpresen erantzukizun soziala eta etikoa.

Merkatu azterketa: ingurunea, bezeroak, lehiakideak eta hornitzaileak.

Enpresaren balantze soziala aintzat hartu eta baloratzea.

Genero-berdintasuna errespetatzea.

Enpresa-etika baloratzea.

3.– Enpresa baten bideragarritasuna eta abiaraztea.

Marketin-plana ezartzea: komunikazio-politika, prezioen politika eta banaketaren logistika.

Produktzio-plana prestatzea.

Sektoreko enpresa baten bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa eta finantzarioa aztertzea.

Enpresaren finantzaketa-iturriak aztertzea eta haren aurrekontua egitea.

Forma juridikoa hautatzea. Tamaina eta bazkide kopurua.

Enpresaren kontzeptua. Enpresa motak.

Enpresa baten funtsezko elementuak eta arloak.

Zerga-arloa enpresetan.

Enpresa bat eratzeko administrazio-izapideak (ogasuna eta gizarte-segurantza, besteak beste).

Lanbide-arloko enpresentzako diru-laguntzak, bestelako laguntzak eta zerga-pizgarriak.

Enpresaren jabeek duten erantzukizuna.

Proiektuaren bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa zorrotz ebaluatzea.

Administrazio- eta legezko izapideak betetzea.

4.– Administrazio-funtzioa.

Kontabilitate-informazioa aztertzea: diruzaintza, emaitzen kontua eta balantzea.

Dokumentu fiskalak eta lanekoak betetzea.

Merkataritza-dokumentuak betetzea: fakturak, txekeak eta letrak, besteak beste.

Kontabilitatearen kontzeptua eta oinarriko ideiak.

Kontabilitatea, egoera ekonomikoaren irudi zehatz gisa.

Enpresen legezko betebeharrak (fiskalak, lanekoak eta merkataritzakoak).

Dokumentu ofizialak aurkezteko eskakizunak eta epeak.

Sortutako administrazio-dokumentuei dagokienez, antolamendua eta ordena baloratzea.

Administrazioko eta legezko izapideak betetzea.

15. lanbide-modulua: Lantokiko prestakuntza.

Kodea: 1171

Kurtsoa: 2

Iraupena: 360 ordu

ECTS kredituetarako baliokidetzak: 22

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1.– Enpresaren egitura eta antolamendua identifikatzen ditu, eta horiek enpresak egiten duen zerbitzu motarekin erlazionatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Enpresaren antolamendu-egitura eta arlo bakoitzaren eginkizunak identifikatu ditu.

b) Enpresaren egitura eta sektorean dauden eredu-zko enpresa-antolamenduak alderatu ditu.

c) Zerbitzuaren ezaugarriak eta bezero mota lotu ditu enpresa-jardueraren garapenarekin.

d) Zerbitzugintza garatzeko lan-prozedurak identifikatu ditu.

e) Jarduera behar bezala garatzeko giza baliabideen beharrezko kompetentziak baloratu ditu.

f) Jarduera honetan ohikoenak diren hedabideen egokitasuna identifikatu du.

2.– Lanbide-jarduera garatzean ohitura etikoak eta lanekoak aplikatzen ditu, lanpostuaren ezaugarrien eta enpresan ezarritako prozeduren arabera.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Aintzat hartu eta justifikatu ditu:

– Lanpostuan beharrezkoa den langileen eta denboraren eskuragarritasuna.

– Lanposturako beharrezkoak diren jarrera pertsonalak (besteak beste, puntualtasuna eta enpatia) eta profesionalak (besteak beste, ordena, garbitasuna eta erantzukizuna).

– Jarrerazko eskakizunak lanbide-jarduerak dituen arriskuen prebentzioaren aurrean.

– Lanbide-jardueraren kalitatearekin zerikusia duten jarrerazko eskakizunak.

– Lan-talde barruko eta enpresan ezarritako hierarkiekiko harreman-jarrerak.

– Lanaren esparruan egiten diren jardueren dokumentazioarekin zerikusia duten jarrerak.

– Profesionalaren jardun egokiarekin lotuta, esparru zientifikoan eta teknikoan lan-munduratzeko eta berriro laneratzeko prestakuntza-beharrak.

b) Lanbide-jardueran aplikatzekoak diren laneko arriskuen prebentzioari buruzko arauak eta Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen oinarriko alderdiak identifikatu ditu.

c) Lanbide-jarduerak dituen arriskuen arabera eta enpresaren arauen arabera jarri du abian norbera babesteko tresneria.

d) Garatu dituen jardueretan ingurumena errespetatzeko jarrera izan du.

e) Antolatuta, garbi eta oztoporik gabe mantendu du lanpostua edo jarduera garatzeko eremua.

f) Zuzendu zaion lanaz arduratu da, jasotako argibideak interpretatuz eta betez.

g) Egoera bakoitzean ardura duen pertsonarekin eta taldeko kideekin komunikazio eraginkorra ezarri du.

h) Taldearen gainerakoekin koordinatu da eta sortzen diren gertakaririk adierazgarrienak komunikatu ditu.

i) Bere jardueraren garrantzia eta zereginen aldaketetara egokitzeko beharra baloratu ditu.

j) Lana garatzean arauak eta prozedurak aplikatzeaz arduratu da.

3.– Ikus-entzunezko proiektuetan, ikus-estiloa, ekipamendu-beharrak eta kameraren plangintza definitzen du, hasierako dokumentazioa abiapuntu izanik eta baliabideen optimizazioko eta kalitateko irizpideak aplikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Ikus-entzunezko obraren komunikazio-asmoa, generoa eta alderdi espresiboak eta estetikoak ondoriotatu ditu, hasierako dokumentazioaren analisia abiapuntu izanik.

b) Ikus-entzunezko obraren ikus-estiloa diseinatu du, eta, horretarako, plano motak, enkoadraketak, kamera-mugimenduak, barne-erritmoa, jarraitutasun-erlazioak, irudiaren definizioa eta argiztapenarekiko esposizio- eta kolore-aukerak definitu ditu.

c) Ikus-entzunezko hainbat proiektutan kamera-lanaren ekarpena ebaluatu du, honako alderdi hauek aintzat hartuta: ikus-narratiba, fokalizazioa eta ikus-inpaktua, fikzioetan, publizitatean, bideoklipetan eta dokumentaletan.

d) Antzezleen eta parte-hartzaileen bilakaeraren eta eszenaratzearen arabera, lokalizazioaren edo estudioko dekoratuen kamera-lana planifikatu du, eta, horretarako, optiken, foku-distantzien, fokuren, diagramaren, obturazioaren eta eremu-sakoneraren aukeraketa aurreikusiko du.

e) Muntaiari, postprodukzioari eta grafismoari eragina duten kamera-lanaren baldintzatzaileak definitu ditu, hala nola ikus-entzunezko jarraitutasuna, irudiaren konposizioa, ekintzaren ardatzak, desplazamenduen norabideak eta abiadurak, begiradak eta espazio-erlazioak –eremuaren barruan zein kanpoan–.

f) Segundoko irudiei, esplorazioari, definizioari, itxura-erlazioari eta formatuari dagokienez bideoan eta zineman proiektu diferenteetarako egokiak izango diren kameraren ezaugarriak zehaztu ditu.

g) Ikus-entzunezko obrak hartzeko eta erregistratzeko prozesuetan, aginduzkoak diren kamera-ekipamenduen, erregistro-baliabideen, tresneria osagarrien eta material suntsikorren zerrendak landu ditu.

4.– Albisteak eta erreportajeak grabatzen ditu eta irudi- eta soinu-materiala editatzen du, eta, zeregin horretan, erreportajearen berezko muntaia-teknikak eta prozedura narratiboak aplikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Azkar eta eraginkortasunez doitu ditu kameraren parametroak giro-zirkunstantzietara, informazio-eraginkortasuna lortzeko.

b) Tripode arina erabiltzea edo kamera sorbaldan erabiltzea baloratu du, ikus-entzunezko erreportajearen benetako beharrei erreparatuta.

c) Adierazpenak eta sarrerak kameraren ikuspuntutik grabatu ditu, informazioaren subjektu direnen informazio-intereserako enkoadraketa egokiak aukeratuta.

d) Hainbat parte-hartzaileraren elkarrizketak grabatu ditu, zenbait ikuspuntutatik eta enkoadraketa anitzekin, galdera-erantzunen dinamikari jarraituta eta edizioan jarraitutasuna erraztuta.

e) Errekurtso-planoak hartu ditu, baita edizio fasean zenbait aukera ahalbidetzeko beharrezko txertaketak ere.

f) Ahalik eta hurbilen eta kalitaterik onenarekin hartu du soinua eta grabatu du irudia, betiere erregistratutako gertakariaren baldintzatzaileen arabera, eta giza taldearen eta tresneria teknikoaren osotasunerako arriskuak murriztuta.

g) Irudiak eta audioa sinkronizatu ditu, klaketen irudi- eta soinu-marketan edo beste edozein erreferentzian oinarrituz.

h) Ikus-entzunezko masterra landu du, erritmo, jarraitutasun eta mugimenduko komunikazio-baldintzak kontuan izanik –besteak beste–.

i) Soinua eta sinkronismoak bideoan emititzeko berariazko arauak eta eskakizunak betetzen dituen amaierako masterra sortu du.

5.– Telebista-saioetan hartzen ditu irudiak, eta kamera anitzeko errealizazioetako eskakizunen berezko kalitate teknikoa eta espresio-kalitatea lortzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Telebista-saio baten eskaleta-matrizearen arauak egokitu ditu, bere egituraren eta edukien garapenean oinarrituta eta errealizazioko kodeei eta araei erreparatuta.

b) Telebistako saio-proiektu bat martxan jartzeko erabiliko dituzten ikus-entzunezko lengoaiaren baliabideak zehaztu ditu, enkoadraketaren adierazpen-erabilerak eta erabilitako konposizioa zehaztuta, baita argiztapeneko baliabideak ere.

c) Telebista-saioetako errealizazioan kameretako bakoitzerako planoak eta enkoadraketa motak definitu ditu, errealizazio-asmoak kontuan hartuta.

d) Kamerako posizioak eta mugimenduak zehaztu ditu, errealizazioan finkatutako jarraibideei erreparatuta.

e) Kamera-seinale guztiak behar bezala sinkronizatzeko doikuntza egokiak egin ditu, errealizazio-kontrolari dagokionez, eta funtzionamendu zuzenerako beharrezko konexioen egoera eta konfigurazioa gainbegiratu du.

f) Luminantziako, krominantziako, idulkiko, irabaziko, xehetasuneko eta kameraren kontrol-unitatearen berezko beste arlo batzuetako doikuntzak egin ditu, eta seinale guztien oreka lortu du.

g) Intercom-eko tresneria eta tally argi-seinaleak erabili ditu programa-aginduen barne-komunikaziorako –errealizazio kontrolaren eta grabazio-setaren artekoak–.

h) Programaren irudiak hartu ditu eta hartzeak zuzenak diren baloratu du.

6.– Ikus-entzunezkoak hartzean eta erregistratzean argiztapena kontrolatzen du, argiztapen-diseinuaren arabera.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Iragazte optikoari dagokionez, planoz planoko grabazio-kameraren jardunerako baldintzak ezarri ditu, baita beharrezko zuri-beltzen balantzeak egiteko ere, kolore-tenperaturaren kalkulua eta doikuntza, argiaren intentsitatea eta kontrasteak abiapuntu izanik.

b) Planoz planoko grabazio-kameraren jardun-baldintzak ezarri ditu, iragazki polarizataleak edo efektu-iragazkiak jartzeko eta argiztapen-diseinuan lortu nahi den efektua erdiesteko.

c) Seinalea manipulatzeko eta doitzeko, planoz planoko grabazio-kamerak jarduteko baldintzak ezarri ditu, idulkia, irabazia eta gamma aldatuta.

d) Kolore-sakonerako eta seinale-kurbako beharrezko doikuntzak egin ditu matrizeetan, LUT tauletan edo antzekoetan, betiere argiztapen-diseinuan finkatutako ikus-itxura lortzeko.

e) CCUak beharrezko preset-ekin programatu ditu, telebista-saioan argiztapen-plana betetzeko.

f) Entseguen eta antzezpenen bidez, kameraren eta antzezleen mugimenduetara eta soinu-hartzeetara egokitu ditu argiztapen-baldintzak.

g) Optikan jarri beharreko edo CCUetan erabili beharreko T zenbakia edo F zenbakia zehaztu du, argien luminantzia eta iluminantzia neurtuta eta dagokion kalkulua eginda, diseinuan finkatutako argiztapen-efektua lortzeko.

h) Programa egitean CCUekin egin du lan, argiztapen-diseinuan ezarritako irizpideetara egokituta eta grabazio- eta emisio-estandarrak aintzat hartuta.

7.– Zuzeneko ikuskizunetan argiztapena kontrolatzen du, eta argiztapen-diseinuaren helburuak eta argiztapen-plana betetzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Patch-a konfiguratu du, eta, eginkizun horretan, erregulazio-elementuak dagozkien kanalei esleitu dizkie eta gehieneko operatibotasuna bilatu du argiztapen-planaren aplikazioan.

b) Luminariak eta argiztapen-kontrolatik maneiatu beharreko beste elementu batzuk kontrolatzeko beharrezko DMX unibertsoa konfiguratu du, dagozkien helbideak esleituta.

c) Audioarekin sinkronizatzeko protokoloak ezarri ditu, soinu-jarduerekin konektatuta edo bat eginda.

d) Ikuskizuna argiztapen-mahaian programatu du, eta, horretarako, azpimasterrak, multzoak, cueak eta makroak erabili ditu, baita ikuskizunaren gertakariak taldekatzeko eta denboralizatzeko eskura dituen elementu guztiak ere.

e) Urruneko argi-iturriak edo robotizatuak programatu ditu, plana betetzeko ahalik eta operatibotasunik handiena bilatuta eta kokalekuak, intentsitateak, koloreak, mugimenduak eta goboak ezarrita mugikorretan eta eskanerretan.

f) Elementu robotizatu osagarriak programatu ditu (kea, haizagailuak eta piroteknia, besteak beste), argiztapen-planean finkatutako efektu bereziak egiteko.

g) Beharrezko entseguak egin ditu; denborak, koordinazioak, oinak, kokalekuak eta abar zuzendu ditu, eta emaitzak programazio-mahaiko euskarri informatikoan eta eskaletan biltegiratu ditu.

h) Pertsonentzako, lokaletarako eta tresneriarako segurtasun-protokoloak bete ditu, ikuskizunean esku hartzen duten tresneria guztien mugimendua eta jarduna erraztuta.

8.– Proiektu fotografiko oso baten berezko jarduerak egiten ditu, eta gehieneko kalitatea lortzeko eta baliabideak optimizatzeko irizpideak aplikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Irudien baliabidea, erreprodukzio-tamaina eta azken helburua zehaztu du, baita irudiak hartzeko gailuak hautatzeko beharrezko kalitate-parametroak ere, proiektuaren eskakizunen azterketa abiapuntu izanik.

b) Irudiak hartzeko beharrezko ekipamenduaren eta ekipamendu osagarriaren zerrenda egin du, sor daitezkeen kontingentziak ebazteko, eta fotografiatu beharreko ikus-elementuak eta horietarako irisgarritasuna baloratu du.

c) Argiztapenaren espresio-ezaugarriak zehaztu ditu, baita produktuaren ikus-estiloa lortzeko beharrezko argiaren mota eta kalitatea ere.

d) Enkoadraketa eta konposizioa egin du, perspektiba, eszenografia, estilismoa eta argiztapena aintzat hartuta eta nahi ez diren efektuak gertatzen ez direla egiaztatuta.

e) Kamerak irudien sekuentzia hartzeko modua konfiguratu du, eta kliskagailu modua doitu du.

f) Hartze fotografikoko prozesua egin du, irizpide teknikoak, estetikoak, komunikaziozkoak eta konposiziozkoak aplikatuta eta prozesuaren azken emaitzak baloratuta.

g) Tratamendu digitala egin du, batez ere irudien doikuntza eta optimizazioa, baita, bidezkoa bada, fotomuntaia ere, informatika-programen aplikazioaren bidez.

h) Kopien akabera-eragiketak egin ditu, aurkezpen-euskarrietan muntatu ditu, katalogatu ditu eta jatorrizkoak artxibatu ditu.

ABUZTUAREN 30EKO 403/2013 DEKRETUAREN III. ERANSKINA

GUTXIENeko ESPAZIOAK ETA EKIPAMENDUAK

1. atala.– Espazioak.

Prestakuntza espazioa	Azalera (m ²) 30 ikasle	Azalera (m ²) 20 ikasle
Balio anitzeko gela.	60	40
Irudiaren eta soinuaren gela teknikoa	90	60
Ikus-entzunezko produkzioen lantegia	180	180
Fotografiako lantegia	120	90
Agertokiaren gela	150	110

2. atala.– Ekipamenduak.

Prestakuntza espazioa	Ekipamendua
Balio anitzeko gela.	Arbela. Ikus-entzunezko baliabideak (TB, DVD, CD erreproduktoreak). Sarean instalatutako ordenagailuak, abiadura handiko inprimagailua, proiektagailua, Internetarako sarbidea eta audio-sistema.
Irudiaren eta soinuaren gela teknikoa	Sarean instalatuta dauden eta Internetarako sarbidea duten ordenagailuak, soinua erreproduzitzeko sistemak eta pantailak barne. Proiektzio-pantaila eta soinua erreproduzitzeko sistemadun bideo proiektagailua. Laser inprimagailua. Eskanerra. Irudi finkoa sortzeko eta tratatzeko informatikako aplikazioak. Irudi mugikorra sortzeko, tratatzeko eta editatzeko informatikako aplikazioak. Ilustrazio bektoriala sortzeko eta tratatzeko informatika-aplikazioak. Soinua sortzeko, tratatzeko, editatzeko aplikazio informatikoak. DVDa egiteko eta web-diseinurako informatika-aplikazioak.

Prestakuntza espazioa	Ekipamendua
Ikus-entzunezko produkzioen lantegia	<p>Honako elementu hauek dituen telebista-estudioa:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Bideokamerak, estudioko konfigurazioan, tripodeak edo idulkiak barne, eta autocue aukera dutenak eta kamera sorbaldan erabiltzeko aukera dutenak. –Parrilla eta argiztapen-aparatuak (Fresnel proiektagailuak, pantaila fluorezenteak, proiektagailu asimetrikoak eta ebaketa-proiektagailuak). –Argiztapena erregulatzeko sistema, dimmer eta argi-mahai bidez. –Iragazki difusoreak, kolore-tenperatura bihurtzekoak eta kolore efektukoak. – Islapen-elementuak. – Ebaketa-elementuak. – Argi intzidenteko fotometro 1, spot gisako argi islatuko fotometro 1 eta termokolorimetro 1. – Zuzendaritzarako interkomunikazio-sistemak, kamerak eta osagarriak, eskuko mikrofonoak, gorbata-mikrofonoak eta mikrofono direkzionalak, horietako zenbait hari gabeko bertsioan. <p>Errealizazio-kontrola:</p> <ul style="list-style-type: none"> –Audio eta bideo monitorizazio-sistema. – Bideo-nahasgailua. – Datuak biltegitzeko kanpo-sistemak, irudien eta soinuen sarrera eta irteera. <p>Titulagailua.</p> <ul style="list-style-type: none"> – Autocue sistema. – Audioko nahasketa-mahaia. – Soinua monitorizatzeko sistema aktiboa. – Kudeaketa-softwarea eta soinu-artxiboak sortzeko aukera duen ordenagailua. – Kameren kontrola, bideo-monitorea, aurreselektorea eta rasterizadorea edo bektoreskopioa duen uhin-formako monitorea dutenena. – Platoarekin komunikatzeko sistema. <p>Makillaje-gela.</p> <p>Bideoa eta audioa jasotzeko ekipo autonomoak:</p> <ul style="list-style-type: none"> – HD kamaskopio trinkoak eta tripodeak. – Eremuko monitorea elikadurarekin. – Steadicam. – Argiztatzeko tresneria autonomoa, kabledun zuzi halogenoekin eta tripodeekin. – Argiztapen-difusoreak. – Soinua hartzeko tresneria. <p>Bistaratzeko tresneria.</p>

Prestakuntza espazioa	Ekipamendua
Fotografiako lantegia	<p>Plato-eremua, honako ezaugarri hauek izango dituena:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Argiaren estankoa edo erabat iluntzeko aukera duena (horma eta sabai beltzak edo gris ilun neutroak). – Sabaia pantografo bidez argitzeko parrilla. <p>Ekipamendua:</p> <ul style="list-style-type: none"> – DSLR kamerak, objektibo egonkortuak eta digitalak dituztenak, hainbat foku-distantziarekin. – Kolore-kartak eta zuri-balantzeko karta. – Kamera teknikoak, txasis digitala, iragazki euskarria, eguzki-babeska eta objektiboak dituztenak: angeluarra, normala eta teleobjektiboa. – Erdi-mailako formatua duen kamera digitaleko kit-a, 80 mm-ko objektiboarekin, objektibo angeluarrarekin, foku-objektibo normalarekin eta teleobjektiboarekin. – DSLR kamerarako tripodeak + buruak. – Kamera teknikorako zutabeak + burua. – Natura hiletarako mahai zeharrargiak. – Hormarako euskarria duten atzealde fotografikoak. <p>Fotografia zientifikorako eranskinak.</p> <p>Argiztapen-tresneria, elementu hauek dituena:</p> <ul style="list-style-type: none"> – <i>Flash</i> trinkoak, gutxienez 1000 W/segundo. – Islagailu normalak, bisera dutenak. – Argi-leihoak. <p>Proiektagailu asimetrikoak.</p> <p>Islagailuen eta difusoreen kita (zilar-kolorekoa, urre-kolorekoa, beltza eta zuri zeharrargia).</p> <p>Kono 1.</p> <p>Argi-kontzentragailu 1.</p> <p>Abaraska duten islagailu normalak.</p> <p>Difusio-panelak, berariazkoa euskarria barne.</p> <p>Iragazki difusoreak.</p> <p>Kolore-efektua duten iragazkiak.</p> <p>Kolore-tenperatura duten iragazki zuzentzaileak.</p> <p>Dentsitate neutroko iragazkiak.</p> <p>Century oinak, zeferinoarekin.</p> <p>Banderak edo argia mozteko beltza.</p> <p>Kamera eta flash-a sinkronizatzeko haririk gabeko sistemak (sistema bakoitzak gutxienez emisore 1 eta 4 zelula hartzaile).</p> <p>Mikroargiztapeneko eranskinak.</p> <p>Ebakitzeko eta muntatzeko materialak:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Gillotinak, guraizeak, ebaketa-aparatuak. – Lekedak eta itsasgarriak. – Aurkezteko euskarriak: metalezko, plastikozko, zurezko, beirazko, metakrilatozko eta kristalezko markoak eta euskarriak. <p>Argazkien kontserbazioa neurtzeko aparatuak: luxometroak, fotometroak, higrometroak, hezetasuna neurtzeko txartelak, pH-a hautemateko sistemak, espektrofotometroak.</p> <p>Argazkiak biltegitratzeko materialak.</p> <p>Biltegitratzeko informatika-euskarriak.</p> <p>Lanerako mahai eta gainazal handiak.</p> <p>Materialerako armairuak eta apalategiak.</p>

Prestakuntza espazioa	Ekipamendua
Agertokiaren gela	<p>Hartune trifasikoko argiztapen-parrilla. Hankak eta panpalinak. Dimmer-en rack-a. Mahukak eta konexioak. Ziklorama beltz, gris eta berdeak. Oinarrizko argiztapena: – Zortzi hodiko argi hotzeko pantailak. – HMI proiektagailuak, cinepar 1200W motakoak. – HMI proiektagailuak, Fresnel 575W motakoak. – Hainbat W-ko proiektagailu, Fresnel motakoak. – Dedolight 250W motako proiektagailuak. – Cuarzos 1000W – 650W motako angelu irekiko proiektagailuak. Cetac konektoreak: – Ar trifasikoak, 128 A. – Eme trifasikoak, 128 A. – Arrak, 32 A. – Emeak, 32 A. Schuko konektagailuak, arrak eta emeak. Mahuka trifasikoak eta kable egokiak. Italiar erako tripodeak. Tripode tolesgarriak. Tripodeen luzapenak. Armiarmak. Karraka-tripodeak. Barrikudak. Askotariko banderak. Hollywood-ak. 4x4 palioa. Zeferino luzeak. Zeferino laburrak. Pintza unibertsalak. Iragazki difusore anitzak (<i>white diffusion, opal, frost</i> eta abar). Kolare-tenperaturako gelatinak. Kolare-gelatinak. ND gelatinak. Askotariko islagailuak. Ispilu zuria. Islagailu elastikoak, 5x1 motakoak. Cremer txapak. Fotometro puntuala. 30ko fotometroa. Luxometro-termokolorimetroa. Ikuskizunetarako berariazkoa: – Eskuko karrakako 3 tarteko genieak. – Truss tarteak. – Poteak. – Eskanerrak. – Mugikorak. – Ebakinak. – PC lenterako fokuak. – Askotariko bragak. – Fokuak eusteko materiala. – Foku guztietarako iragazki-euskarriak. – DMX mahukak, luzera anitzekoak. – Splitter 1. – Dimmer-en rack 1, eramangarria, 25 A-ko 4x6 dimmer. – Cetac-Cetac eta Cetac-Schuko olagarroak. – Harting motako konexio-mahukak. – Argiztapen digitaleko mahai programagarria, bi DMX 512 irteera dituen.</p>

ABUZTUAREN 30EKO 403/2013 DEKRETUAREN IV. ERANSKINA

IRAKASLEAK

1. atala.– Irakasleen espezialitateak eta irakasteko eskumena Irudia argiztatzea, hartzea eta tratatzea heziketa-zikloko lanbide-moduluetan.

Lanbide modulua	Irakasleen espezialitatea	Kidegoa
1158. Ikus-entzunezkoetako kamera-plangintza	Hedabideak eta Prozesuak	Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako katedradunak Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleak
1159. Ikus-entzunezko irudia hartzea	Irudi eta Soinu Prozedurak eta Teknikak	Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako irakasle teknikoak
1160. Argiztapen-proiektuak	Hedabideak eta Prozesuak	Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako katedradunak Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleak
1161. Luminoteknia	Hedabideak eta Prozesuak	Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako katedradunak Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleak
1162. Argiztapen-kontrola	Hedabideak eta Prozesuak	Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako katedradunak Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleak
1163. Proiektu fotografikoak	Hedabideak eta Prozesuak	Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako katedradunak Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleak
1164. Hartze fotografikoa	Irudi eta Soinu Prozedurak eta Teknikak	Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako irakasle teknikoak
1165. Tratamendu fotografiko digitala	Irudi eta Soinu Prozedurak eta Teknikak	Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako irakasle teknikoak
1166. Amaierako prozesu fotografikoak	Irudi eta Soinu Prozedurak eta Teknikak	Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako irakasle teknikoak
1167. Ikus-entzunezko erreportajeen grabazioa eta edizioa	Irudi eta Soinu Prozedurak eta Teknikak	Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako irakasle teknikoak
1168. Irudia argiztatzeko, hartzeko eta tratatzeko proiektua	Irudi eta Soinu Prozedurak eta Teknikak	Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako irakasle teknikoak
	Hedabideak eta Prozesuak	Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako katedradunak Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleak
E200 Ingeles teknikoa	Ingelesa	Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako katedradunak Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleak
1169. Laneko prestakuntza eta orientabidea	Laneko prestakuntza eta orientabidea	Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako katedradunak Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleak

Lanbide modulua	Irakasleen espezialitatea	Kidegoa
1170. Enpresa eta ekimen sortzailea	Laneko prestakuntza eta orientabidea	Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako katedradunak Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleak
1171. Lantokiko prestakuntza.	Hedabideak eta Prozesuak	Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako katedradunak Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleak
	Irudi eta Soinu Prozedurak eta Teknikak	Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako irakasle teknikoak

edo araudian ager daitekeen beste edozein irakasle-espezialitate.

2. atala.– Titulazio baliokideak irakaskuntzaren ondorioetarako.

Kidegoak	Espezialitateak	Titulazioak
Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako katedradunak Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleak	Laneko prestakuntza eta orientabidea	Enpresa-zientzietan diplomaduna. Lan-harremanetan diplomaduna. Gizarte-lanean diplomaduna. Gizarte-hezkuntzan diplomaduna. Kudeaketa eta Administrazio Publikoan diplomaduna.

edo araudian ager daitekeen beste edozein titulazio.

3. atala.– Titulua osatzen duten lanbide-moduluak emateko beharrezko titulazioak hezkuntzakoaz bestelako administrazioetako titulartasun pribatuko nahiz publikoko ikastetxeentzat.

Lanbide moduluak	Titulazioak
1159. Ikus-entzunezko irudia hartzea 1164. Hartze fotografikoa 1165. Tratamendu fotografiko digitala 1166. Amaierako prozesu fotografikoak 1167. Ikus-entzunezko erreportajeen grabazioa eta edizioa 1168. Irudia argiztatzeko, hartzeko eta tratatzeko proiektua	Lizentziaduna, ingeniaria, arkitektoa, edo dagokion graduko titulua edo beste zenbait titulu baliokide. Diplomaduna, ingeniari teknikoa edo arkitekto teknikoa edo dagokion graduko titulua edo beste zenbait titulu baliokide.
1158. Ikus-entzunezkoetako kamera-plangintza 1160. Argiztapen-proiektuak 1161. Luminoteknia 1162. Argiztapen-kontrola. 1163. Proiektu fotografikoak 1169. Laneko prestakuntza eta orientabidea 1170. Enpresa eta ekimen sortzailea	Lizentziaduna, ingeniaria, arkitektoa, edo dagokion graduko titulua edo beste zenbait titulu baliokide.
E100. Ingeles teknikoa	Ingeles Filologian lizentziaduna

edo araudian ager daitekeen beste edozein titulazio.

ABUZTUAREN 30EKO 403/2013 DEKRETUAREN V. ERANSKINA

HEZKUNTZA SISTEMAREN ANTOLAMENDU OROKORRARI BURUZKO URRIAREN 3KO 1/1990
LEGE ORGANIKOAREN BABESEAN EZARRITAKO LANBIDE MODULUEN ETA HEZKUNTZARI
BURUZKO MAIATZAREN 3KO 2/2006 LEGE ORGANIKOAREN BABESEAN EZARRITAKOEN
ARTEKO BALIOZKOTZEAK

Logse legean ezarritako heziketa zikloetan barnean hartzen diren lanbide moduluak (logse, 1/1990)	Irudia argizatzea, hartzea eta tratatzea heziketa zikloko lanbide moduluak (loe, 2/2006)
Argazki-irudia	1163. Proiektu fotografikoak 1164. Hartze fotografikoa
Argazki-aplikazioak	1164. Hartze fotografikoa 1165. Tratamendu fotografiko digitala
Agertokien argiztapena	1160. Argiztapen-proiektuak 1161. Luminoteknia 1162. Argiztapen-kontrola
Ikus-entzunezko irudia	1158. Ikus-entzunezkoetako kamera-plangintza 1159. Ikus-entzunezko irudia hartzea 1167. Ikus-entzunezko erreportajeen grabazioa eta edizioa
Enpresa txikien administrazioa, kudeaketa eta merkaturatzea	1170. Enpresa eta ekimen sortzailea
Lantokiko prestakuntza.	1171. Lantokiko prestakuntza.

ABUZTUAREN 30EKO 403/2013 DEKRETUAREN VI. ERANSKINA

KONPETENTZIA ATALEN ETA MODULUEN ARTEKO EGOKITASUNA (HORIEK BALIOZKOTZEKO), ETA LANBIDE MODULUEN ETA KONPETENTZIA ATALEN ARTEKO EGOKITASUNA (HORIEK EGIAZTATZEKO)

1. atala.– Kualifikazioei buruzko ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoaren 8. artikuluan ezarritakoaren arabera egiaztatzen diren konpetentzia-atalen egokitasuna lanbide-moduluekin.

Konpetentzia atala	Lanbide modulua
UC0939_3: Ikus-entzunezko proiektuak hartzeko eta erregistratzeko plana garatzen laguntzea.	1158. Ikus-entzunezkoetako kamera-plangintza
UC0940_3: Irudia hartzeko eta erregistratzeko baliabideen egokitzapen teknika eta operatibotasuna egiaztatzea. UC0942_3: Ikus-entzunezko proiektuaren irizpide teknikoen, artistikoen eta komunikaziozkoen arabera hartzea irudiak.	1167. Ikus-entzunezko erreportajeen grabazioa eta edizioa 1159. Ikus-entzunezko irudia hartzea
UC0210_3: Zuzeneko ikuskizun baterako argiztapenean parte hartzea, hainbat ustiapen-egoeratan erreproduzitura eta mantenduta. UC0941_3: Ikus-entzunezko produkzioen argiztapena diseinatzen eta gauzatzen laguntzea.	1160. Argiztapen-proiektuak
UC0211_3: Zuzeneko ikuskizun baterako argiztapen-tresneria muntatzeko, desmuntatzeko eta mantentzeko lanak kudeatzea, koordinatzea, gainbegiratzea eta egitea.	1161. Luminoteknia
UC0941_3: Ikus-entzunezko produkzioen argiztapena diseinatzen eta gauzatzen laguntzea. UC0212_3: Entseguak eta emanaldiak zerbitzatzea.	1162. Argiztapen-kontrola.
UC1417_3: Proiektu fotografikoak diseinatzea, antolatzea eta kudeatzea.	1163. Proiektu fotografikoak
UC1418_3: Irudi fotografikoen eszenografia, argiztapena, hartzea, erregistroa eta kalitate-balorazioa gainbegiratzea eta egitea.	1164. Hartze fotografikoa
UC0928_2: Irudiak informatika-aplikazio bidez digitalizatzea eta tratatzea. UC1415_3: Irudi sintetikoak sortzeko, digitalizatzeko, tratamendu digitalak egiteko eta filmak errebelatzeko prozesuak kudeatzea eta gainbegiratzea.	1165. Tratamendu fotografiko digitala
UC1416_3: Positibatze, inprimatze eta akabera fotografikoko prozesuak kudeatzea eta gainbegiratzea. UC1419_3: Irudi eta material fotografikoak emateko, artxibatzeko eta kontserbatzeko prozesuak bermatzea.	1166. Amaierako prozesu fotografikoak

2. atala.– Egiaztatzeari begira titulu honetako lanbide-moduluei dagozkien kompetentzia-atalak honako hauek dira:

Lanbide modulua	Kompetentzia atala
1158. Ikus-entzunezkoetako kamera-plangintza	UC0939_3: Ikus-entzunezko proiektuak hartzeko eta erregistratzeko plana garatzen laguntzea.
1167. Ikus-entzunezko erreportajeen grabazioa eta edizioa 1159. Ikus-entzunezko irudia hartzea	UC0940_3: Irudia hartzeko eta erregistratzeko baliabideen egokitzapen teknikoa eta operatibotasuna egiaztatzea. UC0942_3: Ikus-entzunezko proiektuaren irizpide teknikoen, artistikoen eta komunikaziozkoen arabera hartzea irudiak.
1160. Argiztapen-proiektuak	UC0210_3: Zuzeneko ikuskizun baterako argiztapenean parte hartzea, hainbat ustiapen-egoeratan erreproduzitura eta mantenduta. UC0941_3: Ikus-entzunezko produkzioen argiztapena diseinatzen eta gauzatzen laguntzea.
1162. Argiztapen-kontrola	UC0941_3: Ikus-entzunezko produkzioen argiztapena diseinatzen eta gauzatzen laguntzea. UC0212_3: Entseguak eta emanaldiak zerbitzatzea.
1161. Luminoteknia	UC0211_3: Zuzeneko ikuskizun baterako argiztapen-tresneria muntatzeko, desmuntatzeko eta mantentzeko lanak kudeatzea, koordinatzea, gainbegiratzea eta egitea.
1163. Proiektu fotografikoak	UC1417_3: Proiektu fotografikoak diseinatzea, antolatzea eta kudeatzea.
1164. Hartze fotografikoa	UC1418_3: Irudi fotografikoen eszenografia, argiztapena, hartzea, erregistroa eta kalitate-balorazioa gainbegiratzea eta egitea.
1165. Tratamendu fotografiko digitala	UC0928_2: Irudiak informatika-aplikazio bidez digitalizatzea eta tratatzea. UC1415_3: Irudi sintetikoak sortzeko, digitalizatzeko, tratamendu digitalak egiteko eta filmak errebelatzeko prozesuak kudeatzea eta gainbegiratzea.
1166. Amaierako prozesu fotografikoak	UC1416_3: Positibatze, inprimatze eta akabera fotografikoko prozesuak kudeatzea eta gainbegiratzea. UC1419_3: Irudi eta material fotografikoak emateko, artxibatze eta kontserbatzeko prozesuak bermatzea.